MIKEL ANTZA

Ospitalekoak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2010 Mikel Antza
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2010eko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Maite Iriarte Vicario
eta
Rafa Albisu Ezenarro
gurasoei,
zuengandik
naiz,
zuei esker
ere
gara

Maixoli,
berriro ibiltzen hasteko
adorea emateagatik

Ez da harritzekoa espetxeek lantegi,
eskola, kaserna eta ospitaleen antza izatea,
horiek denak espetxeak bezalakoak baitira.

MICHEL FOUCAULT

Oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko,
alferrikakoa da esertzea idazteko.

HENRY DAVID THOREAU

Badakin?, ospitale honetara etorri nintzenean ez ninan uste denbora gutxiren buruan hiltzeko zorian egongo nintzenik. Ez ninan espero ezta ere, bertan berriro jaioko nintzenik.

Nola pentsa nezakeen halakorik, eskuin esku-ko erdiko hatzeko lotailu hezur baten haustura-ren ondorengo berreziketa egiteko besterik ez bainintzen etorri hona.

Hiltzeko zorian egon eta berriro jaio. Eta bai, bi-biak gertatu zaizkit hemen daramadan denbo-ran. Ez dakit inoiz aterako naizen bertatik, bizi-rik. Dakidan bakarra da oraindik bizi naizela; be-rriro ere jaio naizelako.

Nik ez nuen hona etorri nahi. Denek zekiten hori, medikuek, burkideek, senideek, aboka-tuek... Denak jarri nituen jakinaren gainean, denei esan nien nola gorroto ditudan ospitaleak.

Orain, gertatuak gertatuta, aurreikuspen bat izan nuela esan niezaieke. Sumatzen nuela ospi-taleratuz gero nire bizitza arriskuan zegokeela. Edota banekiela desgrazia desgraziaren atzetik gertatuko zitzaidala horma ustez aseptiko hauen artean. Igarria niola etorkizunari prestatua zidan

patu hitsa. Ez nintzateke egia esaten ariko, ordea. Ez nuen halako aurreikuspenik izan. Ospitaleekiko dudan arbuio jarrera betidanikoa baita. Jaiotzaz geroztikoa. Horregatik, eta ez beste ezergatik, ez nuen hona etorri nahi. Eta, alde batera, hobe etorri izan ez banintz. Baina, bestetik, etorri izan ez banintz, ez nukeen hirugarren aldiz jaiotzeko izan dudan aukera hau izango.

Berriro jaiotzeak, erditzearen une mingarria jasanda ere, badu alde onik. Izan ere, berriro jaioz gero bizitza zerotik hasteko aukera izaten dugu, iraganeko akatsak eta ukalondo sartzeak ez errepikatzeko aukera. Ospetsuek prentsa elkarrizketetako galdera-erantzun arrunta izan ohi dute berriro jaioz gero bizitza errepikatuko luketela esatea. Beren bizitzaz ez direla damutzen esateko modua dute hori, noski. Niri galdetuz gero, ez nuke gauza bera erantzungo. Betidanikoa baitut errepikapenerako ezintasun moduko bat. Beti egin zait zaila, bigarren aukera izan eta bizi izandakoa berriro errepikatzeko gogo hori agertzen duen jendea ulertzea. Berriro jaioz gero, zertarako bizi jadanik bizi izandakoa? Ez al da hobe beste bizimodu batzuk saiatzea? Egin-

dako erruak errepikatu gabe beste batzuk egiteko arriskua hartzea?

Errepikatzeko dudan zailtasunaren adibide bat: ezinezkoa zait istorio bera bitan berdin kontatzea. Bigarrenez kontatzeari ekiten diodanean aldrebestu egiten zait istorioa: beti asmatzen dut pertsonaia berriren bat; pertsonaia nagusiak lehen esan ez zuen zerbait esaten du; Hego Amerikara ordez Txinara iristen dira protagonistak; hiltzailea errugabetzen dut bertsio berrian; hasieran emakumezkoa zena gizonezko bihurtzen da; hiru anaia zeuden tokian laugarren bat asmatzen dut; semearentzako ipuinetako bidelapurrak pirata bihurtzen zaizkit oharkabean; piratak astronauta eta dinosauroak izaki estralurtar. Hobe dut behin idatzitakoa zuzentzen ez hastea: lerroa zena paragrafo bihurtuko zait orduan, paragrafoa atal, atala... Ez naiz sekula bukaerara iristen. Bukaerara iritsi nahi ez banu bezala. Bukaera hasierarako bidea besterik ez balitz bezala. Amaieran hasten den kiribil-eskailera. Heriotza jaiotza.

Beste adibide bat: amaitu berri dudan antzezlana berrikusterakoan, pertsonaiek beti izan-

go dute zerbait berria aipatzeko, eta horrek korapiloa gehiago estutuko du, eta agertokia hasieran aurreikusita ez zeuden pertsonaiez betetzera behartuta egongo naiz. Idazketa berrosatzen ari naizela, antzerki ekoizlea kexu irudikatzen dut, Euskal Herrian horrelako antzerki lanik ezin dela muntatu, doinu etsiz esanez. Irudikatzen ditut antzezleak purrustaka, bezperako testua zuzentzerakoan bospasei ahapaldi berri txertatu dizkiedala-eta, berriro ere testu guztia buruz ikasten hasi beharko dutelako; irudikatzen ditut *atrezzokoak* erotu beharrean, dekoratzaileak izerdi patsetan dekoratu berriak egiten; irudikatzen ditut ikusleak lozorroan antzerkia sekula ez delako bukatzen. Edo sekula ez delako hasten.

Ezpata hartzeko tentaldia izaten dut eta zast! gordiar korapilo haren antzera nik sortutakoa askatzeko. Errazagoa da ordea testu osoa hautatu eta edozein tekla zanpatuz dena ezabatzea. Zuri dago berriro pantaila, sorkuntzaren magiaren zain, idatziko dudan lehen hitzaren, lehen hizkiaren esperoan, dardarka, beren bizitzako lehen musua ematear dauden nerabeen antzera.

Hartara, errepikatzea maite ez dudalako, edota ezinezkoa zaidalako, hirugarrenez jaio ondorengo bizitza berri honetan, orain artekoak ez errepikatzeko erabakia hartua dut. Ez errepikatzearena, zentzu batean, nahitaezkoa ere bada, berriro jaio naizen arren, oraingoan ez naizelako amaren umetokitik jaio. Heldua naiz, eta, beraz, horretara jarrita ere ezingo nituzke haurtzaroko, nerabezaroko eta gaztaroko egintzen bertsio hobetuak (edo okertuak) burutu.

Helduarokoak errepikatu nahi izatekotan ere ezinezkoa litzaidake. Orain ospitalean bainago, kartzela-ospitalean.

Eta gurpil-aulkiari lotuta.

Eskuin eskuko erdiko hatzeko lotailu hezurraren hausturaren ondorengo berreziketarako ingresatu nindutenean, gutxi uste nuen gurpil-aulkiari lotuta, gerritik behera ezinduta geldituko nintzenik.

Gutxiago uste nuen, duela bi hilabete iritsi nintzenean, bertan ia hil eta berriro jaioko nintzenik.

Ez zaidan iruditzen ospitaleekiko dudan arbuio jarrerak beste edonorengandik bereizten nauenik. Ez dinat uste inor gustura joaten denik ospitalera. Hemengo benetako gaixo eta erien artean ez dinat ezagutzen hona gustura etorri den inor. Min handi edota larri batek bultzatzen gaitin bertara. Ezinbestean gatozan edota gakartzaten. Norberaren nahikundetik kanpoko zerbait dun ospitaleratzea. Egunerokotasunaren etena baino gehiago dun, beste mundu batean murgiltzea.

Gaixotasuna larria ez denetan, aldi baterako jendartetik at bada ere gaixoa etxeko goxoan egoten da, ospitaleratu gabe, etxekoen babesean (bakarrik bizi ez direnen kasuan, noski). Ospitaleratzeak aldiz, gaixotasunaren larria nabarmentzeaz gain, mundutik erauzten du gaixoa, arrotz bilakatuz, baita bere maiteenganako ere. Arrotzen esku dago bere bizitza. Eta ondorioz, nolabait, heriotzatik hurbilago sentitzen da ospitalean.

Niri dagokidanez, ospitale honetara neure kabuz etorri banintzen ere, ez nintzen gogotsu

etorri. Egoerak eta jaso nituen aholkuek hartaratu ninduten. Hori zen egin nezakeen zentzuzkoena, ziotenez. Hautu faltsua jarri zidaten eta etortzea erabaki nuen. Gertatzen zitzaidana (hezurtxo baten haustura) berez larria ez bazen ere, berez gaixotasuna ez bazen ere.

Nire ospitaleratzea ez zen hil edo biziko kontua. Baina orain, gertatuak gertatuta, nolako egoera tamalgarrian nagoen ikusita, nahiago dut pentsamendu hori uxatu, ez dut gehiegi pentsatu nahi zer gertatuko zatekeen ospitaleratu izan ez banintz.

Hatz bat zurrundua, baina bi zangoen jabe banintz nire bizitza zer izango litzatekeen amesteko arriskurik ez dinat hartu nahi, ezta hiretzako zirriborratzen ari naizen orriotan hipotesi bezala erabiltzeko ere. Erabateko etsipenaren zulo beltzean eroriko ninduken, eta behin eroriz gero, zulo horretan bizirauteko, hemengo egoiliar gehientsuenen antzera, eragin suntsigarria duten pilula kolore bizidunen esklabo bihurtuko. Nahiago dinat arimako penak orrialde zuriak hiretzat betez arindu. Oraingoz eta ahal dudan arte. Edo uzten didaten arte.

Haien berririk aspaldian ez dudan arren, ziur nago arrazoi nuela esaten ariko direla burkideak, hobe nukeela nire hasierako iritzian tematu izan banintz, kartzela-ospitalera etorri ordez, kartzelako ziega arruntean gelditu izan banintz, horrek hatz baten galera ekarriko bazidan ere. Ez nintzateke harrituko baten batek esango balu horixe bera aholkatu zidala, ez joateko ospitalera; ez etortzeko hona, alegia. Ez da egia ordea. Denek hobetsi zuten, denek bultzatu ninduten, denek aholkatu zidaten etortzeko, hobe nuela, egiteko kasu medikuei.

Hala ere, ez ditut erruduntzat jotzen, ez ditut nire desgraziaren arduraduntzat hartzen. Ni naiz erantzule bakar.

Gainera, orain, lehen ez bezala, errukiz begiratuko nioke gezurtiari.

Ez nau lotsatzen gizakiarekiko nire ikuspegia aldatu dudala aitortzeak. Ez dut eragozpenik onartzeko lehen era batera eta orain beste era batera ikusten ditudala mundu honetakoak. Lehen ulergaitz zitzaizkidan asko garden agertzen zaizkidala. Zikoizkeria eta bihotz zabaltasuna hitz huts izateari utzi diotela nire bizitzan, bi-

zipen sakon bihurtzeko. Mina, gorrotoa, belduRra... hitz izateari utzi eta zauri bihurtu direla nire baitan. Lehen gezurtiak jasangaitz zitzaizkidala, eta orain gezurraren geruzaren atzean ezkutatzen den mundua asmatzen saiatzeak nolabaiteko plazera ematen didala. Mundua beheragotik ikusteak gizakia barneagotik ezagutzea ekarri balit bezala.

Beldurra*, eragile handi*, esan ohi zidanan Xabierrek, bere ahotik jasotako gerra garaiko gertakari niretzat ulergaitz baten arrazoia aurkitu nahian galdetzen nionean.

Ohartua nintzen beldurraren eragin handiaz, baina ordura arte niri beti iruditu izan zitzaidan kontrakoa, alegia, beldurrak ezindu egiten duela. Xabierren atsotitzaren argitan aztertu eta ulertu ditut lehen ulertzen ez nituen jokabideak. Xabierrek gerra garaiko jokabideak azaltzeko erabiltzen zuen atsotitz moldatuak erakutsi dit Izu Jauna dela (*Don Bildur* ospetsua) munduaren ibilera agintzen duten Erosotasun/Diru Jainkoarekin eta Maitasun/Sexu-grina Jainkosarekin hirukotea osatzen duen beste eragile boteretsua.

Kartzelatu aurretik erabili izan ditut, hitzez eta idatziz, koherentzia, leialtasuna eta duintasuna moduko hitz potoloak. Erabili izan ditut kontraesana, traizioa eta gezurraren modukoak ere. Geroztik ikasi dut benetan duten esanahiaz jabetu gabe lardaskatzen nituela, haize kolpeak hegaldatutako puxikak zirela, mamirik gabeko kontzeptuak. Orain, ahoskatu aurretik luze bera-

tzen ditudan berunezko gozoki, batzuetan mikatz, bihurtu zaizkit, beldurra eta erosotasuna eskuz esku ikusi baititut kontraesanari eta gezurrari agintzen, koherentzia eta duintasuna hobiratzeko.

Horregatik dut hitz horiek, izen nagusien antzera, hizki larriz idazteko joera.

Lehen ez nuen hurkoaren egintza ulergaitzen zergatia hausnartzen ibiltzeko ohiturarik. Egia esan, nire jokabidea xeheki aztertzeko tarterik ere ez nuen hartzen. Zergatik egin nuen hau eta ez bestea ez zitzaidan iruditzen aztergai izan zitekeenik; nire izaerari zegokion zerbait zela irizten nion. Eta hurkoak beste era batera jokatzen bazuen, hain zuzen ere, bere izaeraren bereizgarritzat hartzen nuen jokabide hura.

Geroztik, eta nire egoerak okerrera egin ahala, gero eta gehiago, gupidagabea bihurtu naiz ulergaitz zaizkidan jokabideen eragilearen edo eragileen azterketan. X-izpien makinarekin bezala behatzen ditut hasiera batean ulergaitz egiten zaizkidan jokabideak. Diruagatik egiten du? Dirua irabazteko ala dirua ez galtzeko, alegia. Maitasunaren eraginez? Jeloskeriaz edo be-

rekoikeriaz, alegia. Beldurrak hartaratuta? Ondasunak eta erosotasunak galtzeko beldurrez edo heriotzaren beldur, alegia.

Hara Xabierrek etengabe errepikatzen zidan zerbait:

– Bizitzak erakusten dizkigunak ikusten eta ikasten ez badakigu, ikasitakoaren arabera jokatzen ez badakigu, eta bizitzaren gorabeheren arabera aldatzen ez badakigu, alferrik gara mundu honetakoak.

Hori zen bere ustea.

Nik, orduan, moldatze, egokitze eta aldaketa hitzei mesfidantzaz begiratzen nien. Ez ote ziren hitz ponposo horiek damutzea, amore ematea eta burua makurtzearen apaingarriak baino. Urte guztiotan txerto eraginkorra izan da niretzat gure aurreko belaunaldiko gehienen amore emate mozorrotua. Mintzaldi arranditsuen atzean ezkutatzen den traizioa detektatzeko trebatu ninduten 70eko hamarkada amaierako ustezko abertzaleek eta ustezko ezkertiarrek.

Luze eztabaidatzen genuen Xabierrek eta biok. Eztabaidan, besteari arrazoia emateko

unean, egoskor eta zikoitz agertzen ginen biok, ados geundenean ere adostasuna erakutsi gabe.

Tamalez, kontu hauei buruz Xabierrekin baino ez nezakeen hitz egin.

Eta bera desagertuz geroztik, barne bakarrizketa idatzi hauetan baino ez zezakenat nire gogoaren anabasa eta sortzen zaizkidan galderak ahalik eta txukunen higanatzeko saioa egin.

Ez zaidan iruditzen, duela ia hiru urte kartzelan sartu gintuztenean nire buruaz errukitu nintzenik; ez dinat oroitzen bederen. Aldiz, oso gogoan dinat, artean burkideengandik bakartuta nindutela, preso arrunten desgraziak entzuterakoan haietaz kupitzen nintzela. Biktimatzat nitinan, nirearen antzeko egoera penagarrian zeuden horiek. Ez nekinan zergatik sartu zituzten lau horma artera. Kartzelan zergatik dagoen inori ez galdetzeko ohitura dinat. Nahiago dinat ez jakin. Nahiago dinat inoren egintzen epaile ez bihurtu. Haatik, bizi zuten egoera ez zela gizalegezkoa irizten nionan.

Alabarekiko ikustaldia debekatu zioten gizonaren negarrak entzutean nire buruari galdetzen nion:

– Nola egin diezaioke halakorik gizaki batek besteari?

Alegia, instrukzio epaileak edo kartzela zuzendariak presoari.

Inozoa nintzen orduan. Orain, batzuetan bururatzen zait ez ote zuten gizon hura atxilotu preseski alaba bortxatzen zuelako eta, gizonak

eskatu arren, alaba zela ikustera etorri nahi ez zuena.

Edonola ere, zigortzailea zigortu bihurtzen du kartzelak. Erasotzailea biktima.

Eta kartzela-ospitale honetara iritsi berritan, gurpil-aulkiari edota arnasgailuari lotutako elbarria are eta biktimagoa agertzen zitzaidan nire begietara. «Gaixo dagoen presoa, bitan preso eta bitan gaixo», nioen. Kartzelak eta gaixotasunak atzipetua; gaixotasunak eta espetxeak eritua. Presozainak eta erizainak ditu zaindari. Maiz, heriotza noiz iritsiko zain dago, askatasunak hilabete batzugatik, aste batzugatik, egun batzugatik, ordu batzuengatik heriori lasterketa irabaziko ote dion esperantzaz.

Ez uste nitaz ari naizenik ordea. Ez, nire burua ez dut ez biktimatzat eta ez gaixotzat. Egoera larrian nagoen arren, eskuak gurpilei eraginez zailduak eta hankak zimelduta baditut ere. Badakit zergatik kartzelatu ninduten, eta egoera larrienean egonda ere ezinezkoa zait nire burua biktima gisa ikustea. Ez bada letra larriz idazten den historiaren zurrunbiloan denok biktima garen neurrian.

Beraz, kartzelara ekarri aurretik banuen giza izaerari buruzko iritzi sendoa. Gizakia funtsean eta barru-barruan ona dela uste nuen. Gaur egun, axioma hori ere zalantzan jartzera iritsi naiz. Bada gizaki onik eta baita gizatxar franko ere. Baina, batez ere, gehiengoa ez bata eta ez bestea dela uste dut orain. Egoeraren arabera batera edo bestera egiten du norberak, unean uneko baldintzapenen arabera.

Esaterako, kanpoan munstro okaztagarri izandako ugari kartzelako etxarte eta korridoreetan daitekeen pertsonarik apal eta otzanenaren antzera ibiltzen da. Tratuan hain arrunta dirudien horren barne mundurik eta iragan lazgarririk ez dut jakin nahi izaten. Badaezpada ere.

Tamalez, bada beti kartzelazain gaiztoren batek hedatutako zurrumurrua jakinarazten digun hitzontziren bat.

Horrela, egun batean, goizero etxarterakoan eskua luzatu eta *Bonjour Michel!* adeitsuz agurtzen nauen gizon aratza seinalatuz esango didate:

– Ez al dakizu Urlia zergatik dagoen hemen? Bortxatzailea da! *Pointeur* sasikume bat!

Soberan dituen sagarrak ematen dizkidan Berendiak aldiz, sendi oso bat akabatu, gorpuak zatikatu eta gorpuzkinak errez desagerrarazi zituela zin egingo didate hurrengo batean.

Erregearen zerbitzari leialena den gizontxo apala, elkar ikusten dugun aldiro mendazko gozokia ematerakoan irribarre goxoa eskaintzen didan huraxe, Europa Ekialdeko emakumeak bahituz hornitutako prostituzio sare baten buru omen zelako ekarri zuten hona.

Zinemaz, literaturaz edota arte garaikideaz elkarrizketa burutsuak izan nitzakeen bakarrak, Sandiak, emaztea hil zuela esan didate, eta ondoren bere buruaz beste egiten saiatzean huts egin zuela. Eta horregatik dagoela halako egoera tamalgarrian, gupidagarrian, ni bezala gurpilaulkiari lotua.

Zer egin. Merezi ote du Sandiak nire gupida? Hartu behar al diot aurrerantzean gozokia eta irribarrea *Erregearen* zerbitzariari? Berendiari sagarrak? Onartu behar al diot eskua Urliari? Ustez egin zutena ez dakidan itxurak egiten jarraitu behar al dut ala nire burua aldi-baterako epaile bihurtu behar dut eta gehiago agurtu ez,

gozokirik eta sagarrik hartu ez, irribarrerik itzuli ez?

Hurrena, Urlia, Sandia edota Berendia hurbiltzen zaidanean, ozta-ozta ezkutatzen dudan goragalea sortzen zait, korapiloa urdail ahoan. Sandia bezperan telebistan ikusitako filmari buruz hizketan hasten zaidanean ez diot entzuten, bere emazte sarraskituaren gorpua ikusten dut, gero, seme-alabak negarrez eta txilioka utzita –gaitz erdi ez zituela haiek ere hil–, bera leihotik jauzi egiten irudikatzen dut. Behean aparkatutako autoak bizia salbatu bazion, bizi artean gurpilaulkira kondenatu zuen, kolpearekin bizkarrezurra hautsita.

Silababakarrez erantzuten diot. Konturatu da honezkero badakidala, eta hauetako batean entzun nahi ez ditudan azalpenak emanez etorriko zait. Edo ez zait gehiago gerturatuko. Edo ez da gehiago irtengo gelatik. Edo hauetako batean lortuko du lehenean huts egindakoa burutzea. Eta, nork daki, bere emaztearen alboan hobiratuko dute.

Bere ordez beste norbait hurbilduko zait zinemaz edo literaturaz mintzatzera, beste gizaki

bat, beste gizon bat, gizatxar bat ziurrenera, aurkezpen diosal gisa kartzelan zergatik nagoen galdetuko didana.

– Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatzeagatik –erantzungo diot.

– A! bai, terrorista zara! –esango dit.

Eta nik, terroristak kartzelan sartu nautenak direla argitu eta gero eguraldi ederra dugula nabarmenduko diot.

Eta berak, eskuan dudan Yukio Mishimaren liburua aitzakiatzat hartuta, Japoniako literaturari buruzko bere zaletasuna azalduko dit, Murakamiren azkena irakurri ote dudan galdetuko dit, bukatzen duenean utziko didala proposatuko dit. Haruki ez dudala maite eta Riu ez dudala ezagutzen esatea alferrik da, ez dut horrela elkarrizketa saihestuko, berari uzteko moduko libururik ba ote dudan eskatuko dit segidan.

Oharkabean begiratzen dizkiot eskuak, buruko orbaina, azal zuria, eta hasiko naiz, nire kautan, gizona izuen gordeleku honetara ekarri duten arrazoiez gogoeta egiten, bere itxuraren araberako hautaketa egiten. Harremana eteteko

gezurretan hasiko natzaio, liburu gehien-gehienak euskaraz ditudala esanez.

Nire egoeraren eta hemen gertatu zaizkidanen berri emateko asmoz idazten hasi eta iruditzen zaidan ez ote nabilen erroak utzi eta adarretatik zintzilikatuta. Ez zakinat merezi duen ospitale honetara ekarri ninduen gertaera-katearen berri emanez hastapenetik hastea.

Huskeria batek du ni kartzela-ospitalera ekarri izanaren errua. Zer besterik da hatz bateko hezurtxo baten haustura? Kartzelako kirol-gunean kideekin boleibolean ari nintzela hautsi nuen, ikastolan jolasten genuen garaiko trebetasunik ez nuela ahaztu eta distantzia gaizki kalkulatzeagatik, eskua luzatu eta baloiak hatzaren punta kolpatu zidan. Krak.

Bi hilabete besterik igaro ez diren arren, duela mende bat gertatu zela iruditzen zaidan huskeria hura, oharkabean irensten den amu tipi bat bezala ikusten dinat orain. Kosk egin eta askatu ezin den amua.

Huskeria hori iturburu duen gertakari-katearen ondorioz hemen natza, gurpil-aulkira lotuta, hirekin komunikatzeko hitz isil hauek besterik ez ditudala.

Eta gaitz erdi. Hitzen bidez komunikatzeko gaitasun hau ere gal nezakeen-eta. Gaitz erdi, hatza apurtu nuenetik gurpil-aulkira lotuta utzi nauen istripu-katea bukatu denik ziurtatzerik ez dudanez, gertaerek orain arteko ildotik jarraitzera, erabateko isiltasuna eta inkomunikazioa baititut etorkizun.

Behin-behineko egoeran nago beraz. Komunikatzea ahalbidetzen didan neurrian, nire biziraupenaren arrazoi eta kausa ia bakar bihurtu zaidan idazteko ahalmen hau ere galtzeko arriskuan nagoela iruditzen zait batzuetan. Bat-batean eta erabat galduko dudan beldurrez jaikitzen naiz gauaren erdian, bururatu berri zaidan hitz bat, esaldi bat, pasadizo bat kaierean zirriborratzeko, nire azken hitzak bailiran, presaz, trakets, nire hil aurreko hitzak bailiran. Nire erabateko isiltasunaren aurreko hitzak bailiran. Biharko egunak zer ekarriko didan asmatu ezinik.

Baina izaeraz baikorra naizenez, badut hobera egiteko esperantza. Zoritxar-katearen azken kate-begira iritsia naizela eta gutxika berriro ere nire zangoen agintea berreskuratu eta onik ate-

rako naizen esperantza daukat. Medikuek baietz diote, eta nik sinetsi egiten diet, haietaz batere fio ez naizen arren.

Niri gertatua izugarria bada ere, arrunta da bere horretan. Zenbati ez ote zaio gertatu, niri bezala, ospitalera arazo tipi bategatik egonaldi labur bat egitera sartzea eta, osasun arazo tipi hura konpondu bitartean sortutako bestelako gaixotasun larriagoen eraginez, irten aurretik uste baino egonaldi luzeagoa egin behar izatea? Hilobirako atera ez direnean. Nork ez du entzun operazio kirurgiko batean behar ez zen giltzurruna kendu diotenaren kasua? Edo osasuntsu zuen belauna operatu diotenarena? Belaunekoa egin ordez giltzurrunekoa egin diotenarena edo alderantziz. Apendizitisik gabeko apendizitis operazioak. Ospitalean biltzen diren birus, bakterio eta mikrobioren baten erasoak larri gaixotutakoak. Aurreikusi gabeko azterketa egitera sartu eta ustekabeko tumoredun ateratakoak. Eta ospitalera joaterakoan, nori ez zaio bururatu praktikak egiten dauden medikuen esperimentuetarako akuri dela? Mediku-akatsa deitzen diote horri.

Halako baten berri izan nuen duela urtebete, ospitale honetara ekarri ninduten lehen aldietako batean. Orduan bizitakoa geroztik gertatu zaidanaren aurre-iragarpentzat daukat. Oharpena izan bazen, ez nion, tamalez, kasurik egin. Ordukoan patuari itzuri egitea lortu banuen, orain zorigaitzak estu lotuta nauka bere besoetan.

Duela urtebete pasatxo izango zunan, *Hôpital*-era, orain ingresatuta naukaten kartzela-ospitale honetara bertara otorrinoarenera kontsulta soil bat egiteko ekarri ninditenan, sudur-hezur okertuak arnastean sortzen didan eragozpena konpontzerik ba ote zegoen ikusteko.

Kartzela-ospitalea kartzelako eraikin nagusitik at dago, beste eraikin batean, 200 metro ex-kaxera. Hain distantzia laburra egiteko Gizonen *Quartier*-eko presook lau orduko joan-etorria, espedizioa, egin behar izaten dugu, ordea. Distantzia labur hori ez dugu oinez edo arrastaka egiten, furgoi batean baizik, ezantzaz dabilen ibilgailu batean.

Nolatan orduan 200 metro furgoiz egiteko lau ordu? Bada furgoira iritsi aitzin eta medikua ikusi aitzin eta kontsulta ondoren ere, gure ziegara itzuli aitzin, presozainek presookin *Itxaronziegen Jokoan* aritzea maite dutelako.

Bezperatik iragartzen badigute ospitalerako hitzordua dugula, badago bidaldia txukun prestatzeko aukera: edatekoa, jatekoa, irakurtzekoa eta idaztekoa poltsatxo batean sartu (erretzai-

leek erretzekoa *kleenex* paketean edota jantzietako tolesturetan ezkutatzen dute, erretzea debekatua baitago eta presozainek aurkitzen duten tabakoa eta su-piztekoak konfiskatzen baitituzte). Maskuria eta hesteak hustu behar dira abiatu aurretik, larrialdirik ez izateko. Kartzela hori ere bai baita: beharra dagoenean kaka edota pixa egiteko askatasunik eza.

Egun hartan goizeko zortzietan etorri zitzaizkidan bila ziegara. *Passager Hôpital*, ni alegia, prest zegoela oihu egin zuen atea ireki zidan presozainak. Eskailerak jaitsi eta dibisio bertako behe solairuko itxaronziega batean egin nuen lehen itxaronaldia beste lauzpabost bidaztirekin: 20 minutu, ordu erdi... Itxaronziegatik atera gintuzten noizbait eta, metalak detektatzeko atakatik banan-banan igaro ondoren, dibisioko kontrol-gunera iritsita kartzelako nortasun agiria erakusteko agindu ziguten. Zaindariak kaier handi batean idatzi zuen irteera ordua: 8:30.

Izapide hori burututa dibisioko hesia zabaltzen dute eta lerroan eramaten gaituzte kartzela irteerarantz. Presozaina buru, oihuka: bata bestearen atzetik lerroan zuzen ibiltzeko, eskuak

poltsikotik ateratzeko, ixteko jaka, eskuineko hormari itsatsita ibiltzeko, mantsoago ibiltzeko, azkarrago ibiltzeko... Hurrengo dibisioko elkargunean, ospitalerako hitzordua duen preso gehiago elkartzen zaizkigu. Kartzelako hiru dibisiotakoak elkartu arte.

Gure ilara tristeari begira, kondenatuen jantzi zarpail marradunak jantzita, orkatilak katez lotuta, presozainek zartailua airean klaskatuz Cayenne-ko Île du Diable-ra bidean eramaten zituzten haien oinordeko ikusi nuen neure burua.

1852an zabaldu zuten Deabruaren Irlako zigor eremua. Atlantiko itsasoko irla arrokatsu hori Guyana Frantsesean kokatutako zigor eremu zabalago baten zati zen. Royale eta Saint-Joseph irlekin batera, Îles du Diable osatzen zuten. Gero, iragan izugarria ezkutatu nahianedo (torturaren orbanez zikindutako ziegetako hormak pintura berriz estaltzen diren bezalatsu), Îles du Salut izenez bataiatu zituzten giza krudelkeriaren agertoki horiek. Hara eramaten zituzten Frantziako jende zintzoentzat arriskutsu jotzen zituztenak, herri xehearen zentzagarri, gatibu lanetan hil arte bizitzera: legea behin eta birritan

hausten zituztenak, preso politiko eta kriminalak eta kriminal oso arriskutsuak. Klima ere oso kaltegarria zen osasunarentzat, eta gaizki elikatutako presoen artean hilkortasun tasa oso handia zen, Guyanako zigor eremurako deportazioa heriotza-zigorraren mozorro ahul besterik ez bihurtzeraino.

Oso gutxik lortu zuen handik ihes egitea.

1885etik aurrera zortzi urtetik gorako zigorra jasotzen zuten kriminalak soilik deportatzen zituztela irakurtzen dudanean, ohartzen naiz gaur egun Deabruen Irla oraindik ere zabalik balute, euskal preso politiko gehienok harako bidaia ziurtatua genukeela. Hori bai, itsas bidaia luze eta gogorra jasanarazi ordez, Air Franceko abioietan eramango gintuzkete, turista zurbilen artean. Paristik urrun, hexagonoan barreiatuta ginduzkatenean instrukzio epailearenera eraman izan gintuztenean bezala, hegazkin-zerbitzari adeitsuen irribarreen hartzaile, beste bidaiari guztiak bezala, altzairuzko kartzela hegalarian denok berdin, *égalité*, preso, bidaztiak eta gu.

Emile Zolak famatu zuen Deabruaren Irla, Alfred Dreyfus kapitaina 1894an hara kondenatu zutenean. Alabaina, guk Zola eta bere *Salatzen dut...* ausarta ezagutzen ditugu, gutxiago Dreyfus eta gutxiago oraindik Deabruaren Irla gizajalea.

1938an, Bigarren Mundu Gerraren bezperan igorri zuen gobernuak azken *forçat* taldea bertara. Eta 1946an, gerra amaitu biharamunean zigor kolonia itxi zutenean, askatutako preso batzuek hantxe gelditzea erabaki zuten, Frantziara, infernura kondenatu zituen jende prestuaren artera itzultzeko ahalik edota motiborik gabe.

Gaua dun. Bero hezea egiten din. Eltxoak heldu nain, ez dinat zirkinik egiten ordea. Sabela bete bitartean zurrupatzen uzten zionat. Zurrungak entzuten ditinat. Haizeak palmondoak astintzen ditin. Martin ere ez dun mugitzen, baina bazakinat esna dagoela. Bihar dinagu egun handia. Zirt edo zart. Ez dinagu egun bat gehiago egingo zartailuaren pean, eguzkiaren pean, esku ahurra mailutzarraren eskulekuan gogortzen, zartatzen, harri puskak apurtuz.

Uzkian nabari dut gure *plana*. Zilindro metalikoa gordetzeko nire txanda da. Azken gaua. Biharkoan uzkitik atera, nola hala garbitu, deskiribildu eta barruan gordetzen ditugun altxorrak aterako ditut. Askatasunerako txartela: hankak ohera lotzen dizkiguten kateak zerratzeko tresnatxoa, Gurutze Gorriaren behatze ikustaldiarekin etortzea lortu zuen kazetari hark isilpean eman zidan xoxa, billete parea, eta Odileren etxeko helbidea.

Ur beroko bainua etorri zait bat-batean burura. Martini utziko diot lehen txanda. Berak niri utzi nahiko dit. Ni gabe ez zela aterako esango

dit. Eta nik, txantxa doinuz, bera gabe ez nukeela zoriona ezagutuko erantzungo diot.

Odile azalduko zaigu bainugelako atean errieta egitera. Askatasuna ala zoriona zein den garrantzitsuagoa eztabaidatzeko astia izango dugula gero ere, prestatzen ari zaigun otordu goxoaren aurrean; edota ondoren, etxaldeko atariko zumitzezko besaulkietan jarrita, kotoizko arropa arin zuriak soinean whiskia edaten ari garen bitartean, Karibeko gauaren isiltasunean, baina hori baino lehen *bagne*ko urteetan azalean irarri zaigun zarakarra eta ugerra kentzeko ordua dela, ura hoztu egingo dela eta berak ez duela ur gehiago berotuko, nahita ez bigarrenak lehenaren zikinkerian egin beharko duela murgil, eta ura epeltzen bada, guretzat kalte.

Zaplaztekoa entzun dut. Martinek harrapatu du eltxoa. Teknika paregabea du. Nik gutxitan lortzen dut eltxoa akabatzeko une hori ondo hautatzea. Azkarregi abiatzen naiz eta zomorroak ohartuta alde egiten du. Edo beranduegi. Bietan alferrikako zaplaztekoa ematen diot neure buruari. Ez dakit zerk egiten didan min handiagoa, zaplaztekoak ala zigorkideen erdeinuak.

Horregatik uzten diot eltxoari zurrupa dezan bapo egin arte.

Martinen izaerak egiten du eltxo-ehiztari ona nire ustez. Bihozbera da. Eltxoari zurrupatutako odol dosiaz gozatzen uzten diola iruditzen zait. Sentitzen duela eltxoaren betekada, zoriona. Eltxoak ez balira, bazkalosteko korroskada bota zain egoten dela esango nuke. Martinen odola zurrupatzen duten eltxoak alferrik hilko ez balira bezala. Dagokeen beste mundu batera bederen zorion poxi batekin igorri nahi balitu bezala.

Eskuineko eskua mugitu dut Martinen galtzaren oihal latza ezarian ukitzeko. Iratzarrita dago bera ere. Ezin loak hartu gaude biok. Buruz gora, lastairarik gabeko ohantze ditugun oholetan etzanda, beste guztiek bezala, katea orkatiletara lotuta. Eta katea, gelaren luzeran alderik alde ohantzearen oinaldean kokatutako burdina barrari lotuta dago. Ezinezkoa da gorputza alde batera edo bestera edo ahuspez lo egitea.

Ez dugu atseden aski hartzen gauez. Eta egunez lan bortxatuetan xehatu egiten gaituzte. Jaten dugun ore susmagarriak nire ustez on

baino kalte egiten digu. Elikatu beharra dago ordea.

Hanka mugitu du. Eskuak bularrean bilduta ditu beti bezala. Isilik gaude biok. Goizean eguzki galdatan, zaindaria urruntzen zen aldiro harilkatutako elkarrizketa izango du berak ere gogoan, agian.

– Lortzen badugu. Zer?

Mailutzarrarekin jo diot bizpahiru aldiz, gogor, harriari, zaindaria aski hurbil sentitu dudanean. Dardara egin dute nire gihar ahulduek. Hezur muinetaraino sentitu dut minaren ziztada.

Martin harri kozkorrak biltzen hasi da, zumitzezko saskian banan-banan sartuz zaindariaren begiradapean. Kapela kolonialez estaltzen du burua sasikumeak, presook oihalezko bonet zarpail bat baino ez dugu, batzuek hori ere ez, zapi batez babesten dute kaskezurra, hona ekarri gaituen justiziak baino gupida gutxiago duen eguzkitik.

Aski urrundu denean erantzun dit:

– Ez dakit. Herrira. Agian.

Izerdia xukatzeko behar baino imintzio gehiago egiten ari naiz. Zalduna dugu harrobiaren gai-

naldean guri beha. Noizean behin fusilarekin destatzen gaitu. Bizkar ematen diot eta nire itzalpean dut Martin.

– Pixka batez. Inguruan. Hobe.

– Bai. Agian.

– Nik ere. Herrirako gogoa. Sekulakoa.

– Alfer alaenak!

Ohiko elkarrizketa mailukatuan aritu bagara ere, gehiegi luzatu gara nonbait.

Zartailuaren zartada, beroa bitan erdibituz. «Gugandik hurbilago jo balu haize fresko pixka bat egingo liguke», pentsatuko zuen Martinek.

Eta jarraitu dugu lanean, mailutzarraren kolpez, kaioen karkailez, presozainen zaunkez, zomorroen burrunbaz, mukuru betetako zumitzezko saskien garraioak aterarazten dizkigun aienez eta askatasun egarriak gure garunean egiten duen oihartzuna entzungo ote den beldurrez, noizean behin txistuka jotzen dugun aire tristeak hautsitako isiltasun galdan.

Kateak apurtzea izango da errazena. Zaratarik egin gabe nola egingo dugun ezin dut asmatu. Martinek baietz dio, berak badakiela nola egin.

Aldiz, denboraz eskas ibiliko garela dio berak. Denbora ez dela arazo izango diotsat nik. Bion hanka-trabak askatzeko adina izango dugula.

Nire katearekin hasteko esango dit noski. Herenegun gaiari heldu nahi izan zionean ez nion utzi. Ezagutzen dut. Ez al da bada hori argi dagoena, zerbait argi badago? Berak du zigorrik luzeena, berea zerratuko dugu aurrena. Badakit zer erantzungo didan:

– Baina hik dakik nondik egin behar dugun must. Eta hire laguntza gabe ni ez nauk kostara iritsiko. Beraz, hi askatu ezean alferrik ibiliko nauk ni, zakatzik gabeko arrain, *bagne* inguruko oihanetan hegalik gabeko txori, zakurren ehizaki erraz. Eta akabo, erotuko nauk. Ez diat berriro *putzuko* egonaldia jasango. Nahiago laburtuko banindute.

Badator zaintze txanda. Esku-argiaren lorratza nabari dezaket begiak ireki gabe korridoreetan, txabola batetik bestera. Eztulak, zurrungak, kate zaratak. Iratzarri arren inork ez du protesta egingo. Okerrago litzateke, biharamunean, marmartiak zigorkideengandik jasoko bailuke jipoia. Merezitakoa zigortuon artean banatzen dute

zaindariek. Horrek bederen amorrua piztia txar bat bezala bularrean ez gordetzen laguntzen die. Martin, Dieudonne eta hirurok ez gara jipoi emate zale.

Dieudonne ez da etorriko gurekin. Albertengan, eta oro har kazetariengan, ez du oraindik konfiantza galdu. Justizian sinesten du. Nik ulertzen diot, frantsesa baita eta bere erkideek egin diote hau. *Liberté, Égalité, Fraternité*. Sinetsi beharra du. Guk ordea badakigu etsaiarentzako zuzenbidea aplikatuta ekarri gintuztela hona. Ez dela justiziaren akats bat. Batzuentzat akatsa guri behar zenean buruan tiroa jo ez izana bada ere.

Zenbat urte ote zeramatzan Xaharrak Deabruarenean? Zaindari zaharrenak ere ez zekien. Bere izena fitxategian bilatzen hasi eta ez omen zuten aurkitu. Ez zuten askatu haatik. Xaharra askatzeko erabakia hartzera ausartzen zenik ez omen zegoelako.

Eta Xaharra herio eske. Gillotina gordetzen den gelako ate aurrean pasatu zituen azken egunak. Nolako oihuak bota zituen:

– Laburtu nazazue! Laburtu nazazue!

Lanerako ezdeus, gupidaz edo bakean uzten zuten zaindariek. Noizean behin zaindari hasiberriren batek ostikada bat ematen zion handik altxa zedin aginduz. Xaharra ez zen mugitzen. Zakur leialak nagusiaren altxorra nola, hala zaintzen zuen Xaharrak gillotinaren gela.

Zainak zabalduta aurkitu zuten. Odolustuta.

Niri ez zait iruditzen berak bere buruari egindakoa izan zenik. Norbaitek lagundu ziolakoan nago, zaindarien onespenarekin. Arazo bat gutxiago.

Martinek galdegiten dit ea nik lagunduko niokeen. Ezetz erantzuten diot. Gaizki ulertu diodala, Xaharrari ez, berari baizik. Ea ihesaldiak huts eginez gero, *putzutik* bizirik aterako bagina, ea zainak mozten lagunduko niokeen. Antzarak ferratzera bidali dut. Barre egin du. Barre egiten dit? Ez dakit txantxetan ari den ala ni frogatu nahian dabilen.

– Ez diagu hutsik egingo!

Zalantzak zalantza, badakit nirekin fio dela. Niganako konfiantza horrek ematen dit indarra.

Iragan ez hain urrun haren ordezko mozorrotua baino ez dun gaur egunean indarrean dagoen kartzela-sistema. Orain kartzelak espanturik gabe betetzen ditin hilkutxak. Nahi gabe bezala. Ezinbestekoa den propaganda doi-doiarekin.

Ospitalerako bidean goazela, kartzela-irteera ingurura iristean, berriro ere metalak detektatzen dituen segurtasun ataka batetik igaro behar da. Ondoren, berriro ere itxaronziega batean sartzen gaituzte. Itxaronziega luzeak dira, sabai altukoak; burdin barraz eta sarez itxitako leihoa goialdean, hiruzpalau metrotara; hormaren alde banatan eta alderik alde eserleku luzea, zikina. Zorua ere ugerra dago, hamarkadatako karkaxa idortuek, orban identifikatu ezinek, garbitu ezin den zarakar lodia osatua dute izkinetan.

Atea itxi ahala, itxaronziega horretan sartutako kabalak norako diren idazten du *giltzariak* kanpoaldean eskegitako arbeltxoan. Gurean HP (*Hôpital Pénitentiaire,* alegia) jarriko zuen.

Sarrerako itxaronziega guztiak dira antzekoak. Hormak estaltzen dituzten graffitiak dituzte bereizgarri bakar. Graffitiak irakurtzeko ohitura

dut. Denbora pasa, eta burkideren baten berri izateko esperantza izaten dudalako ere. Preso arrunten sineskeria da norberak bere izena horman idatziz gero berriro ere itzuliko dela kartzelara. Horregatik haiek egindako idazkun gehienak salatarien berri emateko, presozainak, epaileak eta poliziak laidotzeko eta beren jatorria aldarrikatzeko izaten dira. Frantziako departamentuaren zenbakia izan ohi da beren nortasuna azpimarratzeko zeinua (93, 94, 78...), beste batzuek beren herria (Kolonbia, Brasil, Kosovo, Turkia...) edo gure antolakundea erabiltzen dugun bezala (ETA, FLNC, PKK, Tamil Eelam...). Aizkora eta sugeari esker erakundeko kideen mezuak aise identifikatzen dira: datak, orduak, izenak. Ez gara nonbait berriro ere horma zikin hauen artera ekarriko gaituzten beldur; aitzitik, gure patua izango da gure herria askatzea lortzen ez dugun artean.

Beti aldean neraman boligrafoarekin horman idazteko ohitura nuen nik ere, izena, eguna, nora ninderamaten, nondik nindekarten. Naufragoaren mezua itsasora. «Kideren batek egunen batean irakurriko du, eta ez da hain bakarrik senti-

tuko», pentsatzen nuen idaztean. Edota «nik irakurriko dut, eta idazkunaren higatzean denboraren zimurrak neurtuko ditut».

Egun hartan hogeitik gora pertsona geunden pilatuta, hogeita lau zehazki (bakartuta izan ninduten garaitik itxaronziega eta etxarteetan biltzen ginen jendea zenbatzeko ohitura hartu bainuen). Mukuru zegoen itxaronziega, beraz.

Ordu laurden pasa zen. Isilik gehienak. Elkarrizketan bizpahiru.

Ordu erdi pasatu zen. Albokoak zein gaixotasun ote kezkatzen hasteko aski denbora. Ospitalera bidean gindoazenez denok izango genuen eta gaixo itxura hurkoarentzat.

Izkina batean burumakur zegoen hark zerbait larria behar zuen izan nire irudiko, horixka hautematen bainuen berez beltza zuen azala. Eztulka hasi zen beste bat, guztion kezka biderkatuz. Arnasteak berak ere beldur ematen du halako lekuetan.

Interdit Fumer jartzen du itxaronziegetako hormako idazkunak, frantsesa ulertzen ez dutenentzat pintatutako nazioarteko zeinuaren azpian. Itxaronziegetan ordea, isunei eta gaixota-

sunei beldurrik gabe, zigarretak ezpainetik ezpainera ibiltzen dira. Jende txiroa da gehiena, ez dute izaten tabakoa erosteko adina. Horregatik biriketako antsia asetzeko horrelako jendarteak baliatu behar dituzte, berdin adiskidearenetik zein ezezagunarenetik tiratzeko, zigarreta zigarrokin bihurtu aurreko azken xurgaden eskeko.

Ausartak dira. Ni ez.

Ur botila poltsatik atera eta tragoxka kendu nionean, gaitz kutsakorra izateko itxura zuen gizaseme bat hurbildu zitzaidan, berari ere emateko eskatzera. Hiruzpalau eguneko bizarra zuen, ezpain zartatuak, listu lehorra aho ertzetan, begirada itzalia. Jantzi zarpailen artetik, kartzelak behartsuei doan ematen dizkien oinetako marroi argiak ziren garbi itxura zuten bakarrak.

Ez zuela botilaren ahorik ukituko gaztigatu zidan nire kezka asmatuz. Egarri denari edaten eman. Omen. Gezurra esan nion:

– Gaixotasun kutsakorra dut.

– Berdin zait.

Suizidaz beterik dago mundua. Edo gezurti txarra naiz. Hala ere, gezurrean tematu nintzen,

bere hobe beharrez ari nintzela konbentzitu nahian.

Edaten eman egarri denari, bai. Igarriko zidaten denek gezurretan ari nintzela. Baina ez zidan inork kargu hartu, ez zen inor haren alde jarri, ez zidan inork jokabidea gaitzetsi. Pilulez bekainetaraino galkatua zegoen gizagaixoa besterik ez zena iraindu eta pikutara bidali ez nuelako («*clochard* zikina!, *cachetoné* purtzila!») aratzegia nintzela iritziko zionik ere egongo zen agian.

Bat-batean ireki zuen atea *giltzariak*, egarritua nigandik uxatuz.

– Les gars! Arrêtez de fumer! –zaunka egin zigun.

Erretzaileek eskola-haurren moduan zigarretak ezkutatzen ziharduten bitartean, kexatu egin zitzaizkion beste batzuk, denbora luze zihoalaeta. Tropela lasaitze aldera, laineza hartzen duten haurrei hitz egiten zaien doinuarekin, bi minuturen buruan abiatuko ginela esan zigun presozainak.

Sinetsiko zioten agian kartzelara iritsi berriek, alegia kartzelara sartu orduko egin ohi duten biriketako erradiografia egitera zerama-

tzatenek. Bi minutu. Zailduok badakigu kartzelan *bi minutu* esamolde bat besterik ez dela, ordu erdi gehiago pasa daitekeela, aise, inor etorri aurretik.

Ordu laurden baten buruan, *giltzariak* hurrena atea ireki zuenean, itxaronziega kirastuan pilatuta geundenok ospitalean hitzordua genuen berak ginela berresteko zerrenda zekarren.

Batzuetan kabalak baikinen zenbatzen gaituzte, behin eta berriz, atal batetik ateratzerakoan eta eremu berri batera sartzerakoan. Ordukoan, gure izena entzutean, eskua altxa eta gure kartzela-zenbakia ozen esateko agindu zigun presozainak. Ondoan nuen agureak, purrustaka, etengabeko zenbaki eskatze eta agiri erakuste gabe, nazien garaian bezala zenbakia besaurreko azalean irarria eramatea ez ote zen praktikoagoa izango murmurikatu zuen, presozainak ez entzuteko kontu eginez, zer gerta ere.

Eskatu ahala txintxo-txintxo eman zuten denek beren preso-zenbakia. Nigana iristean aldiz, kartzela-zenbakia ordez ziegakoa eman niezaiola eskatu zidan, denon harridurarako.

Esan nion ziega-zenbakia eta baita *prisonnier politique basque* gehitu ere.

Irri egin zuen. Ez zela beharrezkoa, esan gabe ere asmatua zuela euskal preso politikoa nintzela.

«Bai zera asmatu», pentsatu nuen, ohartaraziko zioten, edota zerrendan, nire izenaren ondoan, oharren bat idatzita izango zuen, *DPS* zioena, *Détenu Particulièrement Signalé*, Bereziki Zaindu beharreko Presoa, alegia, edota, besterik gabe, *basque*.

Espantuz begiratu ninduten itxarokide batzuek. Gaixotasun bereziren bat nuela pentsatuko ote zuten?

Nik nire grazia eman nuen bezalatsu beste denak nor bere gaixotasuna ozen aldarrikatzen irudikatu nituen:

– Euskal preso politikoa!

– Tuberkulosia!

– Hiesa!

– Minbizia!

– Bizkarreko mina!

Eta medikuek senda ez zezaketen nire minen diagnostiko azkar bat egin ninan, kalearen eta

nire artean eta ni eta hire artean zeuden ate eta hesiak banan-banan buruz zenbatzen nitinan bitartean.

Abiatu baino pixka bat lehenago ekarri zuten gurpil-aulkiduna. Sartu ahala isildu ziren hiztunak. Uhalekin aulkira lotua zeraman ezkerreko hanka. Lepoko bati esker zuen burua zut.

Batek ezagutu eta hurbildu egin zitzaion. Aulkikoa isilik. Ezagunak, atea itxita zegoen arren, edo horrexegatik agian, errieta egin zien presozainei.

– Zuek utzi duzue nire laguna horrela! Zuek zarete arduradunak!

Aulkiari lotutakoari mintzatu zitzaion ondoren, besteok entzuteko moduan.

– Arranopola! Hi hintzen gizon puska eta begira nola utzi hauten! Gogoratzen al haiz gimnasioaz? Saio ederrak egindakoak gaituk, gero! Jarri al duk salaketa?

Jartzeko asmoa zuela. Bai, arrazoia emango lioketela. Baina segur aski ere askatasuna emango ziotela, salaketa ez jartzearen truke.

Mutu geunden denok, adi. Errukia eta amorrua sentitu nituen. Beldur pixka bat ere bai. Ez

bainekien zer gertatu zitzaion. Nolako jipoia eman ote zioten horrela uzteko? Zer gertatu zen zehatz jakin gabe ere bolo-bolo zabalduko zen zurrumurrua kartzelako korridoreetan, ziegaz ziega, matoiek preso bat elbarri utzi zutela emandako jipoiaren ondorioz.

Inork galderarik egiteko ausardia aski bildu baino lehen ireki zen atea berriro eta abiatu ginen, lerro-lerro, kartzela-ospitalera eramango gintuen furgoitxorantz.

Furgoian hamabirentzako lekua zegoen arren, estu-estu gindoazen errail berezien bidez ibilgailura igo zuten gurpil-aulkikoak bizpahiruren lekua hartu zuelako.

Kartzelatuak espazio itxietan biltzen diren bakoitzean nagusitzen den usaina hedatu zen segituan, giza usain sarkorra, binaka edo hirunaka eguneko 20 ordu ziega barruan igarotzen dutenen eta bi egunean behin baino dutxatu ezin daitezkeenen usain mina. Ar usain erregosia, guri zegokigunez.

Abiatu ginen bada ar kirasdun furgoian, atera ginen kartzelatik, polizi autoa aurrean eta polizi autoa atzean zaindari. 200 metro besterik ez

dira, bi minutu exkaxeko kontua, ateak ireki eta itxi, atera, bidea egin, berriro ateak ireki eta itxi eta barrura: askatasuna ikusi, arnastu, jende arrunta kalean, batetik bestera, sakelako telefonoetatik hizketan, bidera atera aurretik albo bietara begiratzeko aginduz haurrei. Guretzat jada ez den mundua.

Hain hurbil. Kartzelatu berritan, isolamenduko modulutik erizaindegira iristeko besterik ez, hamahiru ate zenbatu nituen. Furgoitik ateratzeko, aldiz, furgoiaren kaiolako atea eta furgoiarena berarena besterik ez nituzke gainditu beharko.

Hain urrun. Ate biak gaindituta ere.

Itxi ziren sarrerako ate bikoitzak, bageunden kartzela-ospitalean. Banan-banan jaitsarazi gintuzten furgoitik, ospitaleko harrera-lekuko leihatilako presozainari agiria erakutsi ondoren, beste presozain baten atzetik ospitaleko pasabideetan barrena itxarongela bateraino eramateko.

Eguneko hirugarren itxaron lekua. Guztira bi ordu ziegatik atera eta ospitaleko itxarongelaraino iristeko.

Txukunagoak dira Ospitaleko itxarongelak. Leihoetatik auzoko eraikinak ikusten dira, eta eguna eguzkitsua bada, ziegan ez bezala, eguzkia sarearen oztopo gabe sartzen da barrura.

Leihotik hurbil eseri nintzen. Belaunen gainean zabaldu nuen liburua argitu zidan eguzkiak: «*Errepidea*». Ez nintzen liburuan kontzentratzeko gai. Hizketan ari ziren *Aulkira-iltzatua* eta bere kidea. Sarrera-atetik hurbil geratu zirenez, ez nezakeen aditu zertaz ziharduten. *Aulkira-iltzatua* bere kide aurkitu berriari gertatuak kontatzen ariko zitzaion. Jipoi galanta emango zioten *giltzariek* gizona horrela uzteko, bai!, nioen nirekiko.

Iritsi zitzaidan noizbait otorrinoarenerako txanda. Metalezko tresna batzuen bidez arnasbideak zabaldu ondoren, sudur-zuloak ispilutxo batekin ondo behatu zizkidan gizonak. Tarteka arnas egiteko agintzen zidan. Sudur-hezurra zuzentzeko operazioa egin ala ez, hori zen erabaki beharrekoa. Mediku jaunak zioen ez zela ezinbesteko operazioa, beste ezer baino estetika kontua zela, eginez gero hobeto arnastuko nu-

keela, dudarik gabe, nahiz eta ez lidakeen gaueko loa eragozten zidan apnea arinduko.

Ospitaleak maite ez baditut, zer esan operazioez? Ahotsean kezka nabarmen nuela galdetu nion ea nolako operazioa izango zen.

Umoretsu erantzun zidan:

– Bada operazio horren ondorioz bizia galtzen ez duenik!

Eta ozen barre egin zuen medikuak bere ateraldiaren apaingarri:

– Ah!, ah!, ah!

– Ah, ah, ah... –egin zuen kontsultan gurekin zegoen erizainak ere.

Eta nik, bestela ezin:

– Ha, ha, ha... –egin nuen, urduri.

Begietan kezka ikusiko zidan edota bere txantxa ondo ulertu ez nuela irudituko zitzaion, segituan saiatu baitzen ni lasaitzen: bezperan, goizez operatu zuela gazte bat, eta arratsalderako etxean zegoela, operazio erraz-erraza zela, lasai egoteko alde horretatik. Eta berriro ere egin zuen barre:

– Ah!, ah!, ah!

«Tira, horrela izatekotan, ez dagoke gaizki», pentsatu nuen bere barreari jaramon egin gabe.

– Baina zure kasuan –eten zidan pentsamendua, medikuek hain ongi ikasia duten belusezko doinu lasaigarriz mintzatuz–, konplikazioren bat gertatuz gero kartzelatik hona larrialdian ekartzea erraza ez denez, ospitalean bertan egin beharko zenuke astebete.

«Hara! Beraz *konplikaziorik* gerta daiteke», pentsatu nuen belusezko doinuaren xarmaren segadan erori gabe.

Otorrinoa aitzurrean aritua zen ordea, eta nire kezkaren erroak luzatzen utzi gabe, argibide lasaigarriak eman zizkidan jarraian:

– Irekidura bat egingo dizugu sudur azpian.

Bere bisturiak nire azala non urratuko zuen erakutsi zidan azkazal puntarekin.

– Hor ez dago ez nerbio ez puntu arriskutsurik –jarraitu zuen–. Egin beharrekoa egin eta berriro josiko dugu.

Azalpenak amaitutakoan, azkazala sudur azpitik kendu zuenerako asmatua nuen erretzailea zela.

– Gero astebete pasa beharko duzu kotoia sudurrean daukazula. Hori da dena. Eragozpen handiena? Astebetez ezingo dituzula mukiak kendu! Hara! Ah!, ah!, ah!

Erraza zirudien, bai, bere azalpenek konbentzitu ninduten. Baina adostasuna emateko zorian nengoenean harritu ninduen, lasai hausnartzeko aholkua eman baitzidan. Hartzeko denbora, hamabost egun barru berriro ere deituko ninduela eta orduan emango niola azken erantzuna.

– Ados, pentsatuko dut –esan nion gogaituta, zer hausnartu asko ez zegoela iruditu baitzitzaidan–. Galdetuko diot emazteari ere, ea zer irizten dion –gehitu nuen txantxetan, adarra jotzen.

– Ah, ah, ah, emakumeek erabakitzen dute beti, e? –barre egin zuen medikuak, gizonki, begia kliskatzen zidan artean.

– Ah, ah, ah –barre behartua egin zuen erizainak ere.

Nik ez nuen barrerik egin aldi hartan:

– Soilik zer iritzi duen galdetuko diot; erabakia nik hartuko dut –erantzun nion zakar, medikuaz gain matxista nazkagarria izango zela iritziz.

Kontsulta bukatutzat eman, hurrengo hitzordua finkatu eta itxarongelara itzuli nintzen. Gutako bakoitzari zegokion espezialista ikusi arte zain egon behar genuen. Ordurako medikuarekin egonak zirenetako batzuk hiztunago zeuden, beste batzuk goibelago, medikuaren pronostikoaren arabera, pentsatu nuen.

Ireki nuen berriro «*Errepidea*», baina ez nuen lerro bakar bat irakurtzea lortu. Boligrafoa atera eta burutazio batzuk idatzi nituen liburuaren aurkezpen orrialdean. Leihotik begiratu nuen, sagarra jan nuen, ura edan nuen, eta sudur operazioa egin ez egin gogoeta egin nuen: aspaldian egin beharreko operazioa nuen, haurra nintzela medikuak egin beharrekoa zela aholkatu baitzion amari; gainera, gaueko apneak zertxobait arintzeaz gain zurrungen kontua ere hobetuko zidan, zurrungekin azkenaldian ohekiderik ernegatzen ez nuen arren...

Arnasketa froga batzuk egin nituen disimuluan, hatz batez sudur-zulo bat itxi eta bestetik arnastuz txandaka. Eskuinekotik ez zitzaidan ia airerik sartzen. Ez nuen inorekin kontsultatu beharrik, argi zegoen operazioak on egingo zidala,

egin egingo nuela esango nion hamabost egunen buruan deitzen zidanean.

Aulkira-iltzatua izan zen medikuarenetik pasatzen azkena.

– Zer moduz hago? –galdetu zion lagunak.

Nahiko patetikoak eta faltsuak iruditu zitzaizkidan lagunaren erruki agerpenei ihes egitekoedo, entzungor egin eta egoera tamalgarri horretan utzi zuteneko gertakari posibleak irudikatzen hasi nintzen. Bururatu zitzaizkidan aukeren artean hau zen gehien atsegin nuena: *ERISek* (protestaldien aurkako presozain talde berezietakoak) emandako kolpeen ondorioz utzi zutela elbarri. Ez zen harritzekoa izango, *Txerrixen* jantziak ez du gorputz atal bakar bat bera ere babes gabe uzten, zinez beldurgarriak dira, gimnasioan orduak ematen dituzten presozain bolondresek osatutako taldea da, eta mozorropean aritzen diren gorputz errepresibo guztiek bezala beren herra eskuzabal eskaintzen dute.

Bukatu ziren noizbait kontsultak. Tropelean jaitsarazi gintuzten. *Aulkira-iltzatua*, burua dingili-dangala, igogailuraino eraman zuten artean,

besteok, gure zangoez baliatzeaz zoriontsu, eskaileretan behera abiatu ginen.

Behe solairuko beste itxaronziega batean itxi gintuzten berriro. Ospitaleko kanpoko atea ikusten genuenez bertatik, kartzelara eramango gintuen furgoiaren etorrera zelatatzen zuten bitartean kezkati zeuden presoak:

– Iritsiko ote gara *bazka-nazka* banatu aurretik ala gaur ere hotz jan beharko dugu?

Nik ere atea zelatatu nahi nuen eta oharkabean *Aulkira-iltzatuaren* aurrean jarri nintzen, hari ikusmira oztopatuz.

Zakar agindu zidan paretik kentzeko, ez niola sarrera-atea ikusten uzten, arraioa.

Denak isildu ziren, guri begira. Batez ere niri begira, nola erreakzionatuko nuen aiduru.

Barkatzeko eskatu eta baztertu egin nintzen.

Erabili zuen zakartasuna bere egoerak eragindakoa zela iritzita, giroa samurtzeko asmoz mintzatu nintzaion:

– Zer daukazu, paralizatua zaude?

Ez zidan kargu hartu, zorionez. Hitz egiteko ere ez zebilen aise, sudurrak itxita zituen eta lodi balu bezala zerabilen mihia aho zuloan.

– Edzkerreko handka edz dut badtedre dsendtidtzen, edta ldepodko hau gadbe budua budlar gaindera edrordtzen dzait.

– Zer gertatu zaizu?

– Dtondtakedria bat! Ardnas hardtzeko adradzoak nidtuen. Dudur-hedzudrreko gadrrandtzi gadbeko opedradzioa edgin dzidadten. Anedstedsiadrekin kadle egind dzuten, edta hondela udtzi naudte, medidku dsadsikudmeek!

Hamabost egun geroagoko otorrinoaren kontsultara joateari uko egin nion, noski. Sudur-hezurra lehen bezain okerra dut, lehen bezain aire gutxi sartzen zait eskuin aldeko sudur-zulotik, gauetan inork esaten ez didan arren inor ernegatzen ez duen zurrunga egiten jarraitzen dudala uste dut eta apnea ez zait konpondu.

Ez nuen sudur-operazio *erraz-erraz* batek elbarritu eta betirako gurpil-aulkira lotuta gelditzeko arriskurik hartu. Etorkizunak bazuen niretzat beste gurpil-aulki bat prest.

Ospitalearen zuritasuna hilerrien belztasunaren aurrekari begitantzen zaidan.

Ez naun sentipen hori duen bakarra. Hemengo nire lagun berriekin izaten ditudan hitz-aspertuetan maiz ateratzen den irudia dun hori. Ez ote diren ospitaleko ohe goxoetako izara garbiak gure zain dauden katabutetako hil-oihalen aurrekari.

– Zuria eta beltza. Nork ez daki ordea bizitzan ez dela dena zuri edo dena beltz? Zuritik beltzera badela ere grisa. Izan ere, zer da besterik bizitza, ez bada zuritik beltzerako ibilbide grisa baino? Grisaren tonalitate guztiekin, baina grisa, ezta *Michel*?

Horrelakoak errepikatzea maite zuen Dimitrik errotarrian zebilela, buruari alde batera eta bestera eraginez, hain berea zuen irribarre mikatzarekin, ezpainetan ohiko *garretzi* mehea itzaltzear zuela.

Ni ez naiz iritzi berekoa, noski. Bizitzari kolorerik eman beharko banio, pintorearen paletakoak eskas nituzke. Gaur egungo teknologia aurreratuei esker lortzen diren konbinaketak beha-

rrezko nituzke bizitza koloretan nolakoa ikusten dudan adierazteko.

Hori esaten diedanean, erotuta banengo bezala begiratzen didate tertuliakideek. Nagoen egoeran egonda eta etsaiak prestatua didan etorkizun ilunarekin bizitza koloretsu nola ikus dezakedan harrigarri baino ulergaitz zaie.

– Pilula gehiegi irentsi al duk bart ere? –galdetzen dit *Erregeak*, apo-barre ozenez amaituz esaldia.

Inguruan dituen Jopu, *Oxygène*, eta *Beemeube* bezalako uzki-milikariek irri-karkaila lausengariez onesten dute gure artean nagusitzat duten horren azken ateraldi txatxua. Ohiko ateraldi txatxua. Badaki ernegatzen nauela. Bost axola zaio. Ni baino gehiago dela erakutsi nahi izaten die bere menpekoei.

Ez du onartu nahi itsuen erreinu honetan begi-bakarra ni naizela. Negar-malkoz gainezka egiten duen erreinu hau norbaitek bere kabuz utziko badu, huraxe ni naizela atzentzen du, nahita. Orain denok egoera berdinean bagaude ere, nirea behin-behinekoa dela ziur bainago. Nola edo hala honetatik onik aterako naizelako

ziurtasun osoa daukat. Horretan sinesten dut, sinetsi nahi dut. Ez nagoela, beraiek bezala, betirako gurpil-aulkira lotuta; ez nagoela betirako eserita. Nire gorputz herbalak nire betiko gogo grinatsua ezkutatu besterik ez duela egiten. Izan nintzena izaten jarraitzen dudala, egunaren orduei erreparatu gabe borrokaren bide anitzetan ari zen huraxe bera naizela egun ere. Nire begietako distira itzaltzen duen gandua zaindariak engainatzeko mozorroa baino ez dela.

Gelako bakardadean, hain ondo ezagutzera iritsi naizen nire aurpegia ispiluan begiratzen dudanean, begietan ikusten dudan txinpartak iraganeko abordajeetako distira bizi-bizi gordetzen du oraindik. Ospitale honetara etorri baino lehen ere herioaren atea ikusitakoak dira. Zurrunbiloan hondoratzen ari zen itsasontziaren lemari, halabeharrez tinko eutsi zioten eskuak erakusten dizkiot ispiluari. Ezpatarik ezean luma zorroztea beste zereginik ez duten eskuez estaltzen dut aurpegia. Ixten ditut begiak. Barrura begiratzen dut. Bai, hor dago, bizi-bizi. Hor nago, sutautsa bezala edozein unetan pizteko prest. Osorik

dago irabazteko grina, gure altxorra, gure sekretua.

Ez diet deus erantzuten. Zertarako? Ez lidakete ulertuko-eta. Hortzak estutzen ditut eta irri egiten diet ezpain barruan. Berdin zaizkit *Erregearen* eta bere gorte infernukoaren eztenkadak, badakit asperrak eraginda botatzen dituztela esaten dituztenak, saiatzen direla sutauts bustiarekin etxarte orduarekin batera nahitaez bukatuko den sesiotxoa pizten.

Badakit pilula-banaketa berria iritsi bitarteko asperdura orduak erretzeko aurkitu duten denbora-pasa berria naizela azkenaldion. Batzuetan iruditzen zait, pixkana-pixkana beraiengana nola hurbildu naizen ikusteak zenbateraino laketzen dituen erakusteko duten modu aldrebesak bihurtzen nauela beren adar-jotzeen itu. Goitik begiratzen nien garaitik nola iritsi naizen, jaitsi naizen, beren mailara. Bi zangodun nintzenean, etxartean beren sudurren aurrean korrika ibiltzen nintzenetik beraienaren antzeko gurpil-aulkian ibiltzerako nire galbideak beren zoriona elikatzen du, ziur. Halakoxeak dira. Besteren des-

graziak hanpatuz norberarenak arintzen direla uste dutenetakoak.

Bestalde, aprobetxategiok beti ari zaizkit eskean. Berdin du beraien beharra materiala edo izpirituzkoa den. Batez ere pilulak eskatzen dizkidate, erizainek oheburuko mahaitxoan soberan uzten dizkidaten Diazepam, Nuctalon Xanax, Valium, Myolastan, Lorazepam edota Tetrazepam horiek. Edo, erretzen ez dudala dakiten arren, tabakoa eskatuko didate egunero, beraientzat beren-beregi erosiko diedan esperantzaz; erabiltzen ez ditudan kafe, azukre eta esne zorrotxoak ere eskatzen dizkidate, edota soberan dituzkedan orri zuri, gutun-azal eta zigiluak; biharamunean gutuna idazten laguntzeko promesa aterako dit batek; beren malurra adeitsuki entzuteko denbora tartea kenduko dit besteak...; zerbait eskuratu gabe ez dira etxartetik logela-ziegetara lasai igoko, nire bakardadea azpimarratu baino egiten ez duten etxartekideak.

Edonola ere, trufa egiten didaten arren, nik ere badut interesik bizkarroi elbarrion konpainian egoteko. Emandakoa biderkatuta jasotzen baitut. Beren oharkabean eta ezjakinean. Ez da-

kite banpiro batekin ari direla tratutan. Odolaren ordez orriok tindatzeko erabiltzen dudan lehengaia xurgatzen diet.

Gelara igotzen nautenean, beraiengandik jasotako istorioek, egiazkoek eta asmatuek, kaierean zirriborratzen ditudan bitartean konpainia egiten jarraitzen didate. Orduan, beraiek mutututa, nik agintzen dut beraien bizitzan. Nik antolatzen dut kontakizunen hurrenkera, nik josten pasarteak, nik aldatzen komeni ez zaizkidan amaierak, eta nik esanarazten dizkiet begiradaren sakonean ongi gordeta dituztela uste duten sekretu lazgarrienak.

Bizitzaren lezioak dira gehienak. Gogoan hartu nahi dituenarentzat. Gorrotoz, gupidaz, larderiaz, etsipenez, krudelkeriaz, doilorkeriaz, erdeinuz, miseriaz, edota harrokeriaz gainezka dauden kontakizunak. Guztiak gezur xehez egindako ore mikatz batean bilduak. Infernurik puntakoenak gustura baliatuko lukeen su geldoan frijituak. Behin eta birritan erabilitako olio ilunez gainezka zerbitzatuak. Denek mereziko lukete Galtzaileen Entziklopedia Unibertsalaren atalen batean agertzea.

Ospitale honetan ezagutu ditinat borondatezko bezeroak, ospitale arruntetan egon ohi ez direnak.

Ospitale arrunteko gaixoa bertatik alde egiteko desiratzen dago. Ahal dela bere kabuz eta oinez, senda-agiria jaso ostean. Txarrenean, atarian zain duen taxiraino hurbileko senideren batek bultzatutako nahitaezko gurpil-aulkian.

Aldiz, kartzela-ospitalera etortzea pagotxa izaten da preso arrunt batzuentzat. *Errefuxiatzera* datoz hona. Kartzela-agintarien eta medikuren baten laguntza behar izaten dute horretarako. Medikuak huskeria bategatik haren ospitaleratzea aholkatzen du aurrena. Ondoren, senda-agiria aspaldi jasotzeko moduan egon arren, kartzela-agintariekiko adostasunez, bertan egoten utziko dute.

Ustezko preso-eri batzuek hilabete luzeak daramatzate bertan. Ustezko eriak, benetako presoak; inolaz ere kartzelako beren ziega-zulora itzuli nahi ez dutenak: kartzela-administrazioak beren salatari lanaren ordaina ospitaleko egonaldiarekin jasotzen dutenak dira batzuk; dibisio

arruntean jaso ditzaketen jipoien arriskua ekiditeko isolamenduko hoztasun krudelean baino hemengo anonimotasun goxoan babesten diren bortxatzaileak beste batzuk.

Ahalik eta gehien luzatuko dute egonaldia Moliereren Argan modernook, harik eta gaixotasun larriren batekin iristen den presoren batek beren ohea ezinbestean behar duela-eta lekutzen dituzten arte.

Hemengo pribilegioak ez dira txikiak: egunero dutxatu gaitezke, kartzelako *quartier*-ean ez bezala. Gainera, ezindu edo ez, OLT batek egunero-egunero garbitzen digu gela, aldatzen zapiak eta izara garbiekin egiten ohea, kartzelako *quartier*-ean arropa zuriak hamabostean behin eta are hilean behin aldatzen dituzten artean. Zerbitzatzen diguten bazkaria jateko modukoa da, kartzelakoa bezain urria izanik ere. Erizainen presentziak kartzelazainen izaera goxatzen du. Ez digute oihu egiten, kontu handiz ireki eta ixten dituzte morroilorik gabeko ate arruntak. Hau paradisua da batzuentzat. *Silence Hôpital.*

Beste batzuentzat infernuaren lehen zirkulua da, ordea. Gaixotasun larri baten kausaz hona

ekarri dituztenak, bizitza guztirako ezinduak daudenak, gurpil-aulkiari lotuak edo, okerrago, epe labur baten buruan hilko direnak. Batzuetan, bizi arteko kartzelaldi mozorrotura kondenatutakoekin gurutzatzen naiz hemengo korridoreetan eta etxartean. Esaterako, burezurraren atzealdean minbiziak eragindako hamabost zentimetrotako konkorra duen gaztea, gurpil-aulkian baino ezin ibili dena. Gutxienez bi urte badaramatza hemen; laster hilko dela diote. Gerritik behera ezinduta dauden *errege* eta *errege-ordeen* artean denetarik dago: aspaldiko elbarriek umoretsu egiten diote aurre beren egoerari. Horietakoa da ordenagailu bidezko iruzurretan parte hartzeagatik atxilotu zuten *Erregea*. Baina badira ere laurogeitaka urte dituela dirudien agure hori bezalakoak, gurpil-aulkian eserita oxigenomaskarari eta besoko zainetik xiringa bidez sartzen dieten gazurari lotuta baino biziraun ez dezaketenak, etxartera ezin atera eta *promenada* ordua kartzela-zaindariek korridoreetan harathonat ibiliz ematen dutenak.

Ezindu fisikoen ondoan badira etxarteko eserlekuan eguzkitan jarrita itxura osasuntsua

dutenak ere. Begiratu batean inolako matxurarik ez dutenak. Ikusezina da haien zauria. Gorputza burdinaz eta porlanaz preso badute, adimena aldiz pilulen espetxean dute sartuta. Haiekin hitz egitea, mundu beldurgarrietan murgiltzea da.

Hona iritsi berritan, zein egoeratan zeuden ikusita, kartzelan zergatik gordetzen zituzten ezin ulertuz, egozten zitzaien izugarrikeria zein izango ote zen asmatu nahian harrapatzen nuen neure burua. Orain, nire ikuspegia aldatu egin dut: erreinurik gabeko errege dira, printzerririk gabeko printze, konderririk gabeko konde. Gainazalean egonagatik ezkutatua den mundu honetako izaki ilunak dira. Beste kode baten arabera antolatuta dagoen hiri bateko biztanleak.

Hor kanpoko munduarentzat ez gara existitzen; egunero La Coupole-n, Boulevard-ean edo Zazpi Kaleetako edozein tabernatan eguerdiko kafetxoa hartzeko ohitura duen hiritar arruntarentzat ikusezin gara, ozeano sakonenetako izakiak bezain. Oroitza bat gara. Urontzian noizean behin ikusten diren arrain arrotzak. Etortzen zaizkigunei ulertzen ez duten hizkeraz egiten diegu. Ez dago hau hitzen bidez ulertarazterik.

Eta guri kanpoko munduaren oroitza endekatzen hasten zaigu. Lehendabizi argazki bat bezala finkatzen da, gero koloregabetzen, zuri bihurtzeraino. Ikustera datozkigunak zientzia fikzioko filmetan bezala ezerezetik agertzen dira ikustaldi kabinatxoan.

Pixkanaka-pixkanaka, harea mugikorretan hondoratzen gara, kartzelak irentsi egiten gaitu, bereganatzen gaitu. Kartzelaren arabera bizitzen eta pentsatzen hasten gara, eta esfortzu gero eta handiagoa egin behar izaten dugu hor kanpoko munduarekin komunikatzeko, hor kanpoko mundua ulertzeko.

Hemengo biztanle batzuk naufrago ahantziak direla begitantzen zait, beren gaizkile txostena Justizia Administrazioaren artxibategi erraldoian galdu eta betirako ahaztutako jendea. Min, gorroto eta beldurrezko eraikin honetatik beren kabuz sekula aterako ez diren gizagaixoak.

Buru perlesiak jotako pertsonak behar ditu gaur egungo jendarteak: kontsumitu (ahal den neurrian), ederra izan (edo ederra izatea desiratu) eta ez nahastu bazterrak. Errepresioa eta axolagabekeria dira jendarte antolaketa honetan

gehien erabiltzen den txanponaren bi aldeak. Erreboltariari egurra ematen zaio axolagabeen taldera gehitu dadin.

Jendarte antolaketa horren erdigunean kartzela dago. Kartzelak herio kiratsa hedatzen du. Kartzela gabe, horma hauek betetzeko ezinbesteko diren legerik, jujerik, poliziarik, zaindaririk, segurtasun eta armagintza enpresarik gabe hor kanpoko mundua ez litzateke ibiliko. Hemen barrukoa den bezalakoa delako da hor kanpokoa den bezalakoa. Hor kanpokoa den bezalakoa delako da den bezalakoa herioaren aurre-ganbara hau. Hor kanpoan bezala hemen ere ahots loarazle batek une oro diosku: obeditu eta dena ondo joango da; ez hartu erabakirik arazorik izan nahi ez baduzu; alferrik da ezer aldatzea; erreboltа oro aldez aurretik galdutakoa da. Xabierrek frantsesei ikasi zien atsotitzak honela dio: *pot de fer contre pot de terre*.

Etxartera ateratzen garenean gutako bat falta dela ohartzen garenean, ez dugu inolaz ere pentsatzen abokatuak bere akusazio txostenean akats bat topatu-eta ustekabean askatasuna berreskuratu duenik. Badakigu igeri egiteaz nekatu

eta hondorik gabeko labar hauetan bere burua botaz desagertu den gutako beste bat dela. Ohe huts bat besterik ez administrazioarentzat. Laster beteko dena, laster beteko dutena. Infernurako treneko eserleku guztiak beti daude hartuta. Norbaitek hartzen du horren ardura hor kanpoan. Ustezko errugabeen kanpoko mundu lauso horretan.

Sudurreko operazio hari itzuri egin eta urtebetera, boleibolean jolasean hautsitako hatzaren berreziketarako ospitalean ingresatu ninduten egun hartan ezagutu ninan Dimitri.

Furgoitxoan etorri ginen guztien artean bera eta biok ginen ospitalera gelditzera gentozen bakarrak. Hartara, iritsi ahala kontsulta soila zutenengandik bereizi eta elkarrekin sartu gintuzten itxaronziega batean. Urtebete lehenago *Aulkira-Iltzatuak* bere elbarritzearen berri eman zidan berbera zela iruditu zitzaidan, ordukoan horman idatzi eta identifikatzeko lagun ziezadakeen idazkuna pintura eskualdi berri baten azpian desagertuta zegoen arren.

Gazte ihar eta urduri bat zen Dimitri. Itxaronziegan atzera eta aurrera zebilen, ezin geldirik egon, begiak distiratsu, ile bel-beltzak nahasmahas.

Nire presentziaz orduantxe ohartu balitz bezala zigarreta bat eskatu zidan.

– *Garretzi* bat baduzu? *Roulé* bat? Zigarreta bat? –zer eskatzen zidan ondo uler nezan, aldirietako hizkeran ez ezik frantses arruntean ere

galdetuz, galderen artean arnasa hartzeko beta hartu gabe.

Dorre Bikiak bota zituzten urtean erretzeari utzi niola esan nionean, galtzetako eskuineko poltsikoan bilatu zuen eta bildutako bat atera zuen kontu handiz. Erretzen ez nuenez partekatu beharko ez zuelako pozik zegoela aitortu zidan irribarre bihurriz.

– Hau gerorako neukan, baina ezin diot eutsi erre gabe!

Ura eskatu zidan hurrena. Ukorako aukerarik uzten ez dakitenen trebetasunez.

– Badakizu, *subutexa* hartzen dut; baina lasai botilaren ezpainak ukitu gabe edango dut.

Botilatxoa oparitu nion. Pozik hartu zidan. Nirekin pagotxa zuela-eta zer gehiago eskuratu asmatzen ibiliko zen horrezkero.

– Dimitri naiz –aurkeztu zuen bere burua–. Nahigabeko hilketa batengatik nago kartzelan. Burdin ziri batzuk ditut hemen –eskuineko hanka erakutsi zidan–, eta horiek kentzera ekarri naute hona.

Nire burua aurkeztu nuen:

– Mikel naiz, euskal preso politikoa.

Metrailadorea zuen ahoan Dimitrik, hitzei arnasa hartzen utzi gabe mintzo zitzaidan, gelatxoan atzera eta aurrera gelditu gabe ibiltzen jarraitzen zuen bitartean.

– Hobe nuke kaskoa buruan jantzita dudala ibiliko banintz. Erori eta buruan kolpe txikiena hartuta konortea galtzen dut, eta esnatzen naizenean ez dakit nor naizen, eta ordura arteko guztiak ahantziak ditut. Haur jaio berri bat bihurtzen naiz, dena irakatsi behar izaten didate, ahora jaten eman behar izaten didate, ipurdia garbitu... Erretzeko grina ez zait kentzen, ordea! Eta zainetako azkura ere ez!

Hamaika urte zituenerako bost hizkuntza omen zekizkien. Gurasoek munduan barrena eraman zuten, piano kontzertuak emanez eta matematika kalkulu konplexuen erakustaldiak eskainiz.

Behin, mundu osoko haur gaindohatuen lehiaketa antolatu zuen telebista kate ezagun batek. Platoan elkartu zituzten bera, Frantzia ordezkatzen, eta Errusiako, Italiako, Argentinako eta Ingalaterrako haur bana. Aurrena bakoitzaren jatorrizko hizkuntzak txandaka erabiliz elka-

rren artean hitz egin behar izan zuten, gero pianoa jo eta, azkenik, logaritmo konplexudun eragiketak nork lehenago askatu lehian aritu ziren.

Garai zoriontsua izan zen. Bizikletaz zebilen batean, Dimitrik erorikoa izan eta espaloia buruaz jo zuen egunean amaitu zena. Hilabete luzeak eman zituen konorte gabe ohean. Eta esnatu zenean oheburuan beilan zegoen ama ez zuen ezagutu, ez zuen gogoan bera nor zen ere. Orduan izan zuten gurasoek beren haurraren dohainen ifrentzuaren berri. Ehunera doan auto bat segundo baten buruan gelditzearen gisakoa izan zen Dimitriri gertatu zitzaiona. Hartara, lehen urteetako poza eta zoriona, arrangura eta etsipen bilakatu zen. Hamaika urte eta erdiko Dimitri, ordura arteko haur fenomenoa, haur jaioberri bilakatua zen.

– Konturatzen al haiz benetan zer den hori? Berriro ere jaio banintz bezalakoa zuan! Ez nekian ezer! Ez eta hitz egiten ere. Dena ikasi behar izan nian hasieratik. Eta gurasoek uste zutenaren kontra, ez nian lortu lehen nuen jakinduria bera. Itxuraz, kolpeak garuna ondo matxuratu zidaan, eta jakintzaren errepidea betirako itxi-

ta gelditu zitzaidaan. Zast! Kolpe batez! A, a, a! Ez al da ona? Kolpe batez! Orain frantsesez idaztean ere akats ortografiko piloa egiten diat. Baina ziur nagok istripua izan ez banu, dagoeneko euskara ere ikasia izango nuela edo ez nukeela ikasteko batere zailtasunik izango.

S*ubutex*aren eraginez handituak zituen begi niniak nireetan iltzatu zituen.

– Zenbat urte ditudala uste duk?

– Hogeita sei inguru.

Miresmenez begiratu zidan.

– Bai, bai... hogeita sei! Asmatu duk! Ona haiz benetan! Txalo! Beno, bada hogeita sei urte izan arren, hamabost urteko nerabe baten adin mentala besterik ez diat.

Elkarrekin egon ginen denboran adin mentalari zegokionean bederen gezurrik ez zidala esan egiaztatu nuen tarteka. Goitik ez ote zuen jo. Emakumeen bularrekiko obsesio gaizbera agertzen zuen. Ospitalean artatuko zuten emakumezko erizainen paparrak aipatzen zituen behin eta berriz. Zaindari emeen edertasuna goresten zuen, goizetan ziega zabaltzerakoan emakumezkoa egokitzeak eragiten zion plazera azpimarra-

tuz. Presozain eme batek gorputz osoko miaketa egin ziezaion zuen sexu-amets goren.

Psikiatrikoan egonaldi luzeak eginak zituen. Azken aldian borondatez joan zela esan zidan. Psikiatrikoa ala kartzela jarri ziotela aukeran eta psikiatrikoa hautatu zuela.

– Nahiz eta han sartuz gero, nireak egina zuela banekian: dortoka abiadura eta barraskilo mukia.

Pilulen eraginpeko buru-gaixoen ibilera antzeztu zidan, esku-besoak gorputzaren alde banatan luze-luze, indarge, oinak arrastaka, begizuriak agerian, ahoa oker, lerdea zeriola:

– Dodtogka abiazdura eta badaskidlo mugkiak –errepikatu zuen mihia aho barruan lodituz.

Irribarrez begira egon nintzaion, antzerkitxoa eskaintzen zidan bitartean, eta hasieran gazte zoro horrekin gela berean itxita egoteagatik sentitu nuen beldurra uxatu nuen.

Euli bati ere kalte egingo ez ziokeen gaztea zela pentsatzen hasia nengoenean zehaztu zidan bere kartzelatzearen arrazoia.

Bere arreba Veroniquegatik alde egin zuen psikiatrikotik Dimitrik. Eta aldi honetan poliziak

atzipetu zuenean ez zioten hauturik utzi, ezkonanaiaren hilketaz akusatuta kartzelatu zuten.

Berriro ere ikaratu nintzen, nahigabeko hilketa aipatu zidanean beste zerbait izango zela pentsatu bainuen, auto istripuren bat-edo.

Nahiz eta itxaronziega horretan ez zuen ni erasotzeko modurik, bere esku hutsez ez bazen –eta halako eraso bati aurre egiteko adina sentitzen nuen neure burua–, zitekeena zen baita ere arropen artean metal zati zorrotzen bat gordeta ekartzea. Izan ere, metalak detektatzeko atakatik pasatzerakoan, ateari txistu eginarazi ziena bere hanketako burdin ziriak zirela esanez lor zezakeen labana modukoren bat aldean eramatea. Atea txistuka jartzen dutenei presozainek arropa gainetik eskuez egindako miaketa hain da eraginkortasun gutxikoa, segurtasunaren izenean burutzen duten neurri horren helburu nagusia presoa umiliatzea delakoan bainago.

Hala eta guztiz ere, bere bizitzaren berri ematen jarraitu ahala atzendu zitzaidan hasierako izua. Dimitri aukerako kontalaria zen, eta, hartara, lilurak hartu zion gaina ikarari.

– Arrebak beti izan dik ikaragarrizko abilidadea gizon-lagunik aproposenak hautatzerakoan. Txiki-txikitatik hasi zuan mutil alprojenekin maitemintzen. Zorionez, garai hartan, ni beti alboan edo inguruan nenbilkioan. Nik zanpatzen nitian eltxoak, uxatzen mandeuliak. Arrebatxo, arrebatxo... esaten nioan. Arrebatxo, arrebatxo... Ez zunan hiretzako modukoa. Ikusi al dun zein azkar egin duen alde? Gero, besarkatu egiten nian eta kontsolatzen bere maite-mina, eta negar egiten zuenean, musuzapia mingain puntaz bustiz malko arrastoak garbitzen nizkioan, amatxori ikasi bezala.

Bion arteko harreman estua zela-eta, auzoko haurrek eta eskolakideek iseka egiten zieten. Dimitriri *Aingeru Guardakoa* deitzen zioten.

Arreba edertu ahala, Dimitriren babes eginahalak ez ziren aski izan. Dimitrik bekaizti begiratzen zien bere arrebagana asmo lizunez hurbiltzen zirenei. Dimitrirentzat arrebagana hurbiltzen ziren guztiak zerri hutsak ziren eta zerrien antzera jokatu beste asmorik ez zuten.

– Zakilburu haiek arreba musukatu, haren bularrak eta hankartea maiseatu eta ondorengo beste guztia egin nahi zitean.

Arrebaganako zuten sexu-grinaren oztopo zen neurrian, arreba eta bere arteko maitasun garbiaren esanahia zikintzen hasi ziren: *pédé* deitzen hasi zitzaizkion, eta, kontraesankorra zen arren, arrebarekin larrutan egiten zuela hedatu zuten eskolan, ahoz aho eta komunetako ate-hormetako graffitien bidez. Bien izenak ezkontzen zituzten idazkun eta marrazkiekin. Zakila Dimitrirena eta ahoa Veroniquerena zirela argitzen zuten gezi banaren laguntzaz.

– Arreba maite diat noski! Baina ez zerri horiek iradoki moduan.

Emakumeekin inoiz arrakastarik izan gabekoa zen Dimitri. Edo beldurtzen zituen edo beldurtzen zuten. Arrebarenganako maitasun goxo eta garbian babestu zen amaierarik ez zuen nerabezaroan trabatuta jarraitzen zuen artean.

Veroniquek arazoak erakartzen zituen, Dimitriren ustez. Bikote harremanetan iskanbila sortuko zuen kidearekin elkartzeko joera omen zuen. Eta Dimitrik arreba babestu, defendatu eta

arazoetatik libratzeko ardura eman zion bere buruari, aita lehendabizi eta ama ondoren hil eta umezurtz geratu zirenean.

– Alboan izan nuen artean arazoak ekiditeko gai izan ninduan –esan zidan harro.

Baina Dimitri ez zegoen beti etxean Veronique zaintzeko. Bere buru gaixotasunak eraginda ospitale psikiatrikoan egonaldi laburrak egin behar izaten baitzituen.

Haietako egonaldi batetik astebururako baimenarekin ateratzen utzi zioten batean hasi zen Dimitriren gainbehera. Euria ari zuen eta haize erauntsiek aldiriko etorbide zabala garbitzen zuten. Harritu egin zen arreba ospitaleko atarian zain ez zuela ikustean. Berandutu zitzaiolakoan, zain egon zen luzaroan, arropak eta garbitzeko beharrezkoekin betetako saltegi handi bateko poltsa besoen artean estutuz, autobus geltokiaren aterpean nola hala babestuz. Ez zen Veronique azaldu ordea. Etsi zuenean, blai, ospitalekoek emandako diruarekin ordaindu zuen etxerainoko taxia.

Bigarren ustekabea giltza sarrailan sartzen saiatzerakoan izan zuen. Sarraila aldatuta zego-

en. Zer egin jakin gabe egon zen ateari begira minutu luzez, txirrina jotzera deliberatu zen arte. Ezezagun batek ireki zion atea. Etxez erratu zela pentsatuko zukeen, sarrerako gelatxoan, gizaseme haren gorputz tzarrak erdi ezkutatuta, ohiko altzari eta koadroak ikusi izan ez balitu.

Arazo Jauna zen, arreba ezkonberriaren senarra.

– Ez dakit zerk mindu ninduen gehien, arreba artaburu harekin ezkonduta aurkitu izanak edo ospitalera egindako ikustaldietan deus aipatu ez izanak.

Ordura arte Dimitri izan zen Veroniqueren konfidentea eta aholkularia. Segituan asmatzen zuen berak noiz zegoen arreba maiteminduta. Eta halakoetan, norekin zegoen txora-txora egin-da aitortu bitartean ez zion bakerik emango. Gero, bion artean aztertuko zuten ezkongaia, eta, gehienetan, Dimitriren argudioak gailentzen zitzaizkion Veroniqueren bihotzari. Hautagairen batek Dimitriren hasierako galbahea gainditzen bazuen, familiako aurkezpen bazkaria baino urrunago ez zen joango bikote harremana. Anaia ezagutu eta gero ez zen gehiago agertuko ez

Jacques-ik edo Raymond-ik haienera. Bazekien Dimitrik nola jokatu horretarako. Bazkari gogo-angarriak eskaintzen zizkien. Ez zuen inork Dimitri bezalako ezkonanai baten zama bizkarrean hartu nahi izaten. Arreba kontsolatuz amaitzen zuen Dimitrik *afera*.

Arazo Jaunak partida irabazi zion ordea. Bere absentzia baliatuz, hori bai. Eta arrebak traizio egin ziolako ere, sekula ulertu ez zituen arrazoiengatik.

Denbora galdu gabe jakinarazi zion Arazo Jaunak etxe hartan bere desioen arau bizi zirela. Dimitriren gela *apopilo-gela* bihurtua zuten.

Afalorduan, aho ertzeko koipe arrastoa esku gainaz garbitu ostean, etxean zenbat denboraz gelditzeko asmoa zuen galdegin zion ezkonanaiak. Arrebari begiratu zion Dimitrik, laguntza eske. Irribarre egin zion atsekabez arrebak; ez zuen hitzik egin bera defendatzeko. Altxatzeko keinua egin zuen Veroniquek.

– Bai, hori da, hoa sukaldera eta ekarri egidan garagardo fresko-freskoa –agindu zion Arazo Jaunak.

– Niri beste bat, mesedez –eskatu zion Dimitrik.

– Ez. Xoro honentzat alkoholik gabeko freskagarria ekarri, ez dinat-eta arazorik izan nahi!

Umiliatuta zegoen, gurasoen etxean bertan, beren etxean, arrotz batek umiliatua.

Ez zuen ireki arrebak ekarritako freskagarria. Arazo Jaunak garagardo lata ireki eta ia hurrupa batez hustu zuen. Korrok egin, ezpainetako aparra garbitu eta galdegin zion:

– Eta?

– Zer?

– Zenbat denborarako haugun apopilo. Ez al duk entzun galdera edo ez duk frantsesa konprenitzen? Zer dituk belarriak ezkoz beterik, edo oraingoan garuna denbora gehiegiz eduki ditek garbigailuan sartuta?

Barre egin zuen ozen ezkonanaiak bere ateraldia apaintzeko. Veroniquek ahoa irekitzeko keinua egin zuen.

– Isilik, hi!

– Ez hitz egin horrela arrebari! –sutu zen Dimitri.

– Nahi dudan bezala hitz egiten zioat nire emazteari, azostoa! Eta hik, erantzun behingoan, noiz arte izango haugu traban?

Ireki gabe gelditu zen freskagarri-lata. Altxa, *apopilo-gelara* joan, bere gauzarik maiteenak eta beharrezko izan zitzakeenak nahas-mahas motxila batean sartu eta alde egin zuen Dimitrik.

– Zakur makilatua bezala joaten utzi zidaan arrebak.

Ez zen astelehenean, baimena amaitutakoan, ospitale psikiatrikora itzuli. Harrezkeroztik alderrai ibili zen, noiz oinez ibilaldi luzeak eginez eta noiz auto-stopez, ez zenean trenez, txartela ordaindu gabe. *Non gertatu, han ostatu*, Xabierrek esango zukeen moduan.

Noizean behin, oso egoera txarrean zegoenean, larrialditakoek ospitalera eramaten zuten. Ospitalean egonaldiak egiten zituen alkoholaren eta heroinaren atzaparkadetatik askatzen saiatzeko. Pilulez galkatzen zuten eta ondo antzean ikusten zutenean berriro askatzen.

– «Adiorik ez, hurren arte baizik». Bazekitean laster gabe bezero izango nindutela, larruzko

uhaldun ohera lotuta edukitzeko denboralditxo batez, gau eta egun.

Tarte horretan guztian, behin ere ez zuen arrebaren berri izan. Ospitalean ingresatzen zutenean, *SDF*tzat jotzen zuen bere burua, Arazo Jaunak *okupatutako* bere etxeko helbidea emateko harroegi. Hartara, denbora tarte horretan ez zuen behin ere arrebaren bisitarik jaso ahal izan.

Dimitrik ere ez zuen arrebaren eta Arazo Jaunaren berri zuzenik izaten. Ez zen haatik denbora luzez haienetik urruntzen. Bere bidaldiak gero eta laburragoak bihurtu ziren, iman batek jaiotetxera lotuko balu bezala. Bidaiaren batek, oharkabean jaioterritik nahi baino gehiago urrutiratzen bazuen, azkar itzultzeko modua aurkituko zuen. Gero eta gustukoago zuen auzoan ibiltzea, arreba ustekabean gurutzatuko zuen esperantzaz, baina etxera gehiegi hurbiltzeko beldurrez, Arazo Jaunak bera ikusiz gero nolako erreakzioa izango zukeen sumatuta.

Azkenerako, arreba berriro ikusteko sentitzen zuen beharra garagardo edale urde hari zion beldurrari gailendu zitzaion. Hura arrisku

gabe ikusteko egitasmo bat lantzeari ekin zion orduan.

Lehen urratsa, aurrerantzean bizileku izango zuen kanpalekua haien etxetik hurbil zegoen saltegi handian kokatzea izan zen. Oso leku apropo-sa zen bere asmoetarako. Bizirauteko beharrezko elikagaiez dohainik hornitzen zen bertan; eta arrebak erosketak han egiteko ohitura zuenez, arriskurik gabe zelatatu zezakeen. Ordutik aurrera, arreba ikusteaz gain, haren bizimoduari buruzko informazio ugari eskuratzen hasi zen.

Lander ibilitako denbora luzearen ondoren eta ondorioz zeukan zarpail itxura zuen zelatari lanerako mozorrorik egokiena. Nahiz eta ez zuen guztiz uxatu arrebak bera zela sumatuko ote zuen kezka: bien arteko lotura psikologiko indartsua zela medio, adabakiz jositako arropak eta ile-mataza eta bizar luze eta zikinak ez ote ziren aski mozorro izango.

Hurrena, arrebak erosketak zein egun eta ordutan egiteko ohitura zuen ikasi zuen. Ohartu zen bakarrik egiten zituela. Arazo Jaunarekin agertu zen aldi bakanetan ere ez zituen harekin egin. Urde zikina auto barruan gelditzen zen

erretzen. Arreba gurditxoa mukuru beteta iristen zenean ere ez zen ateratzen hari laguntzera. Atzeko atea irekitzeko botoiari sakatzen zion eta Veroniquek sartzen zituen erosketak autora. Etxera iristean eszena errepikatzen zela irudikatzen zuen Dimitrik: alegia, Veroniquek garraiatuko zituela autotik etxe barrura erosketa-poltsa zamatsuak, Arazo Jauna, hozkailutik garagardo bat hartu ondoren, kanapean etzanda teleagintearekin emankizun ergelena topatzen saiatzen zen artean.

Arrebaren erosketa-gurditxoaren edukiari begiratuta ere asko ikasten zuen. Bazekien noiz zuten janari berezia edo gonbidaturik etxean. Izoztutako jakien kopuruagatik bazekien mikrouhin labeak egiten zuela batez ere sukalde lana, arreba ez zen-eta sekula *cordon-bleu*a izan. Txokolate kopuru eta mota anitzek ematen zioten arrebaren gogo beheraldien berri. Hunkitu ere egin zen Dimitri bere gutizia maitatuenak erosten jarraitzen zuela ohartu zen egunean.

Astazakil hark zaborra bezala etxetik bota zuenean hatz tipia ere mugitu ez bazuen ere, ñabardura horiek adierazten zioten oraindik biho-

tzean gordetzen zuela arrebak. Orduan, harekiko amorrua baretzen zitzaion, barkatzen zion eta egunen batean, lehenago bezala bere laguntza behar izango zuenean, hurbil egongo zela pentsatuz kontsolatzen zen.

Eskekoaren mozorroak gero eta ausartago jokatzera eraman zuen Dimitri. Arrebarekin batera saltegian sartzen hasi zen. Ez zen harengana hurbiltzen ordea, eta denbora gutxiren buruan antxintxika alde egiten zuen, lapurtzat har zezaten arriskuari muzin eginda. Veronique hurbilean sentitzeak dardaraz jartzen zuen.

– Eskuak dardarka eta bihotza taupaka jartzen zizkidaan, arnasestuka ateratzen ninduan.

Arrebak alde egin arte ez zen Dimitri bere elikaduraz arduratzen hasten. Erosketa-otorduak bertan egiten zituen. Har eta jan. Jogurtak edan, gazta-urdaiazpiko bokatak irentsi... Hainbatetan harrapatu izan zuten zaintzaileek eta zabarki kanporatu, urdailean barruratutakoa kobratu ezinik.

Azken bezeroak lekutu, saltegia itxi eta langileek bazterrak husten zituztenean iristen zen bere atsedenlekua antolatzeko ordua. Kartoizko

kutxa handiak erabiliz eraikitzen zuen gauerako aterpea eta ohantzea.

Bizimodu horretara ohituta luzaro jarrai zezakeen arreba zelatatzen. Edozein hiritar arrunten ordutegi finkoen antzekoaren arabera bizi zen, ohikeria goxoan. Dimitriren presentzia iraunkorra saltegiaren bizitzako osagai bilakatu zen hein berean txertatu zen egunerokotasun aldagaitz hori beragan.

Denboraldi zoriontsua izan zen, modu horretan bere buruari egindako zina betetzen zuela uste baitzuen: arreba zaintzea, kosta ahala kosta. Bi gertakizunek anaia ohilduaren ohikeria goxo hura hautsi zuten arte.

Udazkeneko egun hits batean izan zen. Aspaldian begien aurrean zuena ikusi zuen azkenerako. *Ikusi nahi ez dena beti begi aurrean*, esango luke Xabierrek. Arreba astean bizpahirutan ikustearekin bere aingeru-guardakotza betetzen zuelakoan, ez zuen jakin izan ikusterrean zuena behar bezala ulertzen.

– Zozoa ni! Ez al nituen bada Arazo Jauna eta bere kastakoak aspaldian ezagutzen? Ez al ziren bada, hain zuzen ere, bera bezalakoxeak arre-

bak bereziki erakartzen zituen arrak? Ez al nuen haiengandik babestu txikitatik? Zer uste nuen gertatzen zela arrebarenean Arazo Jaunak hozkailuko garagardo guztiak hustean, zeharo horditutа gehiagoren eske hasiko zenetan, edota besterik gabe garagardoa bere gusturako epela aurkitzen zuenetan? Zer inportako zitzaion hari gauerdian saltegi guztiak itxita egotea edota garagardoak izozkailuan sartuta ere hozteko denbora behar izateak? Lepoko zainak puztuta, gorrotoa azal zulo guztietatik zeriola, nork ordaintzen zuen haren txepelkeria, arreba maiteak ez bazen?

Arreba supermerkatura erosketak egitera sartu zenean betaurreko beltzak jantzita zeramatzala ohartu zen Dimitri. Udazken egun euritsu hartan, eguraldi zakarra egiten zuen arren.

Arrebak ordaintzen zituen harenak. Jo egiten zuen, noski. Kolpatu, ukabilkadaz, dinbi-danba, ostikoz joko zuen, iletatik tiraka hormaren kontra botako zuen, irainduz altzarien kontra bultzatuko zuen, konorte gabe utzi arte batzuetan, negar malkotan eta intzirika beti, odoletan ez bazen ubelduekin, begi bat more, negarrez, ziur.

Atsekabetuta eta bere buruarekin haserre zegoen Dimitri harrezkero, begien aurrean eduki zuen tragedia ikusi ez zuelako, bera «detektibe jolas txatxuekin» zebilen artean. Arratsetan, arreba ikusi izanagatik kartoizko lastairan pozik etzaten zen bitartean, gizatxarrak Veronique torturatzen ziharduen. Orain, begietako lausoa jausi ostean argi ikusten zuen, etxera iristean afaria prest ez zegoelako, alkohol gaindosia komun-zuloan hustu aurretik, zaplazteko parea emango zion; eta txahalaren arrastoak aho ertzetik garbitu gabe oraindik amaituko zuen zeregina. Alferrik zukeen Veroniquek atea kisketaz itxiz logelan babestea.

– Ireki ezan, urdanga zikina, atea botatzen badut okerrago izango dun-eta, zintzurra egingo dinat, alutik gora sartuko dinat ganibeta –esango zion.

Afaria prest egoteak ez zuen salbatuko. Bazukeen beti aitzakiarik ukabilez eta ostikoz Veroniqueren gorputza astintzeko: afaria hotz zegoelako, ez zelako bere gustuko jakia eta ondo zekielako, ea nahita egiten ote zuen. Jan-edan kontuak ez baziren, etxeak txerrikorta zirudiela-eta

platerak txikituko zituen zorura eta hormen kontra botata, matrailekoak ematen hasi aurretik.

– Zertan ematen dun egun santu osoa, alferrontzi halakoak? Bazakinat nik, bai: hire laguntxo kaskarinekin txutxu-mutxuan. Hobe dun hori izatea, bai, ez dezadala inoiz jakin amorante baten besoetan egoten haizela. Halakoren batean harrapatzen bahaut, haren zakila irentsiko dun, bai, hari moztu ostean ahoan sartuko dinadanean!

Zabaldu zituen begi biak azkenerako! Ikusi zuen etxean gertatzen ari zen tragedia. Hor zihoan arreba, gurditxoa erosketez mukuru aparkalekuan barrena. Herren zebilela iruditu zitzaion. Eta ibilera hori lehenago ere antzeman ziola gogoratu zitzaion. Eta ondoren ohartu zen udan mahuka edota lepo luzedun atorrekin ikusterakoan harritu izan zela.

Zelatan ibilitako denboran ikusi zituenak oroitzen saiatu zen, froga bila. Baina behar al zuen halakorik. Zer froga gehiago behar zuen? Ez al zegoen argi baino argiago urde horrek arreba xehatzen ziharduela egunez egun? Amaitu

ziren amets garaiak, ameskeriak, behingoagatik gizon portatu behar zuela erabaki zuen Dimitrik.

Zer egin? Joan zitekeen etxera. Aukera bat zen.

– Hator, arrebatxo, nik zainduko haut. Goazeman hemendik urrun. Guyanara edo Tahitira. Goazeman biok, elkarrekin, txikitan bezala.

Veroniquek zer erantzun ziezaiokeen ere aise irudika zezakeen.

– Utz nazak. Zer habil? Urrunera? Nora baina? Eta nola! Ba al daukak dirurik, Dimitri? Begiratu al diok hire buruari? Ni ondo nagok, anaia, ondo nagok. Zer diok, jo? Zertaz ari haiz? Ez diat harengandik banandu nahi. Utzidak bakean bizitzen.

Etxera joan aurretik ere bazekien Arazo Jaunaren adinakoa ez zela.

– Gainera, emakume jipoituek ez ditek tratu txarrak ematen dizkietenengandik aldendu nahi izaten, Mikel, badakik. Maite dituztela uste ditek. Barkatu egiten zietek. Beren errua dela uste izaten ditek.

Bururatu zitzaion baita ere arreba etxetik ateratzea ez lortzekotan, agian errazagoa izango

zitzaiola alderantziz egitea, alegia, Arazo Jauna aldenarazten saiatzea. Segituan ezinezkotzat jo eta baztertu zuen ideia ordea.

– Bi gertakari aipatu ditiat –esan zidan Dimitrik bere jardunaren doinua aldatuz.

– Bai.

– Bigarren gertakariak lehenarekin hartu nuen erabakia sendotu zian, eta premia ez ezik kontuak presa ere bazuela erakutsi zidaan.

Veronique erosketak gurditxotik ateratzen ari zenean ohartu zen poltsak gurditxotik atera eta autoaren atzeko kutxara lekualdatzerakoan gorputza kontuz makurtzen zuela, bizkarreko minez balego bezala. Eta horixe pentsatu zuen aurrena, sasikumeak kolpe txar bat eman ziola bizkarraldean. Ez zituen ohiko mugimendu axolagabez hartzen poltsak; guztietan arrautzak baleude bezala ari zen.

Zutitu zenean zorrotzago begiratu zion. Eta orduan ikusi zuen Veroniqueren sabelaldea.

– Ergela! Itsua! Ergel itsua! Neurekoia! Baboa!

Isildu egin zen, niri tinko begiratuz.

Badaezpada ere ez nuen ahoa ireki, nahiago nuen berak esatea esan beharrekoa.

– Ez al duk ulertzen? Urdeak haurdun utzia zian!

Sutan zegoen Dimitri, esku-besoekin imintzioak eginez itxaronziegan atzera eta aurrera zebilen, biraoka, bakarrizketari lotua zitzaion, niri kasurik egin gabe.

Orduantxe zabaldu zen atea. Kartzelazainak ospitaleko sarrera-fitxa betetzera deitu gintuen, lehenik ni eta gero Dimitri, hurrenez hurren.

Izapideak bete nituen, preso-zenbaki berria eman zidaten, telebista alokatu nahi nuen galdetu zidaten (8,38 € astea, ospitalean ez dago alokairu beherapenik); baietz erantzun nien, neramatzan puskak miatu ondoren kartoizko kutxa batean sartu zituzten eta arropa-dendetan egoten diren aldagelen antzeko batean sartzeko agindu zidaten, burutik oinetaraino biluzarazi eta gero arropak miatzeko.

Itxaronziegan gelditu zen Dimitri, ni, kartoizko kutxa besoetan neramala, kartzelazainari jarraitu nintzaion artean, hilabetez nire bizileku izango zen gelaraino. Kartzelan maiz gertatzen

den bezala, Dimitri agurtzerakoan ez nekien berriro ere ikusiko ote nuen, nahiz eta kartzela-ospitalean ingresatuko gintuztenez etxarte-orduan elkar ikusteko aukerarik izango genuela espero.

Bere bizitzaren berri ematen hasi zitzaidan une beretik bururatu zitzaidan ipuin edo kontakizun baterako pertsonaia aproposa zela. Eta kontakizunean aurrera egin ahala, kontatzen ari zitzaidana asmatua edo benetakoa ote zen arduratu gabe, esandakoa ahalik eta leialen transkribatzearekin aski izango zela pentsatu nuen. Horretarako, etxartean berarekin elkartzekotan, haria eten zuen lekuan berrartu eta kontakizuna amai zezan lortzea besterik ez nuen.

Ez nekien oraindik gau ilunean ezantzaz betetako pertzaren ondoan erlabioak erakartzeko pizten den eskuargiaren antzekoa izango zela Dimitri niretzat. Eta ni ezantzan harrapatuta gelditukо zen erlabioa.

Gauetik egunera, kartzelan sartu-eta, pertsona desgaituak bihurtzen gaitun. Norbaitek, hizkiekin jolasean, PERTSONA-ren T-a eta N-a kendu: PERSOA; eta R-a eta E-a lekualdatze hutsarekin, beste izaki bat sortu izan balu bezala. Askatasuna galtzen dugun unetik ez gaitun jada lehengoak. Gure zaintzaren ardura dutenengan ikusten dinagu beraientzat pertsona izateari utzi diogula.

Antzinako eta ez hain antzinako esklaboak bezala, espetxeratua ere ez da kalean aske dabilen gizaki arruntaren adinakoa. Horregatik da gaurko jendartean legezko eta zilegi presoa laidotzea eta sufriaraztea, heriotzaren mugan jarriko duen egoeran kokatzea. Eta baita, zergatik ez, sokatik dilindan jarriko duen azken bultzadatxoa ematea.

Luzeegi litzateke hemen xeheki arrazoitzeko baina kartzelan gertatzen diren buru-hilketa guztiak jendarteak manatutako hilketak baino ez dira, hizki larriz idatzi beharko liratekeen hilketak. Hori bai, hildakoak pertsonak ez direnez

gero, ezin akusa daiteke jendarte prestua ezein krimen burutu izanaz.

Antzina eta ez hain antzina ere esklabo batek zerri batek baino balio gutxiago izaten zuen. Gaur egun, zenbatetan balioesten da preso baten bizitza?

Atxiloketaren une beretik hasten den halabeharrezko transformazio prozesuaren buruan, bere borondatea zigorraren akuilupean bortxatuz, agindu-eman zale zena esaneko bihurtzen da. Batzuentzat egoeraren itzulikatzea dena, mespretxatzailea mespretxatu eta bortxatzailea bortxatu bihurtzen baitira; beste batzuentzat endekapen prozesua besterik ez da, droga-trafikatzaile handia droga trafikatzaile txiki bihurtuz. Dirudunek, aldiz, beren jendarte maila mantentzea lortzen dute, kanpoarekiko alderatuz txiro diren arren barneko mundu honetan aberats izaten jarraitzen baitute. Hilketaz akusatutakoak begirunez hartzen dituzte bai gainontzeko presoek eta baita presozainek ere. Iruzurtiek beti aurkitzen dute beren gezurrak sinetsiko dituen xaloren bat. Eta atxiloketa unera arte euskal gu-

dari ginenok euskal preso politiko bihurtzen gara.

Preso batek bere buruaz beste egiten duenean, zigilatu egiten dute ordura arte bere bizileku izandako ziega, bere bizi-hobi izandako espazio hertsia. Polizi ikerketarako. Hil arte bertan bizi zena ezagutuz gero, aldiro ikaragarria bezain hunkigarria egiten da ziega aurretik pasatzea.

Cellule bloquée dioen idazkuna erantsi dute nabarmen. Jar zezaketen *Requiescat in pace* ere. Bakean atseden hartzen ariko denik batere ziurra ez den arren. Batzuetan ziega zergatik ezin den erabili azaltzen dute: *pour travaux*. Bertan ari direnak ez dira igeltsero eta argiketariak ordea (horiek geroago deituko dituzte agian, herioaren ikustaldi labur bezain eraginkorrak utzitako aztarnak ezabatu behar izatekotan), auzi mediku eta poliziak baizik, berezko arrazoiek eragindako heriotza dela baiesteko mandatuz.

Krimen perfektua baita. Gela kanpotik itxita zegoen, giltzez eta bi morroiloz, atearen goialdean eta behealdean bana. Gainera, leihoa burdin barraz gehi begi sarri-sarridun sarez estalia

dago. Ez da inor sartu eta ez da inor atera. Heriotza ordua goizaldeko seiak eta zazpiak artean kokatu du espezialistak, seietako zaintze txandakoek behatze zulotik begiratzerakoan ez baitzuten deus ikusi (ikusi izan balute ere alferrikakoa litzateke, gauez zaindariek ez baitute ziega irekitzeko giltzarik, eta ziega irekitzeko giltza bakarra duen zerbitzuburua iristerako beranduegi zatekeen... *beranduegi* ere eufemismoa da), eta zazpietan, goizeko deia egiterakoan hortxe zegoen, dilindan, fruitu heldu bat bezala, fruitu ustel bat bezala esango zukeen Barne edo Justizia ministroak, aho bilo gabe mintzatuko balira.

Nork hil du presoa? Denek eta inork ez, Zesar bezala. Denon artean hil dugu, bakoitzak sastakada bat eman dio. Bakar bat ere ez zen hilgarria, baina denek kendu diote bizitza apur bat.

Batzuetan, heriotzaren arrazoi ofizial lasaigarria bilatzen dugu. Ez dugu onartu nahi kartzelak hil duela, gu ere hiltzeko arriskuan gaudela. Preso-zainek, ziegakideak, auzokoak edota zurrumurruak hedatutako zioa lasaitasunez hartzen dugu:

– Azkenaldian ongi zebilen ba! Baina sei hilabeteren ostean emaztea ikustaldira etorri zitzaion atzo eta dibortzioa eskatu zion.

– Azkenaldian pattal zebilen, eta gainera etxarteko kideek haur bat bortxatzeagatik zegoela kartzelan esaten hasi ziren eta ez du jasan.

– Harrigarria da, nik uste nuen sendoagoa zela, hamar urtekoa erori zaiolako buruaz beste egitea ere...

Auzi medikuak ez du inork eragindako biolentzia aztarnarik aurkitu gorpuan, hildakoak bere buruari egindakoaz gain. Auzi medikuek ez dute aldartea arakatzeko gailurik beren poltsan.

Bezperan normal zegoela ziurtatu dute kartzelariek, ez zitzaiola nabari bere buruaz beste egiteko asmorik.

Bestetan, ordea, iragarritako heriotza baino ez da. Zenbat aldiz ohartarazi genituen Dibisioko burua, erizainak, kartzelazainak, gizonak heriotza baino ez zuela buruan? Heriotzaz baino ez zela mintzatzen? Eta hala ere guk ere ez genuen sinesten gerta zitekeenik. Hitzetik ekintzetarako bidea lasterbide dela inork ekidin ez dezakeen ihesbiderantz.

Sendatu asmoz egiten ari zen exorzismo saioan neskato bat hil omen zuen. Neskatoaren sendiak ez zuen salaketarik jarri, ordea. Gizonak, *xamanak*, ez zuen ulertu nola gertatu zen. Haren gainetik altxatu zenerako deabruak alde eginda zeuden. Neskatoa hilik zetzan, itoa. Basamortuko gizonak ez zuen frantsesez egiten. Sartu berritan ezagutu zutenek nabarmentzen zuten gizonaren gainbehera. Bizarra luzatu ahala burua galtzen joan zen. Azkenean, entzun nahi zuen orori iragartzen zion bere etorkizun hurbila:

– I will die! I will die!

– Be strong! –esaten nion, trakets, adore emateko borondatez.

Moulinseko isolamenduan egarri grebaren infernuan nengoela, behatxulotik so eginda baino ezagutu ez nuen Kamel islamiarrak ate ostetik egunez egun helarazten zizkidan «*atxik gogor*!» adoretsuen oihartzun apalak.

Buruari eragiten zizkion mugimenduengatik *Mp3* gaitzizen krudela ezarri genion gizon hari ingelesezkoek ez zioten emango, noski, niri Frantziaren ipurtzuloan dagoen kartzela haren

ganbaran euskarazkoak ateko zirrikitutik entzuteak ematen zidan indarra eta adorea.

Xaman ohia laugarren solairuko ziega batean bakarrik zegoen, baina ziegan mamuz inguratuta igarotzen zituen hogei orduak ingurukoek arintzen zizkioten nola edo hala. Haiei hitz egiten zien, haiei kantatzen zien. Presokideek erantzuten zioten. Bere egoera kaxkarra zela-eta, agintedun burutsuren batek erizaindegitik hurbilagoko ziega batera lekualdatzea hobe zela erabaki zuen arte. Zer gerta ere.

Biharamunean, auzokoen babesik gabe hogeita lau ordu ere egin ez zituenean, kartzela honetan izarekin egin daitekeen ihesbide bakarretik jarri zuen gorputza dilindan.

Krimen perfektua.

Denbora tarte baten buruan ziegako lanak bukatuta, berriro ere erabilgarri egongo da hilobia.

Kartzelatu berritan, segurtasun neurriak aitzakia, hilero-hilero ziegaz aldarazten gintuztenean, ziega berriko atea irekitzen zidaten aldiro burutazio bertsua izaten nuen: nor bizi izan ote duk orain arte hemen? Zeintzuk sufrimenduk zi-

gortu ote ditek bere arima? Bizirik ala hilik atera ote ditek hemendik?

Ospitalera iritsita, gelako atea ireki zidatenean ere, kartzelako ziega arrunten antzik ez zuen arren, gogoeta bertsua egin nuen: zein lokamuts izan ditu nire aurretik gela hau bete duenak? Presozainek gaueko txandetan argia piztuz orduro esnatzen zutenean, haiei oldartzen zitzaien ala barneko munstroen erasoei aurre eginez gaua begia bildu gabe igarotzen zuen?

Gela txukuna eta zabala zen. Ospitale-ohe handi bat zuen ezkerretara, hormaren ondoko gailu botoidun bati esker igo eta jaitsi zitekeena. Ondoan, oheburuko mahaia, tiradera ugarirekin. Besaulki erosoa eta aulki arrunta nituen esertzeko, gaixoei ohetik altxatu gabe jaten emateko mahaitxo bat ere bazen.

Ezker aldean ere, harraska eder bat eta ispilu handi xamarra zeuden. Ispilua ez zegoen harraska gainean, albo batean baizik. Ispilua aurrez aurre jarri ordez eskuinaldean jarri zuenak bizarra egiteko kokagune erosoena bilatzea izango zuen gogoan, noski. Hormatxo baten atzean zegoen komuna, eserleku estalkiduna, kartzelako-

ak ez bezala. Arropak eskegitzeko tokia eta bi apal zituen armairua ezker horman. Eskuin aldera hormari itsatsitako apalategia. Kartzelatik ekarritako puskak berorietan egokitzeko aski eta sobera nuen.

Gela argitsua. Hormaren zabalera osoa hartzen zuen leihoa sortaldera. Ospitaleko leihoetan ez dago burdin barrarik, kanpoaldea ikusten uzten digun betoi armatuzko erlauntz itxurako egitura baizik, eta kartzelako leihoetako sarearen aldean begi zabal-zabalekoak dira bertakoak. Han ez bezala hemen txoriei ogi papurrak eman diezazkieket.

Atea, ospitaletako ate arrunta; kanpotik giltzaz ixten dena, hori bai. Baina, zorionez, presozainek kartzelako atetzarrak ixten dituztenean presoa hilobi baten barnean dagoela sentiarazten duten morroilorik gabea.

Kartzela-ospitaleko hormen barnean dagoen belardi gozoko parkea ikus nezakeen bertatik. Bi urte luze neraman natura hain eskura ikusi gabe. Omen, aspaldiko ihesaldi saio batez geroztik presoak bertara ateratzea debekatu zuten. Gure ordez ahate talde bat harat-honat zebilen.

Zuhaitzetako hosto berdeetan kulunkatu nuen begirada.

Begiak itxi nituen. Bezperako euriteak eguratsean hedatutako lur heze usaina hobeto sentitzeko. Begiak zabaldu nituen gero, belardi distiratsuaren ikusmiran freskatzeko. Denbora askoan sentitutako sentsazio zoragarrienak ziren. Bizirik nengoela esaten zidaten begiek eta usaimenak.

Sartzerakoan nabarmendu ez nuen apalategi zabal bat zegoen leihoaren luzera osoan. Aulkia hartu nuen eta konturatu nintzen lan-mahai ezin aproposagoa nuela. Burua altxa eta parkea ikus nezakeen. Parez pare nituen lizarrondoak eta etxe-orratz bat. Eskuinaldera gizonen kartzelako hiru dibisioak nituen ikusmiran.

«Hortik nator», pentsatu nuen.

Eta gero, «agian hemen berriro ere idazten hasiko naiz».

Hilabete bateko berreziketa neukanan programatuta. Orduantxe bururatu zitzaidanan nire eskuin eskuko erdiko hatzaren berreziketa ez ezik, literaturarako zaletasuna aspaldian galduta zuten beste guztiak ere landu nitzakeela. Dimi-

triren istorioa idatz niezanakeela pentsatu ninan (geroago gogoratu nindunan *Aulkira-Iltzatuarenaz*, nire burua haren egoeran ikustean). Nork jakin, agian aspaldian barne munduan giltzapetuta nituen istorioak sortzen hasiko nindunan berriro.

Orduan bururatu zitzaidan, agian ez zela guztiz ideia txarra izan ospitalera etorri izana.

Ate zaratotsak esnatu ninduen ametsetik.

– Le repas! –iragarri zidan presozainak.

Atera hurbildu eta begirada zorrotzeko emakume gazte batek eskaintzen zidan erretilua hartu nuen, mahaitxoan jartzeko.

– Merci!

Hogei minuturen buruan, jatekoa bukatu berri nuela, berriro ireki zuten atea. Zaindaria atean gelditu zen eta, lehentxeago bezala, emakume gaztea sartu zitzaidan gelara. Bukatu nuela nabarmena zen arren, erretiluan ekarritako plastikozko ontziak hutsik eta platera garbigarbi bainuen, bazkaltzen bukatu ote nuen galdetu zidan, mahai gainekoak bildu bitartean. Oso sentsazio arraroa zen. Jatetxe batean banengo bezalakoa zen, platera, sardexka eta eda-

lontzia ere eraman zituen. Kafetxoa eta kontua eskatzeko txantxa egitea otu zitzaidan. Zalantza une bat izan nuen, txarrera hartuko ote zuen beldur. Berandu zen, Osasun Laguntzaile Teknikoa bazihoan erretiluarekin. Atea itxi aurretik, nigana itzuli zuen burua,

– À demain –esan zidan irribarrez.

Harrituta, ez nion erantzun. Bihar arte, bai, pentsatu nuen, atea itxi zenean.

Emakume gazte harekin gogoeta egiten hasi nintzen. Kartzelako harreman munduan pertsona orok baitu zerikusia zigor sistemarekin. Horrek harremanak errotik baldintzatzen ditu. Aldiz, OLTak, ospitaleko langileak, beste mundu batekoak begitandu zitzaizkidan, kanpoko mundukoak. Pertsona gisa hartzen ez baninduten ere, haientzat eria bainintzen, ez ninduten ere presotzat hartzen; atxiloketaz geroztik jasandako mendekotasun harremanetik babes harremanera lerratzen zen haiekiko harremana berri egin zitzaidan. Tarte gehiena isolamendu eta bakartze egoeran pasatako ia hiru urteko kartzelaldiaren ostean, bereziki preziatu nuen. Pertsonagandik pertsonaganako harremana zelako, ia.

Izena ere ez nekien emakume hura biharamunean berriro ere ikusiko nuela jakiteak nigan sortu zuen irrikaren gainean hausnartzen gelditu nintzen, telebista pizteko edo libururen bat irakurtzeari ekiteko gogorik gabe. Ekarritakoen artetik kaier handia hartu, zabaldu eta idazteari ekiteko tentatua egon nintzen ere une batez. Ez nuen halakorik egin, ez zen oraindik idazten hasteko tenorea nonbait. Oraindik zutik nengoen.

Leihora hurbildu eta parkera begira jarri nindunan. Ikusmira eder eta lasaia. Zuhaitz tantaien hostoek eguzkiarekin eta haizearekin jolasean itzalgune aldakorrak sortzen zitiztenan. Haurtzaroko eskola-urteak etorri zitzaizkidanan gogora.

Amak ezkaratzera lagundu gintinan arreba eta biok egun hartan. Ez dinat gogoratzen egunero-ko ohitura ote zuen ala salbuespenez egin zuen.

Garai hartan hiriaren erdiguneko eraikin bateko 6. solairuan bizi ginen. Hondartzara joateko errepide bakarra gurutzatu behar bagenuen ere, etxeak itsasoari bizkar ematen zion. Gure lehen etxea zen. 1964a izango zela iruditzen zait.

Amak etxeko atea irekita utzita, igogailu kirrinkarian jaitsiko ginen hirurok, eskuarki kalerakoan igogailurik erabiltzen ez genuen arren. Ez genuen aita agurtzen eskolarakoan, ni jaioberritan atxilotu zutenez geroztik aitarik gabeko etxea izan baitzen gurea sei urtez. Aitak ezin gintzakeen eskolara eraman, aitarik gabeko jatorduak egiten genituen, aitarik gabeko gurasoen gelako gurasoen ohean egiten zuen lo amak, bakarrik. Aitarik gabeko amaren bakardadea. Aita eta ama biak batera izan behar zuen gure amak. Frankismo beltzean.

Begiak ireki ditut, oroitzapenaren kimuari gehiago hazten utzi aurretik. Orain artean isildutako min horren barne zauriaz jabetu naiz bat-

batean. Aitarik gabe pasatako urte, hilabete, aste, egun, ordu eta segundoen isuriak zabaldutako arrakalak hor daude, begien inguruan sortu zaizkidan zimurren antza dute, idortuta, itsasora gehiago urik eramaten ez duen delta desolatu bat bezala, minaren zornea garbituko duen malko uholde baten zain.

Artzain Onaren katedralaren ondoko etxebizitza batean zegoen gure ikastola, izenik behar ez zuen ikastola, izaki bakanek behar ez duten antzera. Lehen solairuan egon behar zuela iruditzen zait, ez dut-eta ez igogailu ezta eskaileratan gora igotzearen nekerik gogoan. Gela bakarrean biltzen gintuzten adin guztietako haurrak, denak batera baina ez nahasian. Errezatu egiten genuen aurrenik, eta nik Joxemi izena zuen mutiko batek hankak jartzeko modua maite nuen eta bere jarrera imitatzen saiatzen nintzen, hanka bat pixka bat tolestuta eta gorputzaren zama guztia bestearen gainean jarrita, besoak bularraldean antxumatuta.

Ilunpetsua oroitzen dut ikasgela. Eguzkirik gabeko egunetan ere erridau eta leiho sareten atzean ezkutatuta.

Behin, gela guztiz ilundu eta film mutuak ikusarazi zizkigun andereñoak: Laurel eta Hardy. Denontzako aulkirik ezean batzuk lurrean esertzen ginen. Mordoxka bat ginen, ez dut gogoratzen zuzen zenbat, agian artean zenbatzen ez nekielako.

Eskutik helduta egin ohi genuen etxetik ikastolarako bidea arrebak eta biok. Amak ezkaratzeraino lagundu gintuen egun hartan hotz egiten zuen. Kaleak hutsik zeuden. Alde banatara begiratu zuen amak aurrena. Gero berokien botoiak leporaino lotu zizkigun, ile adatsa atondu zidan eta listuz bustitako paineluz gosariko aztarnaren bat garbitu zidan aho ertzetik. Ez nuen batere maite izaten paineluaren lakarra azalean. Gugana makurtuta argibideak eman zizkigun:

– Norbaitek nora zoazten galdegiten badizue izebaren etxera zoaztela esan, ados? Ez esan ikastolara zoaztenik.

– Bai, Ama! –erantzun genion biok batera.

Ondoren errepide nagusia gurutzatzen lagundu zigun eta presaka igoko zen etxera, gure balkoitik ia Justizia Jauretxeraino ikusten baitzen kalea.

Egunero egiten zigun gomendioa ote zen? Egun berezia ote zen hura? Ez dut gogoratzen. Nagoen egoeran, data finkatzen saiatzeko garai hartako grebaren bat edo gertakari bereziren bat denboran kokatzeko baliabiderik ez dut. Agian, besterik gabe, ama gaixorik zegoen egun hartan eta ez zuen guri ikastolara laguntzeko indarrik. Edota beste zerbait presazko egin behar zuelako ez zuen izan gu ikastolara bakarrik bidaltzea beste erremediorik.

Edonola ere, amaren kezka eta gure urduritasuna gogoratzen ditut. Arrebak eta biok kale ertzeko zuhaitz soilduek udazkena edo negua ote zen asmatzen uzten ez zuten egun hartan eskola-zorrotxoa, altxorraren kutxa, eskuan generamala ikusten dut orain, amaren begi oroimena nitaz jabetu balitz bezala.

Ikastolara bidean kaleburu bat gurutzatzeko argia gorrira aldatzeko zain geundela hurbildu zitzaigun gizona. Janzki eta gorbata ilunak zeramatzan gabardina beixaren azpian. Guri mintzatzeko makurtu egingo zen. Kapelarik ez diot oroitzen. Bizarrik ere ez aurpegi beltzaranean.

Nora gindoazen bakarrik galdetu zigun gazteleraz.

Nik, mutu, arreba nagusiari utzi nion gezurra esateko ardura.

Ikastola kokatuta zegoen atariraino lagundu zigula bururatu zait. Izeba zenbatgarren solairuan bizi zen galdetu zigula ere eta lagunduko zigula gora.

Gurekin igoko zen, txirrina joko zuen eta irekitzera aterako zen gure andereñoari esango zion bere *ilobak* aurkitu zituela kalean bakarrik eta laguntzea erabaki zuela. Errieta modukoa egingo zion, haur txikiak ez direla horrela kalean bakarrik ibiltzen utzi behar esanez. Arriskutsua zela. Eta etxe barruan entzuten zen haur txilio eta jolasen zarata entzunda, hainbeste *ilobaren izeba* izanda emakume zorionekoa izan behar zuela ere gehituko zion, agian.

Haurtzaroko hausnarketak eten zizkidanan ateko zaratak. Ospitaleko araudiaren berri ematera zetorkidan kartzelazaina. Nire ustez, batez ere pizti habia berrian goxoan ote zegoen ikustera etorri zunan.

Egunean *promenada* txanda bakarra izango nuela jakinarazi zidan. Goizez edo arratsaldez, haiek erabakitzen zutela noiz. Goizean atea irekitzean galdetuko zidatela atera nahi ote nuen ala ez, eta orduan jakingo nuela *promenadaren* ordua, ez lehenago. Ordu eta erdi inguru iraungo zuela.

Eguerdia pasata zenez eta egun hartako txanda goizez izan zenez, biharamunera arte ez nintzela gelatik aterako esanda alde egin zuen.

Ospitalera abiatu aurretik erabakia nuen, espetxeratu nindutenez gero hasitako kirol entrenamendua bertan behera ez uzteko eginahalak eta bi egingo nituela. Hatz baten hausturatxoa ez zela eragozpena izango urtero patioko bakardadean egiten nuen nire *Behobia-Donostia* partikularrerako entrenatzen jarraitzeko.

Hona abiatu aurretik esan zidaten etxartea txiki samarra izan arren, 50 metro inguruko perimetroa besterik ez, korrika egiteko modurik izango nuela. Baina ez ziren etxartearen tamaina eta denbora mugatua izango korrikaldirako zailtasun bakarrak. Etxartekide nortzuk izango nituen ikusterakoan jabetuko nintzen ez zitzaidala ohi bezain gozagarria izango korrika egitea.

Biharamunean, OLT bikotea etorri zitzaidan gosaria ematera. Bezperako emakume azal zuria eta ordura arte ikusi ez nuen azal beltzeko gizaseme bat ziren. Ogi opiltxoa, gurina eta erreximenta zekarkidaten erretilu batean. Kafea, txokolatea edo tea eskaini zidan aukeran emakumeak. Kafea, eskatu nuen, harrituta, ordura arte ezagututako kartzela guztietan kafe hutsa debekatuta baitzegoen. Ordura arte behin edo bitan baino ez nuen hartua kartzela guztietan gosaritarako ematen diguten %60 txikoria eta %40 kafe nahasketa urgarridun zorrotxoa.

Gizonak kea zerion kafea zekarren pitxar batean; emakumeak esne beroa beste batean. Katilua goraino bete zidaten. Lau urtean egin ez

nuen moduko gosaria egin behar nuela konturatu nintzen.

Zerbitzatzen ninduten bitartean haien laneta-ko zertzeladez ari ziren OLT biak, beren txanda-ko lanak nork egin erabakitzen. Gizonak, nire gela egingo ote zuen galdegin zion emakumeari:

– Véronique, tu t’occupes de cette chambre?

– Oui, Fred, pas de problème, mais n’oublie pas que tu dois nettoyer les douches avant neuf heures.

«Hara! Veronique! Nolako kointzidentzia, Dimitriren arrebaren izen bera dik. Handia izango lukek gero Dimitriren arreba izatea. Hori ezinezkoa duk baina», pentsatu nuen.

Gosari banaketa amaituta OLTek alde egin zutenean, atean zaindari izan genuen *giltzariak* iratzarri ninduen nire ameskeria literarioetatik.

– Promenade?

– Oui.

– Dans une demi-heure.

Ordu erdi barru etorriko ziren etxartera irteteko atea irekitzera. Banuen aski denbora gosaltzeko, jaikitakoan komunekoen ostean bizarra egin eta kirol jantziak jantzi bainituen. Gosaldu

bitartean, beti bezala astebeteko atzerapenez jaso berri nituen egunkariak irakurtzen egon nintzen.

Ordua iritsi zenean atea ireki zidaten eta eskuan ur botilatxoa neramala irten nintzen korridorera.

Aurrena, bi makuluren gainean ozta-ozta zebiltzan lauzpabost eri ikusi nituen. Korridore buruan, igogailuaren ondoan, gurpil-aulkietan jarritako taldetxo bat genuen zain. Bazegoen baita ere bere bi zangoen gainean ni bezala zebilenik, baina haietako inork ez zuen kirolean aritzeko itxurarik. Batek ezkerreko eskuko hatz guztiak metalezko uztarri baten bidez tenkatuak zituen; beste batek aurpegi erdia bendaz estalia, kolpe edo erredura izugarriren bat babesteko, ezin jakin; bazegoen esku bat igeltsuan bilduta zuena eta baita besoa ukondoraino igeltsatua zuen beste bat ere. Gorputzez sano ziruditenek ibileran ageri zuten matxura. Dimitrik hain ederki antzeztutako *barraskilo-dortoken* espeziekoak ziren. Denak zebiltzan mantso, oinak arrastaka bezala. Hogeiren bat izango ginen guztira.

Kartzelak berez mugimenduak eta bizitza bera mantsotzen baldin baditu, ospitalekoari kamera geldian errodatutako film baten antza hartu nion. Dena kotoien artean bildua balego bezalakoa zen.

Kanpoko behatzaile bati, zauritu multzo haren erdian, nire itxura osasuntsua iraingarri begitanduko zitzaiokeen. Ni bederen lotsaz nengoen, eskuin eskuko erdiko hatza zut, denak popatik hartzera bidaltzen ari banintz bezala, kirol oinetako berri-berriekin eta kirol jantzi dotorea soinean.

Igogailuaren inguruan elkartu ginen, presozainak elbarriak igogailura sartzeko eta hankak sano genituenak eskaileratan behera abiatzeko aginduaren zain.

Heldu berriari eskaintzen zaion jakin-minez betetako harrera mesfidatia egin zidaten kide berriek. Elkarri eskua estutuz, hitz adeitsuz, hurkoaren osasun egoeraz kezka agertuz, ezagun zaharren arteko betiko diosalak egiten zituzten bitartean, ni ez ninduen inork agurtu; denek, zeharka, begiratzen ninduten arren.

Bat ezagun nuen ordea: *Aulkira-Iltzatua*! Ezusteko galanta izan zen urtebeteren buruan bertan aurkitzea. «Ez dute askatu, beraz», pentsatu nuen. Horrek esan nahiko zuen segur aski salaketa jarri ziela. Ziurra zena zen epaileren batek bere egoera espetxean egotearekin bateragarria zela ebatzi izana; horretarako kartzela-ospitalean denbora luzez atxikitzea beste erremediorik ez bazuten ere. Gerora jakin nuen nire ustea ustela zela. Askatu, askatu omen zuten, baina baita handik gutxira lapurreta bateko gaizkide izateagatik atxilotu ere. Bera omen zen lapurreten ostean, elbarrientzako bere autoan gidari, erretirada ziurtatzeaz arduratzen zena.

Lehen bezalatsu zeukan burua, okertuta, eta ezkerreko hanka oraindik ere uhal batez aulkira lotuta zeraman. Gurpil-aulkidunen artean bere kabuz ibil ez zitekeen bakarra zen. Besteak erroberei eskuekin eraginez edo motor bidez zebiltzanei norabidea zuzenduz zihoazen artean, bere aulkia beste preso batek bultzatzen zuen. *Aulkira-Iltzatuak* begirada galdua zuen eta ezkerreko eskua ere indarge zetzan bere magalean. Hobera ez, baizik txarrera egin zuenaren trazak

zituen. Nabarmena zen ez zela nirekin gogoratzen.

Etxarteko kide guztien buruan nor ote nintzen galdera egongo zela uste nuen orduan. Oker nengoen. Ni iritsi aurretik iragarria zien kartzelazain presturen batek nire etorrera. Hartara, deus esan ez bazidaten ez zen izan ezezaguna nintzaielako; ez eta ezaguna izanik nolabaiteko beldur edo begiruneagatik. Haien barne kodea errespetatzen ari ziren, geroago etorri berriekin nola jokatzen zuten ikusi nuenean ulertuko nuenez. *Erregeak* bere ondora deitu arte itxaroten ari ziren, *Erregearen* oniritziaren zain zeuden, egin behar zidaten harrera nolakoa izan behar zen jakiteko.

Artean ez nekien gurpil-aulkian zetzan gizon potzolo hura zenik *Erregea*. Ez nuen gaixoen arteko hierarkia zorrotzaren berri ere. Eta oso oker nengoke haiek baino gehiago nintzela uste izango banu.

Atzekoz aurrerako antolaketa zeukaten. Egoera fisiko larriena zutenak jendarte hartako piramidearen erpinean zeuden. Alegia, gurpil-aulkietakoek osatzen zuten aristokrazia, haiek ziren

zaldunak. Ondoren kokatzen ziren makuludunak, bigarren mailako *jauntxoak*. Eta azkenik, *herri xehea* osatzen genuen bi zango osasuntsudunek.

Sail bakoitzaren barnean ere norberaren eritasunaren larritasunak agintzen zuen egokitzen zitzaion kokalekua. Esan beharrik ez dago ni nintzela hierarkia hartako azken putza; ez bakarrik iritsi berria izateagatik, antzinatasunak ere nolabaiteko gradua ematen baitzuen. Nire garuna zer moduz zebilen ikertu bitartean bederen, ni nintzen denetan osasuntsuen ageri zena.

Antolaketa hartatik at zeuden beren ziegetatik ateratzeko gai ez ziren eri larriak. Alabaina, haiek ziren errespetatuenak, *Jakintsuen Aholku Batzorde* moduko bat osatzen zuten eta, gerora ongi ikasi nuenez, *Erregearen* zernahi erabaki (presoei ezarri beharreko zigorrei buruz edo gela-aldaketei buruz) behin-behinekoa zen haien onespenik gabe.

Presozainak agindu zigun noizbait beherantz abiatzeko. *Hiru* eta *lauoindunak* eta *gurpildunak* igogailuan sarrarazi bitartean, mailak hirunaka jauzi eginez jaitsi nintzen *barraskilo-dortokak* eta

mainguak atzean utzita, besteekin batera jaisteko agintzen zidan presozainaren aginduei entzungor. Txikitako jolasa genuen, igogailuarekiko norgehiagoka.

Txikitan bezala behean nengoen igogailuaren atea zabaldu zenean. Barnean zetozenen begirada hotzek pixka bat izutu ninduten. Herren eta ezinduen bekaitza nabarmena zen. Herren baten irribarre gaiztoak eman zidan zer pentsatu gehien.

Korrikaldi asmoa bertan behera uztekotan egon nintzen orduantxe. Eskailerak lasterka jaitsi izanagatik halako gorrotoa bazidaten, zer ez ote zen izango beraien muturren aurrean korrika hasiko nintzenean. Hobe, bai, agian, une hartako bihozkadari kasu egin izan banio. Nahiz eta, etxartean ezinduen aurrean korrika egin izan ez banu, oraindik nire bi zangoen gainean ibiliko nintzenik ziurtatzeko modurik ez dudan.

Etxartea ospitaleko eraikinaren arteko zuloa da. Etxartera irteteko lauzpabost maila jaitsi behar dira, badago gurpil-aulkidunontzako arranpatxoa ere. Izkina batean hesiz babestutako kiribil-eskailera bat dago, ate herdoilduaren

inguruan hazitako belar txarrek adierazten dutenez inork erabiltzen ez duena, auskalo zergatik. Lurra harri-txirbilezkoa da, euria egiten duenean putzu bihurtzen diren sakonune batzuk badaude, belar ihar batzuk ere bai han-hemenka. Kamamila iruditu zaidan lore bat hazten da udan alderik hezeenean.

Zementuzko oinarri eta zurezko eserlekudun bankuak daude, higatuak eta zahartuak, etxartearen zirkuluaren alde batean bi eta pixatokiaren ondoan, kiribil-eskaileraren aldean, bestea; hiru guztira. Hirutik bik galdua dute bizkarra bermatzeko taula.

«Hemen gaude, Anoetako estadioan!» esan nuen nire baitarako.

Korrikaldiari ekin aurretiko ohiko eginkizunak bete nituen: lekurik aproposena iruditu zitzaidan kiribil-eskaileraren ondoko txokoa hautatu nuen galtza luzeak kentzeko, eta burdin hesiaren atean eskegita utzi nituen; giharrak luzatu nituen ondoren; ur botilatxotik tragoxka hartu eta kronometroa zeroan zegoela baietsita, korrika txikian abiatu nintzen.

Ez nuen asko gozatu ordu erdi besterik luzatu ez zen korrikalditxoan. Etxartea txikia izateaz gain, korrika egiteko bidea estua zen eta *promenadan* zebiltzanen artean sigi-saga ibili behar izan nuen, baina batez ere ezinegona sortu zidan, bazter batean zeuden gurpil-aulkikoen aurretik igarotzen nintzen aldiro elkarrizketa eten eta niri begira-begira jartzen zitzaizkidala ohartzeak.

«Lehen eguna da. Ez da harritzekoa denak niri begira-begira egotea, ni bainaiz berritasuna. Ez dut uste eguneroko ikuskizuna izango dutenik ospitaleko etxartean *eri* bat korrika ikustea. Ohituko dira», pentsatu nuen.

Ez zuten azkar batean ohitzeko aukera izango ordea. Biharamuneko korrikaldia ere ez baitzen luzeagoa izan.

Biharamunean, etxarte-aldia hasita zegoela ekarri zuten Dimitri. Operazio osteko susperraldian hobera egin zuenez, gurpil-aulkian eraman zuen etxartera bata zuridun batek. Gurpil-aulkiaren atzealdean kokatutako haga batetik zintzilik zegoen gazurezko poltsatxoa besoko zainera orratz batekin lotuta. Pijama urdina soinean, gal-

tzen eskuineko aldea altxatuta zekarren, hankan operazioak utzitako aztarna odoltsuak agerian.

Bata zuridunak atetik hurbilen zeuden zurezko eserlekuetako baten ondoan aparkatu zuen Dimitri, makuludun batzuen ondoan, gurpil-aulkidunen taldetxoa biltzen zen gunetik urrun. Bere estatusa ez zen izango argia nonbait.

Korrikaldia eten egin nuen hura ikustean. Galtzak utziak nituen txokora hurbildu nintzen, poltsikoak arakatu eta gelako armairuko zokoan aurkitu nuen zigarreta bat atera nuen.

Ez zidan asko iraungo ezagun batekin elkartzearen pozak. Agurtzera hurbildu nintzaion. Nola ez, kontakizunaren amaiera entzuteko aukera izango nuelako pozik.

– Eup, Dimitri!

Etxartekideek harrituta begiratu ninduten, bi egunetan ez bainuen inorekin harremanik izan, ezta kortesiazko esku emate eta ohiko egunonak opatzeko. Dimitrik aldiz ikusi gabe begiratu ninduen.

– Nahi al duk *garretzi* bat? –proposatu nion.

– Ez al dakizu ez dudala erretzen! –ihardetsi zidan oihuka.

Denak adi jarri zitzaizkigun.

– Dimitri...

– Nor zara zu? Nor zara zu? –hasi zitzaidan bere onetik aterata.

Denak hurbildu zitzaizkigun pixkanaka. Aurrena bi zango osasuntsudunak, gero makuludunak, gurpildunak azkenik, aulkien motortxoari eraginez. Dimitrik gazurezko poltsa dantzarazten zuen bere mugimendu urduriekin.

– Dimitri, baina... –saiatu nintzen lasaitzen.

– Ni ez naiz Dimitri –esan zidan bat-batean lasaiturik baina oraindik kopetilun–. Ni ez naiz Dimitri. Nor da Dimitri?

Saiatu nintzaion azaltzen ospitalerako harrera egin aurretik eduki gintuzten itxaronziegan ezagutu genuela elkar.

Nire azalpenei adi-adi nituen denak.

Elkar ezagutu genuenean kontatu zidanaren berri ematen hasi nintzaion, arreba Veronique aipatu nion, etxetik kanporatu zuen ezkonanaia.

Orduantxe erreakzionatu zuen, ezagutu banindu bezala, begiak zabal-zabal, besoa luzatu zuen eta hatzarekin seinalatu ninduen.

– Bai, bai, orain badakit nor zaren: Arazo Jauna! Arazo Jaun sasikume urde zikina! Arreba Veroniqueren hiltzailea! Akabatuko zaitut!

– Dimitri! Mikel nauk! Ez al duk gogoratzen? Euskalduna, euskal preso politikoa.

Dimitrik ez zidan entzuten, ordea.

– Arazo Jauna! Arazo jauna! Hiltzailea! Hiltzailea! –errepikatzen zuen gero eta urduriago, gurpil-aulkitik jaikitzeko eginahalak egiten zituen bitartean.

Nire inguruan zirkulua itxi zuten etxartekideek, ez nezakeen alde egin. Denei begiratzen nien, laguntza eske, nire azalpenak entzungo zituen norbaiten bila, zentzu pixka bat izango zuen norbaiten bila.

Muturbeltz nituen inguruko guztiak. Horretatik ez nintzela onik aterako pentsatzen hasi nintzen, Marseillako Baumettesera iritsi berritan jendez mukuru zegoen etxartean ukabila altxatuta Eusko Gudariak abesten hasi eta leihoetatik nazitzat hartu nindutenean uste izan nuen bezala. Marseillakoan, ukabila eta faxisten agurra bereizten zekien banku lapur batek estualditik ateratzen lagundu baninduen, ordukoan etxarteko

ateak zabaldu eta bi bata zuridun eta lauzpabost presozainen etorrerak atera ninduen Dimitrik sortutako estualditik.

Lasterka hurbildu ziren gugana. OLT batek hartu zuen Dimitriren aulki-gurpildunaren kargu eta etxartetik atera zuen. Alde egiterakoan begiratu zidan moduagatik argi zegoen ni hartzen ninduela gertatu zenaren erantzuletzat. Beste bata zuridunak azaldu zigun, operazioa ondo atera bazen ere, Dimitrik burua nahastua zuela ketaminaren ondorioz eta ez zituela gauzak ondo gogoratzen; hobe zela bakarrik eta lasai uztea gizona. Presozainek taldetxoa sakabanarazi zuten eta norbera bere txokora abiatu zen.

Korrikaldirako gogorik gabe, galtza luzeak janztera abiatu nintzen. Hantxe egon nintzen etxarte-aldia amaitu arte, mugitu gabe. Beste guztiek bazuten puska baterako hizketagaia. Nire ondotik igarotzean marmarraren doinua apaltzen zuten denek. *Zaldunak* begira-begira nituen, irribarre okerrez, iruditu zitzaidanez. Azalpenak eman beharko nizkien, gogorik ez nuen arren, Dimitriren ezkonanaia ez nintzela argitzeko, eta nekienaren arabera haren arreba

Veronique bizirik zegoela, eta hilda zegoena ordea, hain zuzen ere haren hilketa leporatuta baitzegoen kartzelan Dimitri, hark Arazo Jauna deitzen zuen bere ezkonanaia zela.

Makuludun bat hurbildu zitzaidan eta Dimitri-ri eskaini nion zigarreta eskatu zidan; eman nion.

«Akabo Dimitri», pentsatu ninan, «ez dut bere kontakizunaren amaiera ezagutuko».

Eta baita ere, «zerk erakartzen nau Dimitri-rengana?».

Beti iruditu zaidan susmagarri mediku eta erizainen adeitasuna. Ahotsean kloroformoa balute bezala hitz egiten diten. Irudipena izaten dinat piztia hiltegira daramatenek ez ote duten ahots doinu goxo bertsua erabiliko.

Nork maite du ospitalean sartu ahala sudurzuloak erasotzen dituen eta aldi berean gaixotasunaren mozorro eta salatari den medikamentu usain sarkor hori? Inork ez. Segituan buelta eman eta etorri bidetik alde egin nahi genuke. Alabaina gaixoari bisita egitera etorriak gara. Guk jango ditugun bonboiak oparitzera, usaindu ezin dituen loreak eskaintzera, irakurriko ez dituen edo irakurri ezin dituen aldizkari eta liburuak ekartzera. Ospitalera etortzeak sortzen digun ikara gaindituta etorriak gara, maite dugun pertsona ikustera edo, behartu antzean, konplitzeko.

– Zer moduz zaude?

Hark, oxigeno maskara kenduta:

– Ondo, ondo –ahul batez erantzuten digu.

Nola egongo da ba? Bizirik. Eta ez da gutxi.

Nola egongo da ba ondo? Bertatik alde egiteko gogoz, hori bai. Baina, ondo? Ez, ez, sekula ez. Ezinezkoa baita ospitale batean ondo egotea.

Erizain, mediku eta Osasun Laguntzaile Teknikoen lan baldintza eskasei buruz zerbait esaten hasten nintzenean, Xabierrek hitza kentzen zidan umore txarrez galdetzeko ea zein sindikatutako bazkide nintzen. Ospitaleko langile orori bere atsotitz maiteenetakoa zen *gustuko aldapan, izorra hadi* zakar bat eskainiz amaitutzat ematen zuen hizketaldia.

Iruditzen zait harira ez zetozenean ere erabiltzen zituela Xabierrek atsotitzak. Nahierara eraldatuz gainera. Ez dakit memoria arazoengatik ala nahita egiten zuen. Edonola ere, naufragoaren buiak ziren beretzat. Elkarrizketaren ibaian ez itotzeko erabiltzen zituen heldulekuak. Iragan galdu batekin lotuta mantentzen zuen zilborheste ahula osatzen zuten Xabierrek oroitzen zituen esaera zahar horiek, perla gehienak galdutako iduneko higatua.

Eta nik Xabier bera izan dut ospitaleko naufragio honetan buia. Kartzelan ezagututako *gremlin*, *pirata* eta bestelako piztien pasadizoak

noizean behin kaier batean biltzen nituen bezala hasi nintzen Xabierrek esaten zizkidanak idazten.

Gutxira ohartu nintzen, Xabierrengandik beste inorengandik jaso ez nezakeena jasoko nuela. Eta, horrela, kaier berezi batean hasi nintzen idazten Xabierrekikoak.

Kaier hura hornitzen hasi ahala nabarmen egin zitzaidan Xabierrek kontatzen zizkidanak sailkatu behar nituela, ulergaitz zitzaizkidan kontu zaharrekin batera bere haurtzaroko pasadizoen berri ematen baitzidan batzuetan, eta gerra garaian bizitakoak beste batzuetan, denak nahas-mahas.

Hartara, hasieran kaier bakar zena, *Xabierren Kaiera*, alegia, biderkatu egin zen: *Xabierren Gerrako pasadizoak*, *Xabierren Atsotitzak*, *Xabierren Haurtzarokoak*, *Xabierren Kontu ilunak*...

Ez dut uste konturatu zenik zenbaterainoko garrantzia izan zuen nire ospitaleko bizitza bakartian. Oraindik ere, gure artetik desagertu den arren, berebiziko garrantzia izaten jarraitzen du Xabierrek niretzat. Beragatik ez balitz aspaldi

egingo zukeen-eta nireak. Erkide baten laguntasunaz gain, Xabierrek ospitale honetako arriskuen berri ematen baitzidan. Maiz ohartaraziz zeri eta nori egin behar nion kontu, noiz egin behar nuen gaubeila ustekabeko ustezko eraso baten zain. Erne egoteko esaten zidan. Ez zuen asko asmatzen, baina berari esker kartzelaren zamapean lokartzea ekidin nuen. Erne mantentzen irakatsi zidan.

– Kartzela frontea da, Mikel! Kartzela ere frontea da! Ez lokartu! Hemen ere batailak irabazten dira! Hemen ere batailak galtzen dira!

Ez zegoen ados beste presoekin nuen harreman motarekin. Bere ustez euskaldunok euskaldunokin baino ez genuen izan behar harremana.

– Gu ez gaituk hauek bezalakoak –esaten zidan, *arruntak* deitzen zituenak irainduz.

Errieta egiten zidan arruntekin tratu gehiegi nuelakoan, eskuzabalegia nintzelakoan. Lapur, gezurti, salatari, bortxatzaile eta hiltzaile hustzat zituen denak.

Ospitale honetan gauzkaten presoei buruz hizketan hasten nintzaionetan zakar erantzuten zidan:

– *Ero txarrenak ez daude giltzapean*.

Zaindariei buruz ari ote zen? Erizain eta medikuei buruz? Kanpoko munduan libre bizi diren gaizkileei buruz? Galdetu arren ez zidan zehaztu nahi izaten.

– Non daude ba horiek, Xabier?

– Giltzapean ez behintzat!

Kaierak bete ahala ohartu nintzen, erabakitako sailkapena mantentzea gero eta zailagoa zitzaidala. Izan ere, eta errazena zirudienetik hasita, atsotitzak bere horretan transkribatzea ez zen aski, atsotitza zein testuingurutan atera zuen ere aipatzea beharrezkotzat jo bainuen.

Atsotitzen Kaierean atsotitza hizki larriz apuntatzen nuen eta hizki txikiagoz ematen nuen testuinguruaren berri. Kontua da, atsotitza bota zueneko kontakizuna, atsotitz eta guzti, beste kaier batean, adibidez *Gerrako pasadizoak* izenekoan idatzi behar nuela gero. Lan bikoitza.

Buruhauste handia izaten nuen Xabierrek atsotitzez apaindutako gerrako pasadizo baten kontakizunaren erdian bere haurtzaroko gertaera bat oroitzen zuelako, edota «kontu ilun» deitzen nion horietako bat ateratzen zuelako, nire

ustez kontatzen ari zitzaidanaren harira ez zetorrena.

Banatutako kaierek, menditik jaisten diren errekastoak ibai berera bezala egiten zuten, guztiek bakar batean berriro bil nitzan eskatuz.

Batzuetan Xabierrek bere gelako isilean kontatutakoa bostetan banatzen nuen eta gero *Kaier Nagusia* deiturikoan idazten nuen kontakizun osoa. Alderantziz egiten ez nuenean, osotasuna lehendabizi eta gero sailkapena.

Kontua da, arlo bateko kaierean kontakizun osoaren atala idazten hasten nintzenean ez nuela jakiten non moztu behar nuen, nola eta noiz banandu haurtzaroko oroitzapen horren kontakizuna eta gerrako oroitzapenaren artekoa.

Gaua kaieretan idazten pasatu eta gero, biharamunean Xabierrekin berretsi nahi izaten nuen berak kontatutakoa leialki idatzia nuela. Eta orduan izaten zen akabua.

Bezperan berak kontatutakoaren transkripzioa irakurtzen nionean, txalo egiten zidan, edo irribarre zabal eta horzgabea eskaintzen zidan, pozarren.

– Mikel! Hi haiz hi! Hik daukak hik irudimena! Nola egiten duk halako ipuin politak asmatzeko!

– Xabier... –hasten nintzaion protestan, alferrik.

– Horren segida idatzi behar didak biharko.

Eta gelara itzulita, bezperan berak kontatu zidanari segida asmatzen nion. Gauaren erdia idazten pasatzen nuen, goizean irakurtzen nionean bere gustukoa izango zen ziurtasun osoz idazteak ematen duen plazera aringarri nuela.

Xabier desagertu zen biharamunean, aingeru guardakoaren babesa galdu izan banu bezala, bizitza «zilborraren altueratik» ikustera kondenatu nauen Istripu Handia izan nuen. Eta bera ezagutu aurreko bakardadera itzultzeaz gain, egunez ospitaleko korridoreetan nabilenetan edota gauetan loak ezin hartu sabaira begira nagoenetan, oraindik ere nire egoerak okerrera egin dezakeen irudipena izaten dut, nire bizitza dela ospitale honetan arriskuan dagoena.

Ez dut jada arriskuez ohartaraziko nauen inor, eta Xabierri esker mantendutako lehengo ernetasun hori galtzen ari naizela ohartua nago. Hau borroka frontea dela behin eta berriro oroi-

taraziko didan inor ez dut, ezpada ispiluan ikusten dudan neure burua.

Bere kaierak begiratzen ditut, lan amaigabe bat bezala, inoiz amaitu ezingo dudan lan bat bezala. Hutsunez betetako iragan galdu bat bezala.

Xabierrek eta biok elkar ezagutu genuen egun hartan, OLTak, ohiko gela garbiketa-lanak bukatuta alde egin zinan.

– Au revoir –esan zidan alai Veroniquek.

Presozaina beste nonbait ibiliko zen une hartan, nire gelako atea irekita gelditu baitzen. Niri zegozkidan segurtasun arauek agintzen zuten nire ateak beti itxita egon behar zuela, preso arruntenak ez bezala.

Ohean etzanda nengoen. Hasieran, liburua alde batera utziz, presozaina noiz agertuko ateari begira geratu nintzen harrituta. Zorua lehortueta ez zetorrela ikusirik jaiki egin nintzen. Betaurrekoak ipini nituen, txankletak jantzi nituen, xukadera hartu nuen. Sudurra atera nuen aurrena, esateko modua da, ate zirrikitutik. Periskopioa hurrena, hau ere esateko modua da. Ez zegoen azal zuririk pasabidean, ez eta azal beltzik, ez azal marroidunik. *Giltzarien* arrastorik ez, alegia.

Dutxarako itxurak egin nituen pasabidean aurrera ausarki eginez. Eguzkiak pop-arteko diseinuak marrazten zituen lainoen eta leihoetako erlauntz egituren laguntzaz zoru berdean. Aska-

tasun antzekoa gozatzen nindoan, poliki-poliki, korridorean barrena. Inoren baimenik gabe, inork irudikatu ezin ninduen lekuetatik nenbilen. Atxilotu nindutenez geroztik lehen aldiz haien zaintza estutik kanpo. Sabelean zirrara, edozein unetan «nora zoaz!» zakar bat entzuteko prest nindoan aurrera.

«Dutxara...» erantzungo nion, sekula gaiztakeriarik egin ez duenaren irribarre xaloa eskainiz eta xukadera eta txankletak seinalatuz.

Kartzelazainaren oihuaren ordez korridorearen erdian zur eta lur utzi ninduen kantu bat entzun nuen. 251. gelaren barnetik zetorren euskal kantu bat zen. Ahots apal eta sentikor batek *Txori erresiñula* kantatzen ziharduen. Agure baten ahotsa zen. Erdi irekita zegoen pareko atea bultzatu behar nuen derrigor. Atea irekitzen ari nintzela irudikatu nuen barruan aurkituko nuena. Ohe gainean eserita, hankak dilindan, buruan txapela, agure bat zegoen. Irribarre goxo, begi urtsu, lepoko azal zimelak kantuaren erritmoan dardaran. Begiradarekin gonbidatu ninduen, bere alboan eser nendin. Kontu handiz eseri nintzen, malgukien zaratak une magikoa

etengo zuen beldur banintz bezala. Abestia bukatutakoan malko bat xukatu zuen.

Hortxe geunden biok, isilik, erridauek babestuta, erdi ilunpetan. Noizean behin pasabidean bata zuridun bat igarotzen zen, gela barrura begiratu gabe. Lasai nengoen, geunden, *urdinik* agertzen ez zen artean.

– Euskalduna zara? –galdegin nion nire ohiko trebezia eskasarekin.

– Zer izango nauk ba!, errusiarra?

– Zer egiten duzu hemen?

– Sendatu ez behintzat.

Beti izan dut zailtasuna euskaldun petoen arteko bat-bateko elkarrizketa txukun bat mantentzeko. Xabierri egin nion lehen galdera egindakoan bezalatsu sentitzen naiz beti, baldres. Esaldi egokiak berreskuratzen saiatu arren ez dut lortzen lehenean galdera-erantzun zuzenak pausatzea. Gero bai. Adibidez:

– Ez zaude horretarako leku aproposean, gero!

Egunkari batetik moztutako argazki horiztatu bat zeukan eskuartean agureak.

– Xabier nauk.

– Mikel.

Argazkian lubaki bat ageri zen, bi gudari metrailadore batekin. Batek metrailadorea eskuetan, besteak balak zerbitzatzen zizkion.

– Ni nauk –metrailadorearen jabea seinalatuz.

Ni isilik, badaezpada ere.

– Bestea Teodoro.

Ni beti isil, ukalondoa ez sartzeko.

– Hil zuan. Ni ez. Ni ez. Ni ez.

Pijama galtza jaitsi zuen eta izterrean zuen orbaina erakutsi zidan.

– Altxa bizkarraldea –agindu zidan gero.

Azal gurian beste bi orbain zituen.

– Zortea izan nian. Ebakuatu ninditean. Larri, baina bizirik. Zer gehiago behar du gizonak.

«Zer gehiago behar du gizonak», pentsatu nuen. «Zer gehiago behar du pertsonak» zuzendu nuen, nire baitarako badaezpada ere, gerora Xabier nolakoa zen ezagututa zuzenketa onartuko zidakeelakoan nagoen arren.

– Ospitale batetik bestera. Hanka galdu ez nuenerako gaitz erdi. Birikak ere juxtu libratu nitian. Galeno onak egokitu zitzaizkidala. *Gabatxo-*

ak, baina onak. Gero, gaixoaren bizimodua ez dela ona. Hori ere bai. Gutxiago bakartasunean. Okerrago norberak nor den ere ez dakienean. Esan al diat? Xabier nauk. Hik ez al didak hire grazia eman behar?

– Mikel naiz... –berriz aurkeztu nion nire burua.

– Hori duk txarrena, begiak irekitzea eta dena lainotuta –eten zidan–. Kolpe txar bat hartu nuela esan zidatean. Hemen, begira. Arranopola.

Txapela kendu zuen, ile fin-fin zuri bakanen artean, sakonune bat zuen, norbaitek hatz batekin indar handiegiz sakatu izan balio bezala.

– Ez niean piperrik ere ulertzen. Amorratu egiten ninduan. Eta haiek ere berdin. Jartzen zidatean papera eta arkatza. Idazteko. Idazten niean. Ez zutela ulertzen. «Medikuak, bai, baina ezjakinak», neure artean. Eta haiek, begira ez nengoela uste zutenean, hatza lokira eramanda, keinuka adierazten ziotean elkarri burutik eginda nengoela. «Euskalduna naiz! Euskalduna naiz! Jende nazkantea!» esaten niean, oihuka. Alferrik.

Hasperen egin eta jarraitu zuen:

– Erizain pertxenta baten kuidadoan utzi ninditean. Zopa ahora ematen zidala, *castellano*, *castellano*, esaten zidaan. Nik ezetz, *kastellanoz* ere ez niola ulertuko, alferrik zuela bere irribarre goxoarekin. Nigandik zerbait aterako bazuen ez zela ahotik izango.

Tarte bat utzi zuen. Argi ibili nintzen orduan ere eta ez nuen ahorik ireki.

Egun batzuk geroago, geure arteko laguntasuna sendotu zenean, horrela esaten zidan beti Xabierrek:

– Hi azkarra haiz, Mikel, badakik noiz ez duan ahorik ireki behar! *Nahi duena esaten duenak, nahi ez duena entzuten du*!

Kontakizunarekin jarraitu zuen ahots apalez:

– *Nigandik zerbait ateratzekotan ez da ahotik izango*. Hori Teodororen esana zuan. Honoko hau ere: *gerran emakume oro lubaki*. Eta orduan, bizar-guri halakoa ni, halakoak botatzen zituenean Teodoro barrabas horri gaitzitzen nintzaioan. Emakumea errespetuz ibili beharrekoa dela. Ama bezala errespetatu behar dela. Ez dela edonola ibili behar. Baina Teodoro ezagutu egin behar zuan. Ume handi bat. Aho handia. Nire-

tzat, emakumea zer den ezagutu gabe joan zela hura beste mundura. Auskalo nori entzungo zion gerran *emakume oro lubaki* hura eta beste aho kontu hura. Helduago ikusiko zian bere burua modu horretan mintzatuz. Bizar-guria bera ere. Zer izango zituen, hogei urte? Ni baino zaharrago hala ere. Ez duk hiltzeko adina, hain gazte. Eta orain, nire adinean, eta ezin hil. Gorputzak eusten diola, buruak eusten ez dion lekuan.

Txapela kendu gabe buruari hazka egin eta jarraitu zuen.

– Emakume haren usainak ateratzen nindian nire onetik. Lur hezearen lurrina. Gustura hartuko nikean lubaki horren babesa. Gerra bukatua zuan, ordea. Pixka baterako bederen. Nirea bederen.

Ez nuen ahorik ireki orduan ere.

– Teodorok, behar ez zuenean atera zian burua, beti bezala. Hantxe balazoa. Posizioa ezin eutsizkoa zen arren, komandanteak atzera egiteko agindu arte *kieto*. Gero, ahal bezala. Ez nian Teodoro bertan utziko. Lepoan hartu eta ehun metro ere ez genitian egingo. Ziplo lurrera biok. Ni Teodororen azpira. Hark salbatu nindian. He-

riotzaren ostean ere lagun. Nik hiru hartu banituen, hark beste hirutan hiltzeko adina. Arrantxoa ere berdin banatzen zian alproja hark, nik bat eta hark hiru. Handiagoa ere bazuan. Gosea berdintzeko behar zuela esaten zidaan, irribarre gaizto harekin. Barkatu egiten nioan. Noizbait bizia salbatuko zidala jakin izan banu bezala. Astuna zegoan. Ehun metro ere, ez nian garraiatu erori aurretik. Baina tiro parrastak harrapatu ez bagintu ere ez diat uste metro erdi bat harantzago joateko gai izango nintzenik. Ziplo. Biak lokatzetan. Hura hilda eta ni hil hurren. Gandu gorria egin zitzaidaan begietan. Esnatu arte zulo beltza. Eta esnatutakoan laino zuria. Ez zakiat inor arduratu ote zen hari lurrean atseden ematen.

Isildu zen, arnas mehe bat hartu zuen, birikek txistu egiten zioten.

– Hi igual, ETAkoekin ibiliko haiz, ezta?

Erantzuteko astirik ez zidan utzi. Erantzuna nola eman pentsatzeko ere ez.

– Hoa, gazte. Bestela zakurrek harrapatuko haute. Hator berriro ere. Baina kontu egin ezak bidean, hator lubakiz lubaki.

– Adio, Xabier, etorriko naiz bai hurrena. Ongi izan.

Kantuan hasi zen, apal hasieran, gero eta ozenago, oihuka nire gelan babestu nintzenera-ko.

Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko,
gerturik daukagu odola
bere aldez emateko.
Irrintzi bat entzun da
goiko tontorrean,
goazen gudari danok
ikurriñan atzean.

Xabier ezagutu nuen egun hartan gelara iristean sinesgogor nengonan oraindik. «Agirretar bat! Nola da posible?», pentsatu ninan.

Xabier ezagututa, beste itxura bat hartu nion ospitalean egin behar nuen egonaldi behartu hari. Jadanik ez nengoen bakartuta. Beste euskaldun bat zegoen ospitalean. Mintzaide bat. Gogaide bat, agian. Burkide bat, oxala! Izango nuen aurrerantzean nire kezkak nori aitortu eta, agian, baita kartzelako oihanean bizirauteko trikimailuak norengandik ikasi ere.

Aukera horrek hurrengo enkontrua noiz gertatuko irrika biziz utzi ninduen. Banekien halako aukerak urriak izango zirela, OLTren baten laguntza jaso ezean.

Gela garbitzen zidaten unea zen zainketa aldetik nahasiena. Hura zen atea irekita egoten zen unea, eta kartzelazaina beste zeregin baterako deituz gero, gelatik ateratzeko balia nezakeen. Une horretako nahasketa baliatzen nuen dutxara joatea eskatzeko, dutxa bidean Xabierren ziegan sartzea lortzearren. OLTak gela txukundu bitartean ofizialki dutxan egongo nintzen.

Gainera, OLTak gela garbitu bitartean bertan egotea oso deseroso egiten zitzaidan. Traba egiten nuen. Eta nire zerbitzura norbait izatearen itxura ere ez nuen maite. Orduan, eskuin eskuko erdiko hatza besterik ez nuenean kaltetua, ez al nintzen bada zorua garbitu eta nire ohea egiteko gai? Lotsa sentitzen nuen. Zer esan ez nekiela egoten nintzen, ezer esan behar ote nuen jakin gabe, edota ezer esateko eskubiderik ba ote nuen ere ziur jakin gabe. Zitekeena zen baita ere, nire gelaz arduratzen ziren OLTak kartzela-agintariek espresuki izendatutako salatariak izatea.

Kartzelazaina ez zen beste edonorekin hizketan harrapatuz gero susmo txarra hartuko ote zuten beldur ere banintzen. Banekien nolako paranoia zuten zaindariek. Behin batean, Bereziki Zaindu beharreko Preso bat, *paquetage*-a egiteko denborarik eman gabe ere, goizeko lehen orduetan lekualdatu zuten, salatariren batek bezperan etxartean elkarrekin izandako elkarrizketa xalo baten berri eman eta ihesaldia prestatzen ari ginelako susmoa piztu zielako kartzelazainei.

Horregatik guztiagatik, OLTak gela garbitu bitartean isil-isilik egoten nintzen. Lehen egunetan begiratzera ere ez nintzen ausartzen. Lanean ari zen bitartean begiratzen banion bera ere deseroso egongo zela iruditzen zitzaidalako.

Ez zen beti OLT bera etortzen. Eta aitortu behar dut nire deserosotasuna txikiagoa zela gela egitera zetorkidana gizonezkoa zenean.

Fred etortzen zen batzuetan. Mugimendu zabarrez egiten zuen lan. Zakar agintzen zidan paretik kentzeko. Aurrena ohean esertzeko, ondoren besaulkian; gero, besaulkitik altxa eta ate ondora joateko. Berriro ere ohera igotzeko ate inguruan traba egiten nionean. Ohea nik ezin al nuen egin galdetzen zidan orduan. Nik baietz. Baina ez zidan uzten. Umore txartuta ibiltzen zen beti.

Nire zorigaitzak Fredengandik hurbilduko ninduen. Erakusten zuen zabarkeriaren arrazoia ondo menderatzen ez zuen berezko indar fisikoan zegoela ikasi nuen.

Ospitalea ez zela beretzat lantoki egokiena pentsatu nuen. Pentsamendu horretan arrazakeria zantzurik ba ote zegoen galdetu nion nire bu-

ruari. Ezetz ebatzi nuen. Freden azal beltzak ez zuela nire juzkua baldintzatzen. Beste nonbait, beste lanbideren batean egokiago moldatuko zela iruditzen zitzaidan, ez baitzen abila eskuekin. Ohea egiterakoan izarekin borrokan aritzen zen. Nahiko nabarmena zen ez zuela besteren oheak egitea maite. Freden besoen indarrak egiten zuen lanbide horretarako egoki, denbora gutxiren buruan, tamalez, jakin nuenez.

Jantzi zuri-zurien eta azal bel-beltzaren arteko kontrastea zen Fred. Bizar ile indartsuak zituen, burukoak bezain kizkurrak. Hortz zuriak eta begirada goibela. Esku ahur argiak eta ibilera baldarra. Espezia-usaina ekartzen zuen azalean atxikita.

Freden besoetan egiten dut gurpil-aulkitik bainuontzirako tartea orain. Bainuontziko ur beroak giharrak lasaitzen dizkidan bitartean, berak dioen bezala *beratzen* naizen bitartean, beste zereginik ez badu, ondoan izaten dut bere gaztaroko gertakizunen berri emanez.

Veroniquerekin izan nuen harremana bestelakoa izan zen hastapenetik. Bere izena zela-eta, ospitaleko ordu asperretan, Dimitriren arreba

izan zitekeela pentsatzea maite nuen, aukera horrekin jolas egiten nuen denbora-pasa. Dimitri eta bere arreba Veronique kartzela-ospitale berean egotea, bata gaixo eta bestea erizain, erakargarri egiten zitzaidan: Dimitri laguntzeko al zegoen Veronique bertan?; edo hildako senarra mendekatzeko?; edo Dimitri zen arreba hiltzeko asmoz ospitale honetan eta ez beste batean ingresa zezaten lortu zuena?

Haren bizitzaz zeharka jakin nituenak aukera hori ezeztatzen zuela zirudien arren, Veronique alargun gisa ikusten jarraitzen nuen gela egitera etortzen zitzaidan bakoitzean. Tratu txarrak jasandako emakumea ikusten nuen beragan. Veronique Dimitriren Veronique izatea ezinezkoa iruditzen bazitzaidan ere, diskrezio osoz zelatatzen nuen, bere jokabidean edota bere gorputzean tratu txarren aztarnak bilatuz. Bururatu zitzaidan baita ere inoiz tratu txarren aztarnarik atzematea ez zela Dimitriren arreba zela ondorioztatzeko azken frogarik izango, munduan Veronique izeneko emakume asko izango baita tratu txarren biktima.

Emakumea zelako ere bestelakoa zen harekiko nuen harremana. Kartzelaren oinarrian gizonen (arren) eta emakumeen (emeen) arteko bereizketa artifiziala dago, sexuaren arabera egiten du kartzela-sistemak lehen banaketa. Horrela, kartzelak biderkatu egiten du kanpoan korapilatsu bihurtu diren sexuen arteko harremanen artifizialtasuna.

Emakumea ala gizona sexu irrika huts bihurtzeaz gain, objektu eskuragaitz bihurtzen baita, obsesio. Kartzelak irendutakoen obsesio. Obsesio kitzikatu, aldizkari eta telebistako film pornoen bidez. Obsesio isildu, tabu. Zigor erantsia den norberaren sexualitateari egiten zaion eraso horri buruz presoen artean hitz egitea ahultasun adierazpentzat hartzen baita.

Eta krudelkeriaren pastelaren ginga: elkarren arteko maitasun harremanak zigorraren mehatxupean debekatuak dituen presoak bere burua goitik behera biluztu behar du debekua gauzatzeko ardura izan berri duen presozainaren aurrean, hark agindu arau arropak banan-banan aurkeztuz sekula asmatu den strip-tease umiliagarrienean.

Pertsonen arteko harremanak sexuaren arabera ez baldintzatzen heziak izan garenoi, jasotako heziketa osoa komuneko zulotik botatzeko agintzen digu kartzelak.

Uste daitekeenaren kontra, sexu berekoen arteko harremanak ez dira horregatik errazagoak, ez bada kontrakoa. Arren kasuan bederen, harreman homosexualen zelatatzea, iraintzea dago; baina baita ere bortxaketa, emeen ordezkatzea.

Dena dago faltsutua kartzelan. Kartzela gezurraren mundu erreala da. Gizonak baino asma ez zezakeen izugarrikeria da.

Horregatik guztiagatik, gelan sartu zitzaidan lehen egunetik sentitu nintzen deseroso Veroniqueren aurrean. Ordura arte presozain emeak baino ez nituen izan aurrean, eta ez zitzaidan zaila gertatu *giltzaria* baino ez ikustea haiengan: ar ala eme, berdin zitzaidan, berdin ixten zizkidaten-eta atea eta morroiloak bortxaz; uniformea baino ez ikusteko ez nuen ahalegin handirik egin behar.

Aldiz, Veronique gelan sartzen zenean ez nuen jakiten soa non pausatu.

Lanean ari zela hari begiratuz gero, asmo lizunekin begiratzen niola pentsa zezakeen beldur nintzen. Ez nuen zalantzarik egiten, beste geletara sartzean eriak ez zirela ni bezala isilik egoten: presozaina parean ez bazegoen ausartenek proposamen lotsagabeak egingo zizkioten; lotsatienek, aurrez aurre galdera xaloak egin eta bizkarra emandakoan keinu zatarrez, ahoa zabaldu eta mihia ateraz, bi eskuekin ipurditik heldu eta alua jateko imintzioak egingo zituzten.

Bestalde, ni isil-isilik egoteak zer pentsatua emango ziola iruditzen zitzaidan. Jakingo zuen agian zergatik nengoen kartzelan, zaindariren batek esanda. Edo okerrago, ez zekien deus, eta preso arrunten itxura ez nuela ikusita zernahi izan nintekeela, baita bortxatzailea ere, pentsa zezakeen.

Bere lanari arreta jarrita gainditu nuen lehen egunetako deserosotasuna. Lana artista baten zehaztasunez egiten zuen Veroniquek. Profesional baten ziurtasunez. Ongi zekien nola burutu bere betebeharra ahalik eta denbora laburrenean. Gela egitera zetozkidanean, kartzelazainak atea ireki eta zabal-zabal uzten zuen. Garbi-

keta-gurditxoa gelaren ate parean uzten zuenez, gelatik atera eta sartu aritzen zen behar zituen tresna eta produktuak txandaka hartu eta uzten. Egunerokotasunak oraindik higatu gabeko automata erritmoz egiten zuen lan.

Egunak igaro ahala, hurkoaren sorbalda gainetik egunkaria zelatatzen ari nintzeneko irudipena gaindituta, gero eta lasaiago begiratzen nion. Ez dut esango ederra zenik Veronique; bazuen hala ere erakartzen ninduen zerbait. Azken urteetan ikusitako emakume gutxiak batez ere kartzelazainak izateak horretan zerikusirik izango ote zuen galdetzen nion neure buruari.

Lehen egunean, isil-isilik beraz, gelan emakumezko baten presentzia arrotzak nigan sortzen zituen sentimenduei adi egon nintzen. Eta haurtzaroan amari etxeko lanak egiten laguntzera etortzen zen emakumea gogoratu zitzaidan.

Oheko izarak aldatu zituen aurrena, berak beste lanak bukatu bitartean bertan geldirik egon nendin.

– Assied-toi dans le lit –agintzen zidan.

Ohea nahiko gora igota zegoenez, eseri nintzenean, hankak dilindan gelditu zitzaizkidan.

Itxura barregarria izan behar nuen. Liburu bat hartu eta irakurtzeko plantak egin nituen.

Zapi batekin garbitzen zuen harraska. Beste batekin komun-zuloa. Mahaitxoa eta aulkia garbitzeko erabiltzen zuen hirugarren bat.

Berez hezea zegoen zapi bat ateratzen zuen kutxa batetik erratz makila biluziaren puntan ezartzeko. Bezperatik egindako hauts apurra eta jatorduetan erori zitzaizkidan ogi papurrak besterik ez zituen biltzeko. Keinu zehatzez, erabilitako zapia erratz makilak buruan zituen gakoetatik askatu eta gurditxoaren albo batean zegoen zakar poltsa berezira botatzen zuen.

Lurrungailu baten bidez xaboi ura hedatzen zuen zoruan. Eta lehengo makilaren kakoetan beste zapi bat jarriz garbitzen zuen.

Lanak bukatuta, egunak igaro ahala gero eta zabalagoa bihurtu zen irribarrez,

– À demain –esaten zidan.

Edo, ostirala bazen eta asteburuko txanda libratzen bazuen,

– Au revoir, à lundi.

Garbiketa tresna eta produktuz betetako gurditxoa bultzatzen ondoko gelarako bidean entzuten nuen.

Kartzelazaina agertzen zen atearen koadroan.

– C’est fini? –galdetzen zidan alferrik atea giltzapetu aurretik.

Atea ixten zuenean, gela garbitu berriaren usain nahasketa nabarmentzen nuen: xaboiarena, lixibarena eta Veroniquek lanean botatako izerdiaren usaina, ezagun egiten zitzaidan baina izena oroitzen ez nuen perfumearenarekin ezkonduta.

Operazio osteko krisialdia gaindituta, hobera egin zinan Dimitrik. Haatik, Dimitri ez zunan jadanik Dimitri (mende bat igaro dela iruditzen zaidan arren, duela bi hilabete ospitalera iritsitakoan ezagututako Dimitri hura izaten jarraitu badu ere niretzat).

Iskanbila gertatu eta astebeteren buruan ikusi nuen berriro etxartean. Ez zuen itxura onik, baina orain, gurpil-aulkia utzita, makulu bakarraren laguntzaz ibil zitekeen. Aurreko aldian ez bezala, burua benda zuriz bildua zuen.

Beti bezala nire txokoan nengoen, galtzak kenduta, korrikaldi aurreko gihar luzatzeak egiten.

Larritasun pixka batekin ikusi nuen tiki-taka hurbiltzen zitzaidala: Xanax dosiak aski galkatua ez bazegoen, makulu harekin bertan seko utziko nindukeen kolpe ederra emateko gai izango zen.

Irribarrez zetorrela iruditu zitzaidan. Ezagutu nau, pentsatu nuen. Nor ezagutu du ordea? Nor ote naiz berarentzat? Parera iritsi zitzaidanean, gorputzeko gihar guztiak tenk, mehatxu imintzio

txikiena egin balit handik antxintxika alde egiteko prest nengoen.

Niri, belusezko ahotsez, «*Salut, Dimitri*» xaloa esateko aukera eman aurretik aurkeztu zuen bere burua:

– Salut, je m’appelle Jean-Noel –esan zidan eskua eskaintzeaz batera.

Txantxetan ari ote zen. Amarrua ote, garai bateko Chicagoko gangsterrek ordura arteko kidea traizioz akabatzeko egin ohi zuten bezala eskua ematerakoan gogor oratu eta, «urde zikina», oihukatzen zidan artean, danba emateko buruan?

Ez zirudien. Lasai zegoen Dimitri. Eskua luzatuta, zain neukan.

«Jean-Noel, beraz», pentsatu nuen, Dimitriren izen berriarekiko harridura erakutsi gabe, eta are gutxiago berari oharpenik egitera ausartu gabe. Beraz, Jean-Noel bihurtu zen Dimitri. Ez bazen betidanik izan Jean-Noel bere benetako izena, eta Dimitri aldiz niretzat beren-beregi asmatutakoa.

Eskua estutu nion, ahul, badaezpada ere; izerditsu zeukan. Ez ditut maite esku izerditsuak.

Berez, ez dut maite egunean behin eta birritan ezagun nahiz ezezagunei eskua estutzen ibiltzeko frantziarrek duten ohitura hipokrita.

«Nor naizen azaldu beharko diot, noski», pentsatu nuen, berarentzat ezezaguna nintzela oharturik. Zitekeena zen ezagutzen ez ninduen itxurak egiten aritzea ere.

Nola aurkeztu nire burua, ordea? Nire benetako izena eman ordez nik ere beste bat asma nezakeela bururatu zitzaidan. Euskalduna ordez korsikarra nintzela esan niezaiokeen. Edo kosovoarra.

«*Mir-miz*, Dimitri..., e... barkatu, Jean-Noel», eman niezaiokeen egunona, kosovoarrek duten frantses doinua itxuratuz. Esan niezaiokeen Kosovoko errefuxiatu politikoa nintzela, politikoak ez ziren arrazoiengatik nengoen arren kartzelan. Azaldu niezaiokeen ezkonanaia eta biok gu bezala errefuxiatzera etorritako erkide bat hiltzeaz akusatuta, frogarik gabe sartu gintuztela kartzelan.

Ospitalean zergatik nengoen ere asmatu beharko nukeen. Operazio bat. Adibidez sudur operazioa egin behar zidatelako ingresatu nindutela

esango nion, eta galde niezaiokeen ea zer moduzko zirujauak zeuden, bera harakinarenetik pasatutakoa zenez, lehen eskuko informazioaren jabe izango zelakoan.

Igarlearenak egitea ere bururatu zitzaidan, baina aukera hau arriskutsuagoa zatekeen. Veronique izeneko arreba bat ez ote zuen galde niezaiokeen Jean-Noel/Dimitriri. Izena aldatu arren, agian istorioa aldatu gabe gordeko zuen: tratu txarrak jasaten zituen arreba, haren senar urdea...

Alabaina, zitekeena zen arrebarena aipatu eta seme bakarra zela erantzutea ere; edo zoritxarrez zazpi anaia zirela sendian, baina arrebarik ez. Hobe aukera hori baztertzea, deabrua tentatzea zen, berriro ere Arazo Jaunarekin nahastu eta bertan akabatu nintzakeen-eta.

Edonola ere, berea antzerkia izan edo ez, hoberena nor nintzen esatea izango zela erabaki eta ahoa irekitzera nindoala hitza kendu zidan:

– Ez diozu inori esan behar nor naizen –begia kliskatu zidan.

«Hara!», pentsatu nuen, «beraz, ez diot inori esan behar Dimitri denik». Oker nengoen ordea,

ez baitzen hura gorde beharreko «gure sekretua».

– Frantziako *Direction de la Surveillance du Territoire*-ko kidea naizela jakingo balute nire bizitza arriskuan legoke –aitortu zidan ahapeka, zerbitzu sekretuetako kideek telesail kaxkarretan erabiltzen duten keinuak eta ahoskera itxuratuz.

«Ostia! Gizon honen garuna bexamela baino bigunagoa dago», pentsatu nuen.

– Lagundu egin behar nauzu, hemendik alde egiten lagundu behar didazu, *Migüel* –erregutu zidan.

Beraz, ezagutzen ninduen! Nire izena zuzen oroitzen ez bazuen ere (ohikoa zen presoen artean, nire izena gaztelerazko adieraren antzera ahoskatzea), zerbait gogoratzen zuen.

Hartara, agian benetako izena zuen Dimitri, eta itxaronziegan kontatutako guztia zen asmakizun hutsa. Zitekeena zen ere Jean-Noel izatea bere benetako izena eta itxaronziegan kontatutakoa egia. Ez nuena sinesten zen, benetako izena Dimitri ala Jean-Noel izan, DSTko kide izan zitekeenik inondik inora. Gainera, Frantziako es-

pioitza eta informazio bilketa zerbitzuen berregituraketaren ostean, izatekotan DGSko kide izango zen, zerbait izatekotan, edo DCRIkoa; baina DST izeneko espioitza egiturarik ez zegoen jadanik. Itxaronziegan elkar ezagutu genuenean kontatzen hasi zitzaidan arreba eta ezkonanaiaren istorioak zerbait mozorrotzen bazuen, ez zen nire ustez zerbitzu sekretuetako bere inplikazioa.

Edonola ere, egun hartatik aurrera, Dimitri/Jean-Noel eta biok etxartekide bihurtu ginen. Eta *hiruoindun* baten kide egiteak *lauoindun* eta *zaldunengandiko* nirekiko begirada bekaiztiak leundu zituela iruditu zitzaidan.

Berak ere denbora-pasak egitea maite zuenez, aurrerantzean egunkarietatik moztutako sudokuak Xabierren eta beraren artean banatu nituen: *Gara*-ko denbora-pasa orrialdea Dimitri/Jean-Noelentzat zen eta *Berria*-koa Xabierrentzat.

Igogailuaren ondoan itxaroten ninduen beti, berak oraindik eskailerak jaisteko erraztasunik ez baitzuen. Sudokuen orrialdea ematen nion

eta jauzika jaisten nintzen beheraino, igogailuarekin lehian beti bezala.

Zertan nenbilen jakiten zuenean, behin eta berriz ohartarazten zidan Xabierrek:

– Mikel, kontuz ibil hadi, *istripu bati anitz darraizkio*-eta –esaten zidan erdi txantxetan, konponbidean zegoen nire eskuin eskuko erdiko hatza sudurraren puntarekin seinalatuz.

Nire burua pertsona zuhurtzat nuenez ez ninduten gehiegi arduratzen Xabierren oharpenek. Baina kontuan hartu izan banitu ere, nola ekidin nezakeen gertatu zitzaidana? Egunak aurrera zihoazen eta laster batean utziko nuen ospitalea, berriro ere kartzelako ziegara itzultzeko, hatza nolabait konponduta.

Xabierrekin gelan elkartzen nintzenean, egun horretan marka berria jarri banuen, oraindik endorfinek kitzikatuta ematen nizkion korrikaldiaren xehetasunak. Lehen hiru kilometroetako abia lasaia; ondoren nola azkartu nuen; eta azken bi kilometroetako zoriona, neke gabe, hegan ibiltzea bezalakoa zela azaltzen nion.

Zirikatzearren, bere jakinduriaren ale berri bat eskaintzen zidan (gelara itzultzen nintzenean zegokion kaierean azkar idazten nuena):

– Mikel, hik ez dakik oraindik, gaxtea haizeta, baina *ez da zaldirik erortzen ez denik*.

Zorionez, istripua izan nuenean ez zidan barrerik egin. Egia esan, ezkerreko hanka igeltsuan bilduta, minez nengoela, beragana agertzerakoan egingo zidan harreraren beldur izan nintzen. Banekien, adibidez, «Esan nian ba! Azostoa!», esango balit asko minduko nindukeela.

Makuluekin ibiltzen ikasi behar izateagatik eta bere lehen hitzen beldur nintzelako ere atzeratuko nuen istripu osteko Xabierrekiko lehen ikustaldiaren tenorea.

Ospitaleko egonaldia amaitzear zegoela, Dimitri/Jean-Noel igogailu aurrean agurtu eta antxintxika eskaileratan behera nindoala izan nuen istripua. Irrist egin nuela esan zidaten. Ospitalea utzi nahi ez nuela esango luke norbaitek.

Ezkerreko hanka bi lekutan hautsita nuen, eta minak gobernatzen aski lan istripua nola gertatu zen eztabaidatzen hasteko. Alabaina, inor ikusi ez banuen ere, norbaitek zangotrabatu nin-

duelako erori nintzela ziur nengoen. Ez zen nire baldarkeria izan, ez. Sentitu nuen norbaiten oinak, oreka galtzeko aski izan zen ukitu txiki bat egin zidala eskuin hankan; ondorioz, ezkerrekoa ez nuen behar zen mailan jarri, hurrengoaren ertzean baino, eta, krask! egin zuen hezurrak behin eta krask! bitan. Lehen estaira iristeko azken mailak zirenez ez nuen kalte handiagorik izan gorputzeko beste ataletan, ukondoko urratuak eta ezkerreko eskuko kolpeaz gain.

– *Bi makulu berri baino zango zahar bat hobe*, Mikel.

Horrela agurtu ninduen. Aspaldian behar zuen atsotitza hortzetako armiarma sareetan likatuta.

Nik ere izan nuen astia berearen erantzuna aurkitzeko. Gorputzaren zama galtzarbeetan bermatuta nituen makuluetan jarriz, irribarrez esan nion:

– *Apoak ez du hausten zangorik lasterka*, Xabier.

Handik aurrera, bukatu zitzaizkidan etxarteko korrikaldiak, luzatu zidaten ospitaleko egonal-

dia eta *lauzangodunen* kofradian onartu ninduten ofizialki.

Galderak egiten zizkidanan Xabierrek. Hik, senideek, adiskideek edota burkide presoek igorritako gutunetan zeren berri ematen zenidaten, adibidez. Berak ez zinan-eta inoren gutunik jasotzen. Ez zinan ere egunkaririk irakurtzen. Sudokuak egitea maite zinan ordea, eta nire egunkarietatik mozten nitinan denbora-pasa orrialdeak berari emateko.

Ez zuen telebistarik alokatzen. Ni nintzen Xabierrek munduarekiko zuen zilbor-heste bakarra. Alabaina, ikuspegi kritiko oso zorrotza zuenez, ez zituen besterik gabe irensten esaten nizkionak. Astebete lehenago jakinarazi nion berriren bati buruzko desadostasuna azaltzen zidan ezustean, garuneko errotan berria ongi murtxikatu eta gero. Hausnarkariek urdaila nola, berak garuna berdin sailkatua zuela esaten nion txantxetan.

– Txorakeria galanta esan hidan lehengoan, Mikel!

Eta Georgia eta Errusiaren arteko gatazkari buruz esandakoak zergatik ziren txorakeriak arrazoitzeari ekiten zion. Alferrik izango nuen

Komiternaren garaiak aspaldi bukatu zirela oroitarazten saiatzea.

– Mekaguenrusia, Mikel! Ez sinetsi pepelerdo horiek esandako guztia! Kontuak askoz argiagoak dituk: aberatsak eta pobreak! Jabeak eta esklaboak! Gu eta haiek! Euskaldunak eta espainolak!

Eta nik, xaxatzeko:

– ... eta frantsesak ere bai, Xabier.

Eta berak, ni amorrarazteko:

– Vive la République, Mikel! Garai bateko galeno *gabatxoak*, horiek bai galenoak!

Gelatik sekula ateratzen ez zenez, etxartean norekin elkartzen nintzen jakin nahi izaten zuen, eta ezagun berrien ezaugarriak ezagutu ahala nori kontu egin ohartarazten zidan.

Gelan nengoenean zertan aritzen nintzen jakin nahi izaten zuen: telebista asko ikusten ote nuen, zein liburu irakurtzen nuen, ezer idazten ari ote nintzen, kirol ariketak egiten ote nituen.

– *Dana ez da jana, sano behar da ere gorputza* Mikel! Ez ahaztu!

Izaten zituen egun txarrak, eta orduan sesioa bilatzen zuen. Ez dakit zergatik egiten zuen hori,

aspertzen zelako izango zen, segur aski. Elkarrizketa bide onetik eramaten saiatzen nintzen arren, petraldu egiten zen Xabier. Erretzeari utzi berri dionaren umore erretxina ateratzen zuen horrelakoetan.

– Zertan ari haiz orain, Mikel?

– Idazten.

– Zer baina, Mikel?

– Zerbait; ez dakit xuxen.

– Idazten ari haiz baina ez dakik xuxen ari ote haizen. Horiek txoriburuen denbora-pasa txatxuak dituk, Mikel.

Esaldi bakoitzaren bukaeran «Mikel» esaten zidanean, *malo*. Banekien ekaitza izango genuela barkua ondo gobernatzeko gai ez banintzen, Xabierrek prestatzen zizkidan amarruei itzuri egiteko gai ez banintzen.

– Koaderno handi bat daukat eta bururatzen zaizkidanak idazten ditut hor. Batzuetan nire burutazioak dira, besteetan gertaerak, gure arteko elkarrizketak ere bai, zuk kontatzen dizkidazun gertakizun interesgarriak nire erara moldatuak. Badakizu, literatura.

– Eta zertarako idazten duk, jakin baliteke, Mikel?

Bazetorren, bazetorren, zezena bezala, xuxen-xuxen, nire izterra adarkatzera. Ez nuen erantzun azkarrik aurkitu. Begira gelditu nintzaion.

Begira gelditu zitzaidan, erantzunaren zain. Presarik ez zuela adierazten zuen aurrera eta atzerako balantzatxoa eraginez buruari. Irribarretxo gaixto hura ezpain fin-finetan okertuta.

«Kalapita nahi duk?», pentsatu nuen, «izango duk bada, ez diat nik atzera egingo oraingoan! Abant, Pellot!».

– Maite dut idaztea. Idazten hasten naizenean, ilunpean dagoen mundu bat argitzea bezalakoxea da, lehenago ez zegoen mundu bat sortzea. Maite dut nire gogoan sortzen diren istorio eta munduak besteei eskaintzen saiatzea, nik buruan dudana besteei helarazten saiatzea.

– Eta horrek zertarako balio dik, Mikel?

– Ez du ba balioko? Balio du noski! –protesta egin nion, argudiorik topatu gabe eta gila arroketan sartzen ari nintzela ohartu gabe.

– Nik ez diat esan baliorik ez duenik, Mikel. Nik galdetu diadana duk ea zertarako balio duen horrek, Mikel.

Aldi hartan ondo azpimarratu zizkidan bi «Mikel»ak eta «zertarako»a. Bazekien zertan ari zen, agure arraioak.

– Ez dakit zertarako balio duen xuxen, Xabier –nik ere ondo azpimarratu nuen bere izena; seguruenera horrek erakutsiko zion bide onetik zihoala, amua ondo irentsita nuela–. Ez dakit inori probetxuzkoa izango zaion idazten ari naizena, ez baitakit inork inoiz irakurriko duen ere. Dakidana da niri asko laguntzen didala, gutxienez nire bakardadea uxatzen.

Xake. Mate hurrengoan. Harrapatu ninduen. Ez zuen berak esan beharrik. Neroni konturatu nintzen. Ezagutzen nuen bere erretolika: indibidualismo burgesa; ikusi ninduen lehen unetik konturatu zela burgeskume bat besterik ez nintzela; jaterakoan bezain mizkina izan behar nuela borroka kontuetan, inoiz borroka zer zen usaintzeko adina adorerik izan banuen, noski, berak zalantzan jartzen zuena nire eskuak begiratze hutsarekin, «aristokrata baten mahaia zer-

bitzatzeko egokiagoak dituk esku horiek, burdinak hartu eta etsaiari aurre egiteko baino». Eta bukatzeko: «Hik ba al dakik zer den benetako metrailadore bat, Mikel». Nola ez, «benetako» eta «metrailadore» bitan azpimarratuz bezala ahoskatuko lituzke.

Horrelako zerbaiten esperoan nengoen, bere amarruan berriro ere ondo eroria nintzela oharturta. Xahartuta zegoelako, bestela halakoetan bere garaipena ospatzeko jaiki eta fandangoa dantzatzen hasteko gai ikusten nuen Xabier. Bere begien dirdirak salatzen zuen garaipenak sortzen zion plazera.

Ez zuen halakorik egin, ez zuen nire jatorri soziala erabili ni gutxiesteko. Elkarrizketarako zuen bere artearen erakustaldi bikaina eskainiz jarraitu zuen: barkatu zion lepoa erregeari, hurrengo mugimenduan hobeto xehatu eta umiliatzeko asmo hutsez.

– Baina, Mikel!, ez al haiz hi gudaria? Ez al huke hobe gure herria askatzeko probetxuzko zerbait egitea?

Nire burua eman nuen. Bera zen irabazle. Ados.

– Zer egin dezaket, Xabier? Zepoan nago.

Etsipenezko keinua egiterakoan, nahigabe makuluak erakutsi nizkion. Ez zen inondik ere nire asmoa istripuaz geroztik makuluekin nenbilelako errukia eragitea. Berak horrela interpretatu zuen ordea nire keinu hura. Edo horrela interpretatzea komeni zitzaion, agure petral horri.

– Horixe, horixe. Hire buruaz kupitu hadi, Mikel. «Zepoan nago». Halakorik!

– Ez, ez, esan nahi dudana da...

Hasi nintzen nire esaldiaren esanahia argitu nahian, esan nahi nion ez nengoela etsita, ez nuela nire burua biktimatzat jotzen, makuluen gainean ibili behar izateak ez zuela zerikusirik nire idazteko grinarekin; baina nengoen egoeran, kartzelan alegia, ez nuela probetxuzko gauza askorik egiterik, ez zela lehen bezala, aske nintzenean, gora eta behera nenbilenean, lo egiteko denborarik gabe, arnas egiteko denborarik gabe, ez zela borrokan zoriontsu bizi nintzenean bezala. Gogorra izanagatik egin behar nuena zer zen ongi nekienean bezala. Borroka egun ederren garaietan ez bezala, kartzelan aukera mugatuak nituela.

– Badakik zer egin dezakean, Mikel. Badakik zer egin behar duan, Mikel –moztu zidan lehor.

«Badakik zer egin dezakean» esaterakoan «zer» azpimarratu zidan; eta «badakik zer egin behar duan» esaterakoan «behar» hitza zen nabarmendu zidana, letra larriz eta gorriz idatzita baleude bezala entzun nitzan.

Protesta oro alferrikakoa zela nekien arren, laineza hartutako barruko ahots batek erantzuteko eskatzen zidan, aurre egiteko Xabierri, defendatzeko nirea:

– Utzi bakean, Xabier! Utz nazazu bake santuan! Zepoan ere ez al dut nahi dudana idazteko eskubiderik. Ezin al ditut nahi ditudan istorioak asmatu eta idatzi? Ezin al dut idaztearen plazera berreskuratu? Hitzak etsigarri, esperantza sortzaile, iraingarri edota hilgarri izango ote diren beldurrik gabe ezin al dut idatzi? Idatzi aurretik, hitz bakoitzaren zama tentu handiz neurtzeko arrazoi bakarra, asmatu dudan kontakizuna irakurleari ahalik eta zehatzen eskaintzeko ardura izatea nahi nuke, ez besterik.

Baina barru-barruan banekien ez niela hitz horiei nire ahotik ateratzen utzi behar, nire jarre-

ra defendatuko nuela agian, baina ez nuela nire arrazoia aterako horrela. Jarrera neurekoia azpimarratu besterik ez nuela egingo. Eta, gainera, ez zidakeela erantzungo. Erantzunez gero ordura artean galdutako posizioak berreskuratzen has nintekeelakoan. Erantzutekotan batere interesatzen ez zitzaion eztabaidan korapilatu nezakeelako. Ez zidakeen erantzungo, ez. Deabru alaenak bazekien noiz isildu. Bazekien nire purrustadak erantzun gabe uzten zituenean nire buruarekin inoiz baino bakartiago uzten nindue-la. Eta betiko mamuek erasotzen nindutela. Babesgabe uzten ninduen Xabierrek halakoetan. Krudela neritzon jokabide horri. Hobe nuen nik ere isilik. Hobe nuen nire sentimenduak ez azaltzea; gero eta etsituago ni, orduan eta gupidagabeago izaten baitzen bera.

Alferrik nuen nire arrazoiak onar zitzan saiatzea. Nire hiztegian, temoso, setoso, burugogor eta kaskagogor, Xabierren sinonimo ziren. Eta batzuetan krudela eta gupidagabea hitzak ere sinonimo zituen oroimen nahasiko gudari galdu haren izenak.

Makurrago ere joka zezakeen. Indarrik bazuen oraindik, isildu ordez egurra ematen jarraituko zuen:

– Ez al huke hobe gure herria askatzeko probetxuzko zerbait egitea?

– ...

– Badakik zer egin dezakean, Mikel.

– ...

– Badakik zer egin behar duan, Mikel.

– Xabier, Xabier...

Hobe nuen makuluak besapetan bermatu eta tiki-taka gelara erretiratzea, egun hartakoak eginda zeuden-eta. Jarraituz gero kapaz baitzen *Eusko Gudariak* abesten hasteko, bere garaipena sinatzearren. Eta jasotako jipoiaren ondoren hori bai ezingo nukeela jasan, batez ere, bera kantari ari zela, nik irrintzi noiz egin behar nuen eskuaz keinu eginez agintzen bazidan.

Gelara iritsitakoan, makuluak besaulkiaren kontra bermatuta utzi eta ohean etzan nintzen. Gogogabetuta nengoen ezer egiteko. Idazteko grina noizdanik dudan hausnartzen hasi nintzen.

Bederatzi urte izango nitinan idaztearen estutasunak lehen aldiz ezagutu nituenean. Andereño M.ren ikasgelan nengonan orduan. Andereño aurrerazale eta irekia zunan. Munduari bere kabuz eta askatasunean aurre egiten irakastean oinarritzen zinan bere pedagogia. Beste andereñoek jolas-ordu gabe zigortzen gintiztenan artean, berak «pasaportea» deitzen zuen sorkuntza lan bat, margolana edo idazlana, egiteko aukera ematen zigunan.

Aurreko urtean arrebak irakasle izan zuenez, bere bidez jakin nituenei esker ezagutu aurretik irabazia zuenez ospe ona andereño berriak, irrika biziz hasi nuen ikasturtea. Ez zuen gure esperantza zapuztu: Andereño M.k erakutsi baitzigun askatasunaren bidea!

Andereño M.k hirian ibiltzen irakatsi nahi izan zigun. Zuzen esateko, hirian ibiltzen baino, libre ibiltzen irakatsi nahi zigun, arduraz ibiltzen. Haurron taldetxoak egin eta hiriko maparen kopia bana ematen zigun. Mapak bi gune zituen markatuta: bata ikastola eta bestea egun horretako irtenaldiaren helburua. Helburuan jartzen zigun

hitzordua eta gure kabuz abiatu behar izaten genuen hirian barrena, nor lehenago iritsiko lehian.

Irtenaldi haiek ez ziren nonbait gurasoen gustuko izan, txikiegiak omen ginen eta arriskutsuegia zen hirian zaintzarik gabe ibiltzea. Andereño M.ri errieta egin eta bukatu zitzaizkigun *askatasunaren ibilaldiak*.

Behin batean, Andereño M.k handitan izan nahi genuenari buruzko idazlan bat egiteko agindu zigun. Burutu beharreko idazlan horren aurrean izan nuen Orrialde Zuriaren aurreko Idazlearen Izua deitzen zaionaren berri lehen eta azken aldiz.

Haur batzuek txikitatik jakiten dute handitakoan zer izan nahi duten, nahiz eta gero, gehienei, bizitzak ustekabeko lanbideak eskaintzen dizkien.

Ondo gogoratzen dut nik ez nekiela zer izan nahi nuen eta gainera izugarri urduritzen nionduen gaia zela.

– Zer izan nahi duzu handitan? –galdetzen zidaten irribarrez helduek, masailean atximurka goxoa eginez.

Isilik gelditzen nintzen, zer erantzun jakin gabe.

Helduak, nire mututasunaren esanahia ezin asmatuz, lagundu egin nahi izaten zidan.

– Nahi al zenuke su-hiltzailea izan? –galdetzen zidaten, esaterako.

Edo:

– Aita bezala izan nahi duzu?

Nik ez nekien ordea zein lanbide zuen aitak.

Aita kartzelatik atera zenez geroztik, *ofizinara* joaten zela zen ziur nekien gauza bakarra. Bertan egiten zuenaz susmorik ez nuen, ordea. Edonola ere, aspergarria eta interesik gabekoa iruditzen zitzaidan bere bizimodua. Goizero larruzko zorroa besapean hartuta abiatzen zen. Eguerdian itzultzen zen bazkaltzera. Eta bazkalostean berriro alde egiten zuen, arratsean itzultzeko.

Ofizinara joatea zein lanbide mota izan zitekeen ez nekien arren, banekien ez nuela horretan aritu nahi handitan, eta ezetz erantzuten nien.

Beraz, Andereño M.k handitakoan izan nahi genuenari buruzko idazlana jarri zigunean, zer

idatzi jakin gabe gelditu nintzen. Izenburua besterik ez nuen idatzi.

Ni izan nintzen idazlana egin ez zuen bakarra. Ikaskide guztiek bazekiten zer izango ziren handitakoan, inbidiaz entzuten nien norberak hautatu lanbideaz ari ziren bitartean: mediku, abokatu, astronauta, ziklista, su-hiltzaile, ile-apaintzaile...

Orria zuri eman nion andereñoari eta, espero bezala, ikastordua amaitutakoan deitu ninduen. Kezkatuta zegoen, etxeko lana egin gabe ematen nion lehen aldia baitzen.

Handitan zer izan nahi nuen ez nekielako utzi nuela etxeko-lana egin gabe esan arren, ez zidan aitzakia onartu. Zero jarri zidan.

Etxean, afalorduan, beti bezala aitak ikastolan zer moduz ibili ginen galdetu zigun arrebari eta bioi.

– Ondo –arrebak.

Mutu gelditu nintzen ni.

– Zerbait gertatu zaizu ikastolan, Mikel.

Arazoren bat nuenean nola asmatzen zuen harrituta uzten ninduen aitak. Haur guztiek be-

zala gurasoek barrukoak ikusteko abilidade bereziren bat zutela uste nuen.

Arrebak bazekien gertatu zitzaidana, baina gure arteko sekretuak benetako sekretuak zirenez ez zuen ezer esan.

– Ez larritu, esan zer gertatu den.

Ama mahaitik altxa zen, baxera batzuk harraskara eramateko edo azkenburua mahaira ekartzeko aitzakiaz.

– Zero jarri didate idazlanean –aitortu nuen.

Orduan ere ez zen haserretu aita; gutxitan haserretzen zen.

– Zer gertatu zaizu bada?

– Handitan zer izan nahi dugun zen idazlanaren gaia. Baina nik ez dakit zer izan nahi dudan.

Jadanik ezagutzen nuen lanbide zerrenda eskaini zidan aitak hautuan.

Alferrik zen. Ez nekiela zer izan nahi nuen berretsi nion. Eta horrexegatik, nire irudiz, andereñoak jarri zidan zero hori ez nuela merezi.

– Ez badakit zer izan nahi dudan handia izatean, eta gutxiago zer izango naizen, ezin nuen idazlana egin –arrazoitu nuen.

Aita ez zen nire iritzi berekoa. Andereñoarekin zegoen ados.

– Ez duzu idazlana egin. Beraz, merezitako nota jarri dizu. Ez al dakizu zer egin behar zenuen?

– Ez.

– Handia izatean zer izan nahi duzun ez dakizula esanez idatzi behar zenuen. Zer izango zaren ez dakizula. Horri buruz idatzi behar zenuen.

Hor nuen idazlanerako gaia, bai. Horrekin orrialde osoa ez nuen beteko, baina lerro batzuk idatz nitzakeen gutxienez. Maite ez nituen lanbideak aipa nitzakeen, nire zalantzen berri eman, zaila egiten zitzaidala nire burua etorkizunean ikustea, lanbide zehatz batean irudikatzea, alegia.

Aitaren irakaspen horri esker orrialde zuriak ez zidan beldurrik emango aurrerantzean. Orrialde zuriaren tontorra egiteko nondik abiatu ikasia bainuen.

Aita kartzelan egon izanak ekiditen ote zidan berarekiko identifikazioa? Alegia, beste haur batzuk bezala, aita bezalakoa izatea nahi nuela

erabaki banu, horrela hasi beharko nukeen idazlana:

Handitan aita bezalakoa izan nahi dut: euskal preso politiko ohia. Eta kartzelatik irtendakoan, ofizinara lanera joango naiz.

Ez nuen preso izan nahi, noski, eta bulegari ere ez zitzaidan etorkizun gustagarria iruditzen.

Andereñoak idazlan hura egiteko agindu zigunean, bederatzi urterekin, ez nekien idazle izaterik bazegoenik. Norberaren barne eta kanpo mundua, norberaren ikuspegiak eta irudimenaren uztak, norberaren egunerokoak eta ametsak paperean jartzea bizibidea izan zitekeenik. Orain, ia berrogei urte ondoren, handitan izan naizenaren, lanbide gisa izendatu ezin daitekeen nire ezkutuko bizimoduaren ispilu iruditzen zaizkit egin gabe utzi nituen idazlan eta, orri zuri haiek.

Hamasei urte inguru nituen idazle izan nahi nuela erabaki nuenean. Hamazazpi urterekin unibertsitateko ikasketak hautatzeko ordua iritsi zitzaidanean, ez nuela unibertsitatera joan nahi jakinarazi nion aitari, idazle izan nahi nuela. Aitak, berak ere gaztetan idazle izan nahi zuela

aitortu zidan. Ez zela zeregin batere erraza eta hobe nuela unibertsitateko ikasketei ekitea, eta aurrerago, idazle izateko nahia banuen, izango nuela aukera horretarako. Bitartean idazten jarraitzeko, baina ez uzteko ikasketak. Kotxea hartu eta Bilbora eraman ninduen unibertsitatean izena emateko.

Urte luzeotan bazterrean utzi dut literatura. Beti egokitu (edo desegokitu) zait zeregin garrantzitsuagorik, presazkoagorik, ezinbestekoagorik edo larriagorik. Literatura idaztea bonbardaketen pean lehertutako Grozniko kaletan kaniketan jolasten aritzea zatekeen. Nahiz eta batzuetan galdegin izan diodan neure buruari ea ez ote nenbilen aitzaki-maitzaki, aitak zeregin zaila zela ohartarazi zidan honi itzuri egiten, bete-betean heltzeko beldurrez.

Atxilotu gintuztenean kendu zidaten diru zorroan, nortasun agiri faltsuekin batera egunkari mozketatxo bat neukan, oroitzen ez dudan idazle hegoamerikar baten aipuarekin: «*Borrokan ari ginen artean ez genuen idazteko betarik, eta orain, garaitu gaituztenean, iritsi da literaturaren ordua*». Aforismoaren bigarren zatiarekin ados

ez egon arren, lehenak hatz puntak txindurritzen zizkidan idazteko antsia baretzeko balio zidan.

Eta hementxe nago orain, beste ezer ezin eta idazlearenak egiten. Ez ditut garaituaren etsipenetik zikintzen denboraren orrialde zuriak, ez naiz porrotaren mikatzarekin abiatzen oroimenaren oihanean azaltzen zaizkidan piztiak eta zomorroak alfabetoaren salabardoarekin ehizatu eta gramatikaren formolean betirako disekatzera.

Sortzaileak bere presentzia fosildua uzten duenean, historiaurreko labarretako margo eta zeinuetan, ostraketan irarritako idazkunetan, papiroetako hieroglifoetan, kopisten kaligrafia txukunez biderkatutako inkunableetan, inprimategien tinduaz biderkatutako idazkietan, edo bytetan gordetako hizki elektronikoetan, azkarregi desagertzen den oraina bezainbeste du gogoan sekula bukatzen ez den etorkizuna.

Ez al da bada idazlearen amets gorena, idatzitakoaren bidez ikusten edota ezagutzen ez ditugunei ikusezina ikusaraztea, ondorengoei ere hitz egiten jarraitzea, beren ahotan edota garu-

netan berpiztea, hil ostean ere bizidunen artean jarraitzea?

Hitzoi bizia emanez, nire ahotsaren doinuaren antza izan nahi duen idazkera sortzen saiatzen naun. Mugimendu urriko mundu honetatik ihes egin eta higanatzeko dudan modu bakarra dinat.

Gaur egun norbaitek galdetuko balit ea zertan aritu nahiko nukeen, ez niken zalantzarik izango.

Noizean behin izaten genitinan hizketaldi gatazkatsu horietako bat izan genuen egun batean ikusi ninan Xabier azken aldiz. Bere berririk ez dinat geroztik, eta berriro inoiz izango dudan esperantzarik ere ez zaukanat.

Eztabaida hura izan genuen egun haren biharamunean joan nintzaion adiskidetzeko asmoz. Idatzi berri nuen poema bat irakurri nahi nion. Aberriaz eta aberriaren defentsaz mintzo zen, askatasunean bizitzearen esanahiaz ere ari zen, norberaren askatasunaz. Norbanakoa aske izan gabe, herria askatzerik ez zegoela azaltzen nuen, Xabierrek ulertzeko modukoak zirela irizten nien bi metaforaren bidez. Esperantza nuen beste ezeri baino gehiago ikurrinaz eta iskiluez ari nintzen zatiari erreparatuko ziola, oniritzia emango ziola poemari eta, bezperako kalapita ahaztuta, berradiskidetuko ginela.

Ez zen lehen aldia literatura baliatzen nuena Xabierrekin berradiskidetzeko. Beste batzuetan, haserrealdirik tarteko ez bazen ere, aurrez aurre azaltzeko gai ez nintzena idazkien bidez adieraz-

ten nion. Ahoz baino hobe moldatzen naiz idatziz, dudarik gabe.

Xabierren gustuko idazkia zenean, haren laudoriozko hitzak bihurtzen ziren nire zorigaitzen eta minen ukendu, beste edozein pilula lasaigarri edo artatze saio baino gehiago.

Bi makuluen gainean nenbilenez geroztik hazi egin zen nire idatzi-ekoizpena. Hanken erabilera baldartu ahala eskuarena azkartu bailitzait. Eskuin eskuaren ekite tai gabearekin ezkerreko hankako mina arindu nahi banu bezala.

Atxilotu aurretiko ohiturak berreskuratuz, ordu txikietan lanean hasi nintzen. Gaueko zaintze txandetakoen urratsak nabaritzen nituen korridorean, gela bakoitzeko argi etengailuaren kliskak entzuten nituen, argiak esnatutako eriren baten purrustada. Nire gelaren aurretik pasatzean, alferrik pizten zuten gaueko zaintze argia, piztua izaten bainuen mahai argia. Ateari bizkar emanda idazten jarraitzen nuen presozainei jaramon egin gabe, ateko beiran kax-kax jotzen zidatenean ere. Itzuli gabe «zoazte zuen arratoi zuloetara» murmurikatzen nuen.

Gosalduko banuen goiz jaiki behar izaten nuen, ordea, gosarikoak jasotzera. Gainera, gela txukuntzera etortzen zitzaizkidanez, ezin nuen berandu arte ohean gelditu. Lo gutxiaren eragina nabaritzen hasi nintzen. Eta ariketa fisikorik ez egiteak sortutako nagia ere gailentzen hasi zitzaidan gorputzean.

Banekien eskuin eskuko erdiko hatzaren berreziketa bukatu ahala ezkerreko hankakoarenari ekin beharko niola. Beraz, hasieran hilabeterako aurreikusitako egonaldia luzatu egin beharko nuen, ezinbestean, auskalo zenbat denbora gehiagoz. Puska baterako nengoen ospitalean bai.

Armiarma sarean harrapatutako euliak bezala, alferrik astintzen nituen nik ere hegoak. Armiarma beste norabait joanda zegoen nonbait, artean ez zitzaion iritsi nire hegalada baldarren herio dei patetikoei erantzuteko ordua.

Idazten nuen minak arintzeko, bai. Idazten nuen adiskidetasuna lantzeko ere. Baina batez ere ahanzteko idazten nuen orduan. Non nengoen eta nola nengoen ahanzteko. Eta idazten nuen gogoratzeko, zergatik nengoen kartzelan,

haurtzaroaz oroitzeko, nerabezaroaz, gaztaroaz. Eta idatzi ezin zirenak oroitzen nituenean, hitz eta esaldi eta kontakizun korapilatsuenen sasien artean ezkutatzen saiatzen nintzen.

Idazten nuen horixe nintzela sinesten nuen batzuetan. Eta iruditzen zitzaidan, idazteari utziz gero ezerezaren unibertsoan edo ospitaleko korridoreetako anonimotasunean desagertuko nintzela betirako, beste preso bat, beste gaixo bat besterik ez bihurtzeraino; Xabier bezala ikusezin bihurtzeraino.

Atxilotuz geroztik asko idatzi nuela ohartu nintzen. Idatzitakoari begiratzen nion hitz horiek guztiek zertarako balio zezaketen gogoeta eginez. Sartuta geunden labirintotik ateratzeko gure Ariadna izan bazitezkeen bederen. Edota etorkizunean, norbaitek irakurtzeko astia hartuz gero, egindako bidearen eta borrokaren lekukotza emateko balioko zuten.

Batetik, denbora tarte horretan idatzi eta jaso nituen gutunen zerrenda osatua nuen (gutun bakoitza igorritako dataren ondoan, nori idatzia zen eta zertaz aritu nintzaion aipatzen nuen); bestetik, eguneroko zertzeladak aipatuz,

eguraldiaren berri emanez, irakurritako liburuen eta ikusitako filmen zerrendekin betetako kaier mordoa ere banuen metatuta.

Bestetik, eguneroko gertakari aipagarrien berri kodeen bidez ematen zuten eskuz egindako egutegitxoak eta ikasle-tutoreek igorri eta jadanik inoiz irekitzen ez nituen unibertsitateko apunteen fotokopien berridazketarekin betetako karpeta koloredunak nituen pilatuta. Interesgarri iruditzen zitzaizkidan idazleen aipuez kaier eder bat nuen osatua.

Azkenik, egunkarietako berri eta iritzi artikuluen mozketa eta bakoitzari buruz otutako iruzkinekin karpeta-sailkatzaile potolo-potolo bat betea nuen ordurako.

Espetxeratu nindutenetik idatzi gabeko egun bakar bat ere ez zela egon ohartzen nintzen. Kartzelan, idaztea niretzat arnas egitea bailitzan.

Eta gero eta egoera fisiko kaxkarragoa orduan eta gehiago lotzen nintzaion idazketari. Eta ezin asmaturik nago *hari* honek noizbait irteerarako bidea erakutsiko didan edo kontrakoa ger-

tatzen ari zaidan, alegia, ez ote ari naizen labirintoaren irteeratik gero eta gehiago urruntzen.

Ez naiz inoiz ziegatik ateratzen boligrafoa eta papera aldean eraman gabe. Kartzela-lekualdatzeetan, ur botila bezain garrantzitsua izaten nuen idaztekoak ez ahaztea. Kartzela berri batera iristen nintzen bakoitzean, *arrivants*-en atalean bakartuta, sarrera-miaketan boligrafoa eta papera kendu bazizkidaten, ez nuen etsiko kartzelazainak idazteko beharrezkoak ekarri arte.

Preso batzuentzat telebista gabeko arrats bat jasanezina zen neurri berean izan zitekeen jasanezin niretzat buruan nerabilzkienak ezin idatzi ahal izatea, idatziko ez banitu buruak eztanda egingo lidakeen beldur nintzen, nire bizitzaren pasarte bat aienatuko litzatekeela iruditzen zitzaidan.

Xabierrenera nindoan korridorean aurrera, poliki-poliki. *Lauoindun* bihurtu nintzenetik niganako zaindaritza asko lasaitu zen eta askatasun handiagoz ibil nintekeen nire estaian. Patrikan neraman poema, lautan tolestua. Azken ekoizpen literarioa neramakion nire irakurle zorrotzenari, gure berradiskidetzea helburu.

Bere gelaren parera iritsita makuluaz bultzatu nuen erdi irekita zegoen atea. Guztiz zabaldu aurretik nabaritu nuen gelaren hustasuna. Han ez zegoen agure usainik, ez tabako usainik ere. Garbiaren eta desinfektatu berriaren usain tristeak bete zizkidan sudur-zuloak.

Hutsik zegoen Xabierren gela. Hutsik zegoen bere besaulkia. Ohean ez zegoen bere hexur hauskorrek eta haragi zimelek osatzen zuten muinotxoa. Gelako erdi-ilunean, zimurren artean ñirñir egiten zuen begiradarik ez nuen aurkitu. Ez ninduen atsotitz edo zirto batekin agurtu. Adibidez:

– *Gaixo txarrentzat sendagile onik ez*, konpai.

– *Min gutxi, trapu asko*, tovaritx –erantzungo niokeen berari plazer egiteko.

Eta berak, ez nuela hain erraz bigunduko eta nire zorigaitzarekin ez zela kupitzen erakusteko edo, gehituko luke:

– *Besteen minak ez du inor gaixotzen*, gaxte –ahots doinu zorrotzena erabiliz.

Eta nik, bere irakaspenak ongi baliatu nituela ikusarazteko erantzungo niokeen:

– Ez, jauna ez, baina badakizu *besteren minak ez duela negarrik*.

Atsotitzaren zentzua ez nuela ulertu eta errieta egingo zidakeen orduan. Nik arrazoi emango niokeen, eta bere egoa aski puztuta zegoela ikusiko nuenean erakutsiko nion egun hartako idazkia, gela hutsik aurkitu nuen egun horretan patrikan neraman poema erakutsi asmo nion bezala.

– Xabier... –xuxurlatu nuen, nahiz eta ordurako zalantzarik ez nuen Xabierrik ez zegoela bertan.

– Xabier! –berriro ahapeka, etsitzear.

Jadanik banekien ez zegoela aurreko aldi hartan bezala ohe azpian ezkutatuta.

Elkar ezagutu berri genuen lehen egunetako batean, gela hutsik zegoela iruditu eta nirera itzultzekotan nengoela hots egin zidan burua ohe azpitik ateraz, hatza ezpainetan jartzen zuela:

– Xxxxxt! Hator hona! Azkar!

Ohe azpian baino lokatzetan itotako lubaki batean zegoen Xabier, eskuez heltzen zion bu-

ruari, alde batera eta bestera biratuz, urduri, berrogeita hamar kiloko bonbak noiz eroriko zain.

Makurtu eta zalantzati bere ondora egin nuen, arrastaka. Eskutik oratu zidan sendo; beti harritzen ninduen hezur-garro horietan zuen indarrak. Bion sabelek lur hotza musukatzen zuten. Erdi zabalik utzi nuen ateari begira geunden.

Ustekabean, bere marradun pijamaren gainaldeko bi botoi askatu zituen eta kaier bat atera eta ireki zuen. Inurri idazkera sarri-sarri batez betea zegoen, alboetan tarte zuririk utzi gabe ia.

– Hau duk nire egunerokoa, Mikel. Niri zerbait gertatzera hik gordetzea nahi diat. Hik jakingo duk zer egin, nik baino hobeto. Bazauzkaat koaderno gehiago, baina ez ditiat denak batera emango. Hau salbu dagoenean emango diat hurrengoa.

Bonbardaketa amaitutzat eman zuenean atera ginen ohe azpitik. Aurrena pixa egitera lagundu nion, eta ondoren ohera sartzen, hoztuta baitzegoen agurea.

Kaiera aldean neramala itzuli nintzen gelara. Gainbegiratu azkar baten ostean, Xabierren gaz-

taroko idazkiak deskubritzeko jakin-minik gabe eta inurri idazkera hori deszifratzeko gogorik gabe, hark eskatu bezala, nola edo hala ezkutatu nuen bere altxorra nire kaier eta liburuen artean, eta han gelditu zen, ahaztuta.

Xabier desagertu zen egunean, nola hala makurtu nintzen eta, ziurtatzearren, kontu handiz makuluetako bat sartu nuen ohe azpian. Hutsik zegoen lubakia.

Harrituta, Xabierren gela hutsaren erdian nengoen atean erizain bat agertu zenean.

– Vous cherchez quelqu’un?

– Xabier.

– Xabier, qui?

Ez nekien. Bere abizenik ez bainion inoiz galdetu. Ez nuen adorerik Xabierren deskripzioa egiten hasteko. Xabier hil egin zela entzuteko beldur nintzelako, agian. Xabierrez galde eginez gero ez ote nintzen gu bion arteko sekretua saltzen ari beldur. Edonola ere, ez nintzen ausartu inori Xabierren berri ematera; ez nintzen bere bila hasi. Bertan behera utzi nuen.

– Non, personne.

Ez nabil inoren bila, esan nion erizainari, eta presozainak azaldu aurretik nire gelara itzuli nintzen, nire hanka hautsiak eta bi makuluek uzten zidaten bezain azkar. Xabierren desagerpenagatik kezkati eta triste eseri nintzen, leihora begira. Hotzikara sentitu nuen, Xabierren babesik gabe zernahi gerta lekidakeela sumatu bainuen.

Ezkerreko hanka hautsi eta makuludun nintzenez geroztik, etxartekideak aratzagoak ziren nirekin; batez ere nire antzera zangoak ezinduta edo matxuratuta izateagatik ordezkoen laguntzarekin zebiltzanak hurbiltzen zitzaizkidan. Makuludunen taldeko bihurtu nintzen, hiru edota lau zangodunen kofradiako kide; ohorezko kide, beste guztiak ez bezala ospitalean bertan bilakatu bainintzen elbarri, eta horrek beren barne antolaketaren araudian berezitasunik ematen omen zion nire kasuari. Osasuntsu ezagutu ninduten eta orduan, makuludun, beraien mailan ikusten ninduten.

Lehen bekaizti begiratzen ninduten berek hartzen ninduten orain goxoan. Aratz ziren nirekin, ez zen gizabidezko esku emate behartu eta hotza, ez zen *politesse* frantsesak agindutako jokabide txatxua. Lehen, korrika edo ibilian, beren irismenetik at nengoen. Orain, etxarte txikian errotarrian ibiltzen hasten nintzenean, makuluen gainean baldar, beraien arteko baldarrena nintzen eta segituan hurbilduko zitzaizkidan bizpahiru, ni bezala makuluen laguntzaz baina ni

baino askoz ere trebeago. Nirekin egingo zuten ibilbidea, nire tiki-takaren baldresa nabarmenaraziz, nire ibilera hobetzeko aholkutxoak emanez, fisioterapeutarenean ikasitakoak jakinaraziz, berrikusiz, ikastorduetatik kanpoko dohainezko irakasle partikular bihurtzen ziren. Azterketa gainditzea nahi izango zuten, nonbait.

Errotarriko ibilera niretzako hain goibel haietan –hegoak moztutako txoria bezala sentitzen bainintzen–, ezer behar izatekotan eskatzeko beldurrik gabe esaten zidaten: gutunen bat ezkutuan ateratzeko beharra banuen gustuz aterako zidatela; erretzekoa edota sudurretik hurrupatzekoa ere lor ziezadaketela. Eta bereziki animatuta zeudenean, erizain edota presozain emeren batekiko hitzordua antolatzea proposatzera iritsi ziren, konfiantza osoz eta merke... baldin eta *Erregearen* oniritzia jasotzen banuen.

Etxartera atera gabe gelditzen nintzen askotan. Minagatik eta etsipenagatik. Nire burua ezindua ikusteak sortzen zidan tristura eraman ezina zitzaidan. Txantxa itzela neritzon ospitalera eskuin eskuko erdiko hatzaren lotailu hezurreko haustura ondorengo berreziketa egitera etorri

eta bertan hanka apurtzeari. Eta artean ez nekien patuak prestatua zidan jokaldi aparta!

Xabier izan nuen orduan ere makuluetan sendoena. Bizitzen ari nintzen egoera ez zela betirako esaten zidan etsiak jota ikusten nindunean. Isildu egiten nintzen, burkide batek garai zailetan errepikatu ohi zuena niretzako gordez: *ez galdu esperantza, egoera txarrenak ere txarrera egin dezake*.

Nire jendarteko harremanak ugaritu zirenez geroztik, etxartean hurbiltzen zitzaizkidanen berri ematen nion Xabierri, haien esamesak eta txutxu-mutxuak jakinarazten nizkion. Eta hark *alea eta lastoa bereizten* laguntzen zidan.

Hanka hautsi nuenetik ere, *Erregeak* eta bere gorteak niganako begirune moduko bat erakutsi zuten. Haiengandik hurbilekoagotzat banindute bezala. Erregeak harengana hurbiltzeko keinua egiten zidan batzuetan, edo bere gorteko bat (Jopu, *Oxygène*, edota *Beemeube*) igorriko zuen nire bila. Zigarretak eskainiko zizkidan, edo erretzekoa. Ez nuela erretzen eta eskertzen niola hala ere. Behin batean, hitzik gabe, erpurua belarri aldean eta txikia aho aldean kokatuz egin

zidan eskaintza, nahi nuenean eskatzeko eta eskuratuko zidala bat, prezio onean.

Istripu Handiaren ondoren doan eskaini dit telefonoa, nahi dudanean ekarriko didala, ni bezalako batek merezi duela etxekoekin hitz egitea, une zailetan maite gaituztenen beharra izaten dela.

Ez naiz fio ordea, ez oraindik, ez oraingoz. Betidanik izan naiz zuhurra. Horri esker lortu dut etsaiaren hainbat segadari itzuri egitea.

– Eta zer gertatu zitzaian bada? Lokartu egin al hintzen? Ez al hintzen ohartu inguruan hituela ala? –xaxatzen nau Xabierrek nire zuhurtziaz harro agertzen natzaion bakoitzean.

Eta erantzuten utzi gabe bere aholku gogokoena errepikatzen dit hamaikagarrenez: «Ez hadi hire aitaz ere fio, Mikel!».

Aholkua eman zidan lehen aldian nire izaera zuhurraren oinarrian dagoen gertaeraren berri eman nion. Hain zuzen ere, haurra nintzela aitak bere bulegora deitu ninduen batean, haur mesfidatia besoetan hartu mahai gainean jarri eta besoak zabalduz jauzi egiteko agintzen dion aitaren pasadizo ezaguna kontatu baitzidan. Hau-

rrak, beldurtuta ez duela jauzi egingo erantzuten dio aitari. Eta aitak haurrari, goxo, konfiantza egiteko, aita duela, ea nola ez den fidatuko aitarekin. Ea norengan izango duen konfiantza beragan ez bada, egiteko jauzi eta hartuko duela besoetan. Ez izateko koldarra. Haurrak, azkenean, ahots goxoak hartaratuta, jauzi egiten du ausart antzean aitarengana, begiak itxita hala ere, hark besoetan hartuko duelakoan. Orduan, aitak bazterrera egiten du eta danba! muturrez lurrera doa haur gaixoa. Ipuineko aitak haurrari emandako aholkua betirako oroimenean iltzatuta gelditu zaidan doinuz ahoskatu zuen aitak, niri ari balitzait bezala: «Horrela ikasiko duk ez dela inorengan uste osoa izan behar, ezta hire aitarengan ere!».

Aitaren eta Xabierren aholkuak gora-behera, onartu behar dut, sinesbera xamarra izan nintzela hanka apurtu eta gurpil-aulkira lotuta utzi nindu en istripua gertatu bitartean. Jendearen xalotasunean sinesten jarraitu nuen. Konturatzen nintzen hurbiltzen zitzaizkidanek atze-asmorik bazutela, baina ez konturatuarena egiten nuen,

jokabide hartatik zer txar etor zekidakeen susmatu gabe.

Nire osasunarekin zinez arduratzen zirela uste izaten nuen. Nire ezkerreko hankak lo egiten uzten zidan galdetzen zidaten, minak loak eragotz ez ziezadan trikimailuak aholkatzearekin batera. Aholku batzuk arlo fisikoari zegozkion: nola kokatu hanka, bigarren buruko bat eskatzeko OLTei, oina bertan bermatzeko. Beste aholku batzuek ordea pilula izen exotikoak zituzten, erdia hartuta ere zaldi bat seko loarazteko indarra zutenak. Artean ez nuen farmazi industriak ekoitzitako min-aringarrien atzaparretan erortzeko adinako oinazerik, eta uko egiten nien kolore deigarridun pilula flasko eta kutxei.

Hezur lotu berriak eskaiolarekin uztartu eta etxartera jaisteko gai izan nintzenean, Jean-Noel/Dimitri ustez DSTko kidea izan nuen errotarriko kide gehienetan. Ni bi makulurekin eta bera bakarrarekin, bikote banaezina osatu genuen. Geldo zebilen ospitaleko errotarria, aleak xehexehe egin beharrez. Ordubete luze besterik irauten ez zuten etxarte-aldi haiek luze eta amaiga-

be egiten zitzaizkidan, isolamendu garaietakoak baino areago.

Jean-Noelek ez zidan inoiz Dimitri aipatu. Nik ordea elkar ezagutu genuen egun hartan, ospitaleko sarrerako itxaronziegan kontatu zidanaren jarraipenaren jakin-minez jarraitzen nuen, noski. Eta bost axola zitzaidan dena asmatutakoa bazen ere, bere benetako izena Jean-Noel ala Dimitri izan, ez zitzaidan ardura. Jean-Noelek edo Dimitrik Veronique izena zuen arreba jipoiturik ez izatea ere bost axola zitzaidan. Kontakizunaren amaiera jakin nahi nuen nik. Zer egin zuen Dimitrik? Arrebarenera joan ote zen? Arazo Jauna akabatu zuelako ote zegoen kartzelan? Asma zezala istorioa eta kito, nioen nirekiko.

Zeharka aipa niezaiokeen Dimitriri, behin batean ezagutu nuela bere antz handia zuen gazte bat, hark istorio bat kontatu zidala. Baina beldur nintzen Dimitri eta Veroniqueren aipamen hutsak ez ote zituen iraganeko mamuak esnatuko, Arazo Jaunaren oroimena berpizteko bidea ematen banion, ez ote nukeen garesti ordainduko.

Jean-Noelen bizitzak ez zuen Dimitrirenarekin zerikusirik batere. Berak esandakoaren arabera,

mendetan luzatzen zen tradizio militarreko familia aberats bateko seme zen, eta bera kartzela-ospitalean bazegoen ez zen lege hauste baten kariaz, baizik eta Gobernu frantsesak agindutako misio bat betetzeko.

Gaia aipatzen zuen bakoitzean, isildu eta begira-begira gelditzen zitzaidan.

– Nik zugan uste osoa dut, *Migüel*, badakit ez nauzula traizionatuko. Nire misioaren berri emango nizuke. Baina hain zuzen ere, nire misioak zurekin du zerikusia eta honaino esan diezazuket eta ez gehiago. Ulertuko duzu orain isildu eta bihar arte gehiago hitzik ez badizut egiten.

Ulertzen niola esaten nion. Erlojuari begiratu gabe ere banekien etxarte-aldiaren amaiera ordua hurre zela, Jean-Noelek erlojuari begiratu gabe denbora neurtzeko gaitasun txundigarria zuen-eta. Erlojuari begiratzen nion, hala ere, ohituraz, eta kartzelazaina atean agertzeko hiru minutu faltako zirela kalkulatzen nuen. Jean-Noel/Dimitriren misterioa buruan iltzatuta geldituko nintzen berriro.

– Promenade terminée! On remonte les gars! –oihu egin eta txalo jotzen zuen giltzariak.

Papertxo batean idatzia zeukan zenbat pertsona atera ginen egun hartan etxartera, eta otsoak inor ez zuela irentsi baiesteko, Eiheralarreko ardi mutur beltzak baikinen zenbatzen gintuen bere aurretik igarotzerakoan.

– Un, deux, trois...

– Beee, beee –egiten nuen nik.

Eta barre egiten zuten denek.

Xabierrek ere ez zinan sinesten, noski, Jean-Noel DSTko kidea zenik. Guztiarekin ere, harekin ez ibiltzeko aholkatzen zidanan behin eta berriz, urruntzeko harengandik, desgrazia besterik ez nuela bilduko haren konpainian. Hasieran uste izan ninan, Xabier Dimitriz jeloskor zelako ematen zidala harengandik urruntzeko aholkua, Jean-Noelen ahotik entzun nahi nuen istorioari berak kontatzen zizkidanei baino garrantzi handiagoa ematen niolakoan zegoela jelosiak jota.

Zergatik ez ote nituen aintzat hartu haren aholkuak? Dimitriren istorioaren bukaera Jean-Noelen ezpainetatik jasoko nuen esperantza nuelako? Auskalo. Ospitaleko Veroniqueren eta Dimitriren arrebaren arteko loturaren baten aukerak kitzikatzen ninduen, hori egia da. Baina bazen besterik: eta benetan Dimitri/Jean-Noelen arreba bazen Veronique? Ez nekien zergatik zegoen benetan Jean-Noel kartzelan. Ez ote zuten aurrez prestatu bere ospitaleratzea, bertatik ihes egiteko? Haiekiko laguntasuna lantzen banuen, Veroniquek prestatutako ustezko ihesaldian bidaide izan nintekeela amesten nuen.

Aukera hori benetan txikia zela banekien, bai. «Ameskeria!» errieta egingo zidakeen Xabierrek nire esperantza ttipi hura konfesatzera ausartu izan banintzaio.

Ideia hori nire kaskezurrean errotuta nuen ordea, ezin nuen erauzi. Lotsa ere ematen zidan nire esperantza, nire askatasun aukera, ezezagun batzuen ustezko laguntzan jartzeak. Are bietako bat itxura guztien arabera ganbara pitzatuta zuen morroi arriskutsua izanda.

Garai horretaz gogoeta egiten hasten naizenean ez dakit xuxen zer nerabilen buruan, zer nahi nuen orduan: Dimitriren istorioaren bukaera jakin ala Dimitriren balizko ihesaldian parte hartu? Burua ere horrezkero nahasten ari zitzaidala iruditzen zait orain. Endekatze fisikoa eragin nabarmena izaten ari zela nire aldartean.

Gauez, ezkerreko hanka egokien nola kokatu asmatu nahian ezin loak hartu gogoeta egiten hasten nintzenean, aukera biak ameskeria huts zirela erabakitzen nuen: Jean-Noelek ez zidan sekula Arazo Jaunaren akaberaren berri emango eta Veroniquek ez zuen Dimitri bertatik ateratzeko inolako ihesaldi planik. Veronique OLTa ez

baitzen buruan kolpea jasoz gero oroimena berrinstalatu berri den ordenagailu orbangabe bat bezala gelditzen zen Dimitriren arreba.

Edonola ere, banekien biharamunean Jean-Noeli lotuko nintzaiola errotarrian. «Besterik ezean», aitortuko nion ondoren Xabierri desenkusa moduan, beste inor interesgarriagorik ez zegoela-eta. Egia bestea zenean, alegia, gauean itzalitako esperantza hutsalaren txinpartak berpiztuta jasango nituela, etxarte-aldiak irauten zuen ordubete luze-luzean, ustezko espioiaren eldarnioak, eroaldiak eta niri buruzko mehatxuzko aipu zentzugabeak.

Alferrik izan zen desagertu aurretik aldiro Xabierrek emandako aholkua:

– Kontuz ibil hadi ero horrekin, Mikel!

Hartara, Xabierren desagerpenaren biharamunean okertu zitzaizkidan gauzak guztiz, gurpil-aulkira lotuta utzi ninduen istripua izan bainuen. Istripu Handia, eskuin eskuko erdiko hatza hautsi nueneko istriputxotik eta ezker hanka bitan hautsi nuen istriputik bereizteko. Istripu madarikatua. Hodeiertza beheratu zidan istripua. Idazteko jarreran utzi nauen istripua.

Ordura arte, nire garaieragatik jende gehiena goitik behera begiratzera ohituta banengoen (1,82 luze nintzen bi hanken gainean zutik), aurrerantzean lepoa gorantz okertzen ikasi behar izan nuen. Gurpil-aulkia eta biok bat egin genuenetik ateen garaieraren erdia sobera nuen bezala, ate batzuk estuegi bihurtu zitzaizkidan. Zuberoako zaldizkoaren bertsio moderno, txikitu eta baldar bihurtuta ikusten nuen neure burua ispiluan. Gainera, gurpil-aulki motorduna oparitu didatenetik besoetako giharrak lantzeko beharrik ere ez dut izan.

Makuludun bihurtu nintzenetik ahantziak nituen etxarteko korrikaldiak, noski. Gelako atea ireki zidaten etxartera jaisteko. Artean ez nuen aukerarik izan konfiantzazko OLTren bati Xabierri buruz ezer ote zekien galdetzeko.

«Etxartetik igotakoan galdetuko dut» pentsatu nuen, «eta inork ez badit argibiderik ematen, ospitaleko buruari idatziko diot hari buruz galdezka. Nire ardura da. Ez al gara bada Xabier eta biok kartzela-ospitale honetako euskal preso politiko bakarrak?».

Zorigaiztoko egun hartan, nire gogoetetan bilduta nindoan, inor agurtu gabe. Makuluekin nenbilenez geroztik egin ohi nuen bezala igogailurantz abiatu ordez, oharkabean eskaileretarantz jo omen nuen.

Eskaileretan behera estropezu egin nuela esan zidaten. Saiatu zirela eusten baina ezinezkoa izan zela. Itzulika egin nuela behe-beherainо. Kolpe txar asko hartu nuela. Konorte gabe egon nintzela lauzpabost egunez.

Esnatu eta ondorengo egunak laino lodi baten ganduaren atzean bezala oroitzen ditut. Ospitaleratuz geroztiko egunen oroimena zuloz betetako oihal baten antzekoa zen hasieran. Zuloa ez zegoen tokian anabasa zegoen. Izenak, jendeak eta egoerak nahasten nituen.

Egunero-egunero, artatze saioari ekin aurretik, medikuak nor nintzen galdetzen zidan.

– Ba al dakizu nor zaren? Ba al dakizu noiz eta non jaio zinen? Ba al dakizu zergatik zauden hemen, zer gertatu zaizun gogoratzen al duzu?

Deus erantzun gabe begira gelditzen omen nintzaien. Gero izen eta jaiotza data eta leku

desberdinak ematen hasi nintzaiela. Ustez gertatutakoaren bertsio ugari eta sinesgaitzak.

Sasian nenbilenean erabilitako gezurrezko agirietako identitate anitzak ematen nizkien, nonbait; erakunde barnean erabilitako goitizenak; literatura eta kazetaritza idazlanak sinatzeko erabilitako izengoitiak; idatzitako ipuinetako pertsonaien izenak. NAN faltsuetako jaiotza datak eta lekuak eman nizkien; borrokan ari nintzela ezagututako egoera larrien datak eta lekuak; poliziaren eskuetatik doi-doi ihes egindakoak; atxiloketa data eta lekua; argitaratutako liburuen data eta argitaletxearen egoitzaren kokalekua. Auto istripuaren ondorioz nengoela bertan esaten nien; edo atxiloketa garaian buruan jasotako ostikadagatik; egarri grebako bederatzigarren egunean ospitaleratu nindutela esaten nien; edo lo egiten nuen bankuan eman zidaten jipoia aipatzen nien.

Behin, Xabier nintzela esan nien, 1920ko maiatzaren 31n Donostiako Alde Zaharrean jaioa. Beste behin Dimitri nintzela, 1981eko uztailaren 5ean Vitryn jaioa.

Azkenean, hobera egin ahala, Mikel nintzela esaten hasi nintzaien ia egunero. Donostian 1961eko ekainaren 8an jaioa. Datarekin ziur ote nengoen galdegiten zidaten behin eta berriz. Baietz erantzuten nien. Eta beraiek ez ote nintzen egunez tronpatzen, ez ote nintzen ekainaren 7koa galdegiten zidaten.

– Bai, hori da, ekainaren 7an lehen aldiz jaioa, gauerdirako minutu bat falta zela, eta ekainaren 8an bigarren aldiz, gauerdi eta minutu bat zenean.

Erantzuna aldatzea lortu ez zutenez, eta beste datuei zegokienez nire buruak txukun xamar erantzuten zuenez, gauzak bere horretan uztea erabaki zuten medikuek, nire nortasunari buruzko galdera gehiago egin gabe eta jaiotza bikoitzaren kontua nire xelebrekeriaren bat izango zelakoan etsi zuten.

Hona iritsitakoan, asmatutako nire jaiotzari buruzko kontakizunak zentzu berria hartu din nire begietara. Maiz gertatu ohi den bezala, luzaroan ahaztutakoa bat-batean gogoratzerakoan lehen baino indar handiagoz jabetzen dun gutaz, zentzu berriz ikusten dinagu gure iraganeko pasadizo zehatz bat, orduan ulertu ez genituenak garden-garden azaltzen zaizkigula begien aurrean, lehenago nola ez ginen ohartu ulergaitz egiterainoko gardentasunez.

Nondik gatozen eta nora goazen. Zergatik jaio garen. Zergatik gauden munduan. Zentzurik ote duen bizidunen arteko iraganaldi honek. Ezer ez ginenetik ezer ez izango garenerako bidaldi gorabeheratsuak. Ba al dago loturarik gure lehen arnasaldiaren eta gure azken hatsaren artean? Gure lehen negar malkoaren eta azkenaren artean? Lehen irriaren eta azken irriaren artean? Horrelako galderak bakardadean baino ezin dira egin. Egoera berezietan. Eguneroko bizitzaren anabasan ezinezkoa da galdera horiek norberaren buruari pausatzea. Mundutik isolatzeko gai-

tasuna dutenez gain, ermitauek eta kartzelan bakartuek dute soilik denbora halakoetarako.

Ez dakit biharko egunak zer ekarriko didan. Bederen lerro hauek utziko ditut, nire igarobidearen aztarna.

Istripuaren ostean larrialdi zerbitzuan hartu ninduen medikuak nire egoera muturrekoaren berri emateko erabili zuen esaldia ez zait ahanzten:

– Honek izan du zortea, honek! Berriro jaio da!

Hor nengoen, ahoa ezin ireki, hankak sentitzen ez nituela, orain bezala, eta artean besoak ere ez. Burua lepoko batez tinkotuta. Begiak kliskatu nituen.

«Berriro jaio naiz», pentsatuko nuen.

– Berriro jaio naiz... –murmurikatzen saiatuko nintzen.

«Hirugarren aldiz jaio naiz, beraz», pentsatuko nuen oharkabean, irribarre gaixtoz, nire jaiotzari buruz asmatutako ipuina gogoan.

Eta anestesiak bere eragina egin aurretik erabaki ninan kontatu behar ninala, nola berriz

jaiotzea bezalakoa izan zen azken istripu hori baino lehen ere jadanik bitan jaiotakoa nintzela.

Ospitalera iristean, oraindik nire bi zangoen jabe nintzela, nire jaiotzarekin gogoeta egiten hasi nindunan. Hona iritsiz geroztik nagusitu zitzaizkidan aurre-sentimendu ilunek izango zitenan eraginik.

Ez dut nire jaiotze unearen oroitzapenik, noski. Amak A. klinikan munduratu ninduela dakit. Goizaldean jaio nintzela ere bai. Gurasoek nire jaiotzari buruz esandakoak oroitzeko alferrikako ahaleginak egin ditut. Ez gara gure heriotzaren lekuko izango, eta gure jaiotzari buruz jakin izan dugunaren oroitzapena ezabatzen du denborak.

– Hor jaio zinen –esaten zidan txikitan amak, klinika paretik pasatzerakoan.

Ez dakit zergatik, baina nahiago nuke klinika arrotz eta hotz batean baino etxean jaio izan banintz. Agian amak klinikara egindako arauzko bisiten ondorioz, sabelean hazten nintzen arau sortuko zitzaidan ospitaleekiko gorrotoa.

Jaiotzeko eguna iritsi zenean, dardaran hasi eta bederatzi hilez bizileku izan nuen itsaso

epela husten hasi zen. Umetokiarenak egin zuen, indar garaiezin batek bertatik lekutu behar ninduen, artean kanporantz zela ez nekien norabidean. Dena zen taupada eta uzkurtze, haragi eta odol zurrunbilo batean bilduta nengoen.

Bukatua zen nire mundu lasaiko igeriketa axolagabea, bakardaderik gabeko bakartasuna, bakantasuna, amaren etenik gabeko fereka eta goxotasuna. Nire itsasoa galtzen ari nintzen eta korronteak mundu ezezagun bateko hondartzara ninderaman naufrago, ezgai, ezdeus, ezindu.

Estua zen arren pasabidea, betiereko indar batek harantz ninderaman ezinbestean. Zer zen ordura artean ezagutu gabe nuen itolarri eta presa hura?

Borroka latz baten ostean, bat-batean pasabidea zabaldu eta zarata izugarri bat nabaritu nuen, haize hotz batek zaplaztekoa jo zidan aurpegian, oraindik epelean nituen oin tipietarainoko hotzikara sentitu nuen.

Ez nuen habia epeletik irten nahi. Eta borroka latz horren ostean ahitzear nituen azken indarrekin atzera egitea lortu nuen. Erditzearen unerik zailenean burua guztiz kanpora ateratzear

nuela, emaginaren hatzek indarraren indarrez itxura gabetzen ari zitzaidan kaskezurra heltzekotan zeuden une horretantxe, berriro ere umetokira sartzea lortu nuen. Amaren sabelera itzuli nintzen, jadanik ez zegoen itsaso galduaren bila!

Bigarren saioan lortu zuten amaren sabeletik ateratzea. Esku arrotzek hartu ninduten besoetan, garbitu ninduten, arnasbideak zabaldu zizkidaten. Airez bete zitzaizkidan birikak eta itsas minez arima.

Amaren sabelaren gainean jarri ninduten. Ez nituen begiak ireki nahi, ez nuen klinikako hoztasuna ikusi nahi. Itsututa jo nuen haren bularraren bila. Inork irakatsi gabeko lehen ekimena burutu nuen titiburua topatu nuenean: ahoa ireki eta edoski nuen, edoski, edoski, edoski, munduan inoiz izan den mamarik goxoenaz mozkortuz. Eta esnearen gozoak eta zuriak sabela eta garuna bete ahala, istant batzuk lehenago arte bizileku izandako itsaso berdingabe haren gazia eta ordura arteko paradisuko bizitza ahantzi zitzaizkidan, betiko.

Hartara, lehendabizi *jaio egin ninduten* eta ondoren, gogoz kontra bada ere, *jaio egin nintzen*. Bizitzako lehen eten handia.

Geroztik etxetik kanpo lehendabizi eta Herritik kanpo ondoren eman ditudan urte hauetan guztietan makina bat aldiz hasi behar izan dut bizitza ia-ia hutsetik, gainean neramatzan arropak besterik ez nituela.

Eten bakoitza jaiotza moduko bat izan da, iragana izoztuta utzi duen kataklismo handi bat, erabateko aldaketa: paisaiak, jendeak, adiskidetasunak eta etsaigoak. Jaiotze uneko lehen eten hartaz geroztik, orain arte bizi izandakoa, Kantauriko olatuek ferekatzen dituzten Txubilloko flyschen antzera, ongi bereizitako geruza fin eta lodiez gogoratzen dut.

Azkenaurreko geruza atxilotu nindutenean osatu zen. Eta azkena, oraingoz, elbarri utzi nauen istripuak markatzen du. Hanken erabilera galdu eta eskuena berreskuratu dudan aroan bizi naiz harrezkeroztik, *hôpital*-ean.

Oraingoz elbarri ala betirako elbarri, nola jakin etorkizunak zer ekarriko didan. Zer beste geruzak osatuko duen nire bizitza. Dakidan ba-

karra da, lehen Amaren sabeletik bizien mundura bezala, orain bizien mundutik lekututa hilen munduaren atarira iritsi naizela.

Gorputz erdia hilik duena zer dago, erdi hilik edo erdi bizirik?

Xabierrek esango zukeen:

– *Abiatu izanaz damu eta iristeko presa gabe.*

Larrialdi gelatik atera eta gela berri batera eraman ninditenan. Han nitinan nire puska guztiak zain. Han nentzanan, ezgauza, ezdeus, erdibituta, negar egiteko ere idortuta. Oroimena zulatuta.

Istripuaz ezer gutxi gogoratzen nuen. Batzuetan, erortzen ari nintzen bitartean Dimitri/Jean-Noel ikusten nuen. Eskua luzatua du eta aurpegi keinu zehatzezina. Ezin jakin espantuzkoa ala bozkariozkoa. Oroitzen dudanean ezin dut erabaki bere eskua nire erorikoa ekiditen saiatzeko luzatuta duen ala bultzatu nauen eskua den ikusten ari naizena.

Badakit nire ondo-ondoan zegoela, hori bai. Elkartu ginen hurrengoan istripuaren bere bertsioa ematerakoan berretsi zidan: nire artekoetan bilduta, igogailura ordez eskaileretarantz abiatu nintzela zuzen, konturatu zela bera eta segituan abiatu zela nigana, argi ikusi baitzuen erortzeko arriskuan nengoela; tamalez, berandu heldu zela ezertarako, zorua bukatu eta makuluak lehen mailara irrist egin zidala, oreka galdu

nuela, mahukatik heltzen saiatu zela, alferrik, eta ia bera ere erori zela nirekin batera.

Etxartera jaisteko moduan egon nintzenean, Jean-Noelen bertsio hori berresteko edo ezesteko ikerketa burutu nuen etxarteko beste kideen artean, diskrezio handiz, hark deus jakin ez zezan. Ez nuen bertsio hori gezurtatu zuen inor aurkitu; batzuek erantzun ordez isilik egotea hautatu bazuten ere. Erantzun gabe begira-begira geratzen zitzaizkidan horiek ez dakit frantsesa ulertzen ez zuten atzerritarrak ziren edota farmazi industriaren sasi-paradisuko labirintoetan betirako galdutako gizagaixoak. Edonola ere, ez zitzaidan iruditu balizko zigor baten beldurrak mututututako ustezko lekukoak zirenik.

Hartara, Jean-Noel/Dimitriren bertsioa baino ez dut nire zorigaitzaren azalpen gisa. Eta susmoa, ez zela istripurik izan.

Modu batez edo bestez izan, kontua da istripuaren ondorioz gerritik behera ezinduta nagoela.

Egun luzeak eman nituen ohetik ia mugitu gabe. Telebistari begira eta ezer ikusi gabe. Lehen egun haietan jateko gogorik ez nuen. Ira-

kurtzeko gogorik ez nuen. Idazteko gogorik ez nuen. Bizi nintzen, gogogabetuta.

Hobera egin ahala, oheburuko mahaian eskura jarri zizkidaten nire kaierak irakurriz osatu nituen Istripu Handiaren ondorioz lausotuak nituen ordura arteko ospitaleko egonaldian bizi izandako gertaerak.

Ikustera etorri zitzaizkidan abokatuei esan nien ez nuela gogoratzen istripua nola gertatu zen. Nekatuegi nengoen Jean-Noeli buruz hitz egiten hasteko. Ordura arte inori ezer esan gabe, etxartean ustez DSTkoa zen kide batekin ibilia nintzela azaltzeari korapilatsuegi neritzon. Egunkarietako idazpuruak irudika nitzakeen hari buruzko aipamen txikiena egin izan banie: «*Euskal preso politiko baten aurkako erasoa. Frantziako zerbitzu sekretuak nahastuta egon daitezke*». Edo okerrago, nire izen abizenak nabarmenduz argitara zezaketen berria.

Xabierren berri ere ez nien eman. Zer esan behar nien, 36-37ko gerrako gudari batekin topo egin nuela ospitalean? Eta hain zuzen ere nire istripuaren bezperan desagertu egin zela? Erotzat

hartuko ninduten, zalantzarik gabe. Ulertzekoa izango zena.

Okerrago ere izan zitekeen. Dimitriren eta Xabierren berri emanez gero, istripuaren ondoriozko buru-kalteari egotz ziezaioketen guztia eta aurrerantzean nire hitzek sinesgarritasun guztia galduko zuten, eta aurrerantzean berriro ere literaturaz burua betea zuen *ñoñostiar kultureta progrea* izango nintzen denen begietara.

Suspertzen hasi nintzenean senideen bisita baimendu zuten medikuek. Oraindik ohean banentzan ere, nire aldarte ona erakusteko indar egiten nuen haiek etortzen zitzaizkidanean. Hasieran elkar besarkatu eta bizi nuen egoera tamalgarriagatik negar egin genuen arren, beti bezain esperantzatsu nengoela ikusarazten nien, baikor nintzela azaltzen nien, medikuen arabera elbarritasuna ez zela behin betirakoa eta borondate handiz eta ariketa etengabez agian berriro ere lortuko nuela «nire burua gobernatzea». Nire zangoen erabilera berreskuratzeko aukerarik bazegoela sinetsarazi nahi nien. Nik ere hala sinetsi nahi baitut, ez nagoela betirako gurpil-aulkiaren erroberei kateatuta.

Baina orduan artean zulo bel-beltzean bekainetaraino sartuta nengoen, eta ikustaldira etortzen zitzaizkidanek alde egiten zutenean nire ezintasuna biderkatu egiten zen: ezin nintzen mugitu! Ezin nuen ezer egin! Eldarnioa izan zedin nahi nuen, begiak ireki eta etxean esnatuko nintzela sinetsi nahi nuen.

Jasotzen nituen gutunak erantzun gabe uzten nituen. Batzuk ireki gabe. Lehen, jaso ahala erantzuten banituen, nire egoera fisikoak txarrera egin arau hasi nintzen atzerapenez erantzuten. Hanka apurtu nuenean astebeteko atzerapenez erantzuten hasi nintzen. Gero, hurbilenekoei baizik ez nien erantzuten. Senideei, lagunminei, kartzelako burkideei eta besteei ez erantzuten hasi nintzen arte. Ondorioz, jasotzen nuen posta kopurua hein berean murriztu zen. Presozainak, egunkariak eta lagunek harpidetu ninduten aldizkariak baino ez ekartzeraino murriztu ere. Inork moztu gabe, neronek utzi nuen usteltzera kanpoko munduarekiko zilbor-hestea.

Haurra amagandik bereizten denean kanpoko mundura jaiotzen bada, ni harrezkero, kanpo-

ko munduarekiko zilbor-hestea etenda, barne munduaren oskolera bildua nintzen.

Egunkariak eta aldizkariak jaso bezala uzten nituen, banaketa-enpresak igorri bezala, plastikozko zorrotik atera gabe, bazter batean pilatuta, biharamunean OLTak zaborrarekin ateratzeko.

Albisteen orduan telebista hotsik gabe uzten hasi nintzen. Irudiei begiratzen nien, esatariaren ezpainak irakurtzen nituen. Zentzugabeak iruditzen zitzaizkidan irudiak, niretzat jadanik ez zegoen mundu baten irudi birtualak. Esatarien hazpegiak aztertzen nituen, noiz irri, noiz serio, beren aldartearen arabera hurrengo berria zeri buruz izango zen asmatzera jolas eginez. Antzezle apartak zirela ebatzi nuen. Azkenean, telebistaren alokairua ordaintzeari utzi nion, eta pantaila ilunean *Munduaren leihoa* zioen afixa bat kolatzeko eskatu nion Christopheri.

Irratian musika besterik ez nuen entzuten. Pilak ahitu zitzaizkidan arte. Ez nituen ordezkoak erosi.

Ospitaleko gelako isiltasuna maitatzen ikasi ninan. Begiak itxita, inora ez ninderaman espa-

zio ontzi edo urpeko ontzi batean nengonan. Musikarik gabeko Espazioko Odisea edo Nemo kapitaina. Nor nintzen ahazten saiatzen nindunan. Arnasa sakon hartuz eta poliki-poliki botaz, bizia zango hebainduetan behera behatz punta sorgorretaraino irits zedin saiatuz. Ozeanoaren hondo abisalean murgiltzen nindunan, nik bakarrik ikusten nituen munstroz, pertsonaiez eta paisaia ilunez inguraturik.

Elbarri gelditu naizenez geroztik Fred, Christophe eta Veronique besterik ez ditinat onartzen ni artatzeko. Uko egin nionan beste OLTen laguntzari.

Fred arduratzen da nire gorputza zaintzeaz. Berak biluztu eta garbitzen nau. Ez naiz lotsatzen. Atxilotu ostean, epaitegirakoan polizien aurrean eta ikustaldien ostean presozainen aurrean behin eta berriro biluztu beharra oso gogorra egiten zitzaidan. Nola edo hala jarrera oldarkorra mantenduz egiten nion aurre umiliazioari, uko egiten nion galtzarbeak edota oinazpiak erakusteari, ahoa irekitzeari, makurtu eta eztul egiteari, ilea astintzeari; arropak erantzi ahala janzten saiatzen nintzen, haien aurrean erabat biluzik ez gelditzeko, haien aginduei errebelatzeko.

Senideekiko ikustaldia kenduko zidatela mehatxu eginez behartzen ninduten bospasei zakurren aurrean biluztera. Senide eta lagunak ikusi osteko zoriona zapuztea beste helburu ez duen biluzte saio bakoitza bataila bat izan zen.

Harrezkero nire gorputz biluzia erakusteko lotsa moduko bat nuen. Hondartza nudistetako

egonaldiak gogoratzean ohartzen nintzen zenbaterainoko eragina izan zuten nigan biluzte bortxatu horiek.

Kartzelak ez gaitu fisikoki soilik biluzten. Behin batean, kartzelatik atera berri zen batek esan zidan espetxeak hurkoaren aurrean uzten gaituela biluzik, lagun nahiz etsai. Nire kabuz ikasi dut, kartzelak gure begietara ere biluzten gaituela. Nolakoak garen erakusten digu, garen bezalakoak agertzen gara, mozorrorik eta apaingarririk gabe.

Iritsiberrien ziega hutsean, ordu mortuetan, egoera berrira egokitzeko denbora bihurritzen ari garen bitartean, gure burua inoiz ikusi ez dugun bezala ikusten dugu. Ispiluaren aurrean. Gure burua inoiz erakutsi ez dugun bezala erakutsiko dugu. Farfailarik gabe, ez bada aurreiritziz betetako gure kartzela-fitxarena. Presozainak, etsaia, eta gu gaude aurrez aurre, konbate desorekatuan. Ez dago lekukorik. Gure hitza beste ziurtagiririk ez dugu. Ez dago zer egin behar dugun agintzen digun inor. Ez dago gure ahuldadeen, gure porroten edota gure garaitzen berri emateko lekukorik. Geure buruari egindako zina-

ri izan behar gatzaizkio leial. Geure buruarekin dugu borrokarik latzena, munstroaren zetazko eta burdinazko eskutzarren artean beldurraren eta ohikeriaren aldizkako sehaska-kantek lokartu ez gaitzaten. Etsipena axolagabekeria bihur ez dadin. Borrokari ekin aurretik sinatu ez dezagun porrota.

Norbere buruaren kide hoberena edo txarrena bihurtzen gara espetxean. Eta jantzita goazelakoan ere biluzik gabiltza korridoreetan.

Bakarrik gaude. Gure ametsekin, gure beldurrekin. Maite gaituztenak eta maite ditugunak gogoan.

Orain, ikustaldien ostean, esku arrotzek altxatzen naute gurpil-aulkitik, metal detektagailua gorputzetik pasatzen didaten bitartean gurpil-aulkia miatzen dute, eta nik aurpegira egiten diet barre, ezer gehiago galtzeko ez duenaren ausardia lotsagabez.

Fredek eramaten nau garbitze saiorako dutxen gelara. Aspaldiko sentsazioak oroitarazten dizkit egoerak. Txikitakoak, amak jantzi eta eranzten ninduenekoak; gaixoaldietakoak, nire burua gobernatzeko ahulegi nintzenekoak.

Kontu egin gabe biluzten nau. Nire burua eranzten jakiteko adina badudala-eta, errieta egiten dit bere boz lodiarekin. Antzarak ferratzera bidaltzen dut.

Frederic ez da bere benetako izena. Gure arteko konfiantza handitu zenean nire idazkiez galdetzen hasi zitzaidan eta, nire bizipenei buruz idazten ari nintzela jakin zuenean, inoiz nire idazlanen batean bera aipatzen banuen bainuontzian itotzen utziko ninduela mehatxu egin zidan.

– Eta izena aldatzen badiat?

– Izena aldatu egidak nahi baduk, baina ez nazak bataiatu, arraioa! Eta ez egidak azala koloregabetu! –egin zuen barre.

Izena hautatzeko aukera eman nion arren, nire esku utzi zuen hautua. Jarri zidan baldintza bakarra, frantses kutsukoa izatea.

Boli Kostakoa da jatorriz. Arbasoak ditu hangoak. Bere gurasoak, etorkinak, nor bere aldetik metropolira bizirauteko irtenbide bila iritsi ziren. Joan den mendeko 80ko hamarkadako negu gorri batean ezagutu zuten elkar, txiroentzako *Resto du Coeur* baten itxaro-lerroan zeudela.

Paristar peto-petoa da ofizialki, Parisko *meublé* zaharkitu batean erditu zuen-eta amak, ahaide eta lagunak emagin lanetan lagunduta.

Jaio eta gutxira Freden jaiotzak ahalbidetu zizkien gizarte laguntzei esker *HLM* bat egokitu zitzaien Parisko aldirian, eta Fred *banlieusard* bilakatu zen. Berak ordea harrotasunez aldarrikatzen du bere paristartasuna, eta hargatik taldekoentzat *Freddy le parisien* izan zen.

Ozen egiten du barre. Auzo taldeko gehienek ez bezala, berak ikasketak egin zituen. Fredek ikasgaiak eta ikastaroak gainditzen zituen bitartean taldekoek aiseago gainditzen zituzten kaleunibertsitateko mailak, Paris inguruko kartzeletan egiten zituzten txandakako egonaldietan jasoz diplomak. Fred zen atxilotu ez zuten taldekide bakarra. Maiz jasan izan zituen polizien kontrolak eta umiliazioak, baina izaeraz apala zenez, burua makurtu eta galderei erantzuten zien, etxera joaten uzten zioten arte. Umiliatuta, batzuetan kolpatua ere bai, baina aske, beste guztiak harro eta atxilo eramaten zituzten artean.

Ohiko txirriez gain ez zuen bestelako drogarik dastatu. Amaren aholkuak zintzo jarraitzen zituen, bazekien lana aurkitu behar zuela albait lehenen, aita usinean izandako istripuan ezinduta gelditu zenez geroztik jasotzen zuten baliaezintasun ordainsariarekin doi-doi iristen baitziren hil amaierara.

Aita ezindua artatzerakoan erakutsitako gaitasunak bideratu zuen OLT ikasketak egitera. Ez zuen orduan inolaz ere pentsatuko Fredek, OLT postua eskuratzeko ikasketei ekin zienean berak ere taldeko gehientsuenek bezala kartzela ezagutuko zuenik. Bera bertatik egunero sartzen eta ateratzen bada ere, *banlieue*ko gazteen etorkizuna aldez edo moldez kartzelarekin lotuta dagoela esaten dit. Berak ezagutzen duen koadrila batekoen artean trafikatzaile, lapur, polizia, zinpeko eta baita kartzelazainak daudela. Eta urtean behin denek elkartzen jarraitzen dutela, preso daudenak ez beste, noski.

Ez zait axola Freden aurrean biluzik egotea. Laztanduko duen urean murgiltzea besterik ez du iguriki nire gorputz erdiak. Besoetan hartzen nau bainuontzira sartzeko. Nire hanka zimelak

indarge hondoratzen ikusten ditut, harrituta. Hankak sartzerakoan, betiko txantxa:

– Tenperatura egokia, Mikel?

– Zakurraren uzkia miaztera, Fred!

Nire gorpu-adarretatik desagertutako sentsazioak berpizten saiatzeko, batzuetan ur beroberoz betetzen dit bainu-ontzia. Bestetan hotz-hotzez. Egunen batean beroagatik edo hotzagatik kexatuko naizen esperantza ez dugu galtzen.

Pixkanaka sartzen nau, ipurmasailak, bizkarra, sabelaldea, bularraldea, lepoaldea... eta nire gorputz erdia berpizten hasten da, beste erdiak sentitu ez ditzakeen sentsazio guztiak metatuko bailituen. Nire izurde sena esnatzen da, sabeletik abiatzen den uhin batek erne dudan gorputz zatia korritzen dit, olatuekin amets egiten hasten naiz, murgil egiten dut, must!

Plazerezko uhinaren ferekara ohitu ahala sentiberatasunaren mugara begiratzen dut, «hortik behera ez nago, ez naiz», pentsatuz.

Kartzelatutakoan, gabeziarik handienetakoa izan nuen gorputz osoa urez inguratuta sentitzearen plazera gozatu ezina. Itsasoa eta erreka ments nituen, kloroz desinfektatutako edozein

kanpinetako igeritoki bat ere gustuz onartuko nukeen. Harraska urez bete eta burua sartzen nuen, ur azpian egotearen sentsazioen xerka. Dutxa hotzak hartzen nituen, uretan murgiltzearen sentsazio bizigarriak nigan berpizteko: neguan, Urtatseko lehen bainuarenak; udan, Uhaitzandiko ur-lasterrenak, Kontxako Gabarroia azpitik igarotzearenak.

Orain, ospitaleko bainuontzian, Fred gurutzegramak egiten ondoan, gorputz osoa uretan sartzeko aukera izanda ere, ezin dezaket plazera osotasunean sentitu. Arnasa hartu eta burua sartzen dut uretan, arnasari eusten diot. Ur azpian, zaratak uraren belusak galbahetuta entzuten ditut. Ixten ditut begiak, oroimenean bilatzeko hondartzako haur eta helduen txipli-txaplen eta hurbiltzen ari ziren motor hotsen oihartzuna.

Burua ateratzen dut. Errealitatera esnatzen naiz. Urez inguratuta nago, behiala bezala, txikitan bezala. Olatuak ditut ments. Eta gorputzaren erdia.

Christophek nire aldartea alaitzeko beharrezko guztiak eskuratzeko ardura hartua din beregan. Alaia dun izaeraz. Egiten duen lana gustukoa duela nabarmentzen zaion. Kartzela-ospitale honetako zorigaitzak arintzeko zeregina beregain hartu izan balu bezala, beti zebilen irribarretsu, beti din astia eriokin hitz-aspertuak egiteko; zauri fisikoak zaindu ezin baditu arimakoetan ukendua ematen iaioa dinagu Christophe.

Horretarako hitz hutsak baino baliabide eraginkorragoak erabiltzen ditu. Benetan ausarta da Christophe. Badaki kanpoko mundutik ekartzen digun zernahi gauza askatasun puska bat bezalakoa dela guretzat, debekatuta zaigun munduaren zati bat hatz puntekin ukitze hutsa berebizikoa dela guretzat, egunen batean eskuratuko dugun paradisua hor dagoela, ez dela desagertu, eta oraindik gure zain dagoela egiaztatzen digun froga baita.

Batzuek aldizkari pornoak eskatuko dizkiote, beste batzuek gozoak, txokolateak, gutiziak, aspaldian dastatu gabeko jaki bereziren bat, emazteak erabiltzen duen (edo zuen) perfumea, eta

abar. Doan ekartzen ditu, bai baitaki gehienek ez dutela dirurik. Badaki ere nori ordainarazi diezaiokeen gutizia. Nori ekar diezaiokeen ere erretzekoa, salatua izan gabe.

Susmoa dut bere bihotz zabalak arrisku handiagoak hartzera behartu izan duela Christophe. Arratseko txanda duenean, azken ikustalditxoa egiten dio tiroketa batean bizkarrezurrean jasotako balazoaren ondorioz gerritik behera ezindua dagoen erkideari. Oso hurbileko duela nabarmena da. Ohi baino luzaroago egoten da harekin. Presozainek ez diote inoiz deus esan, eta haiek ere jakinaren gainean daudelakoan nago. Balak ezindutakoa nire auzo-gelan dagoenez, zabaldutako leihotik entzun ditzaket harenean hitz egiten direnak. Batzuetan bien arteko kalakaldiak besterik ez dira, baina beste batzuetan ezindua entzuten dut soilik hizketan, Christopheren erantzunik aditu gabe. Azken orduko kafe estrarekin batera, Christophek telefono mugikorra ekartzen diolakoan nago.

Fredenean agindu direnak eskari goxo dira Christopheren ahoan. Bera izan zen hitz egin

zidan lehena, eta berari esker hasi nintzaien gela egitera zetozkidanei konfiantza egiten.

Orain ia egunero ekartzen dit zerbait, jaki edo denbora-pasa. Mp3-a ere berak lortu zidan. Eta berak iradoki zidan, nire egoera kontuan harturik ordenagailua kartzelako ziegatik ospitalera ekartzeko baimena eska niezaiokeela zuzendariari. Uste dut nire eskariak baino eragin handiagoa izan zuela Christophek berak ospitaleko agintarien aurrean egindako gestioak.

Niri ere isilpean kafea ekartzea nahi ote dudan galdegin zidan azken aldian. Gure sendiaren berri eman diot jadanik, oraindik segapotoa eskatzera ausartu gabe (izango ote dun hik ere lortzeko aukerarik?).

Edonola ere, baimena eman zidaten, eta ordenagailua berreskuratu nuen eguna egun handia izan zen. Harrezkero, hanketan galdutako bizitasuna hatzetan irabazitakoarekin ordezkatu dut.

Izan dut, bai, zertan denbora pasa. Hasteko Xabierren kaierak nituen garbira pasatzeko. Horrek egunaren zati eder bat hartzen zidan. Baina horrekin batera, nik idatzitako poemak eta kon-

takizunak berridazteari ekin nion, eta berridatzi ahala, ospitalera iritsi nintzeneko pasadizoak beste ikuspegi batez aztertzen hasi nintzen.

Batzuetan ordenagailua piztu eta aurrez pentsatu gabekoak idazten hasten naiz, izugarrizko abailaz, orduak eta orduak eman ditzaket teklatua zigortzen, taka-taka-taka, metrailadorea zirtaka ospitaleko isiltasuna apurtuz.

Christophek ekarri zidan gurpil-aulki motorduna ere. Veronique eta Fredekin batera etorri zen egun hartan.

– Ba al duk gidabaimena? –galdetu zidan Christophek.

Fredek besoetan hartu eta aulkian jesarri ninduen. Ez zen batere zaila gurpil-aulkia erabiltzea. Lehen bidaia hartan istripuren bat izan nezakeen beldur-edo, Fredek Veroniqueri eskatu zion nire ondoan egiteko ibilbidea.

Veroniquek gutxitan hitz egiten zidan. Aldi hartan, korridore burura iritsi ginenean ahapeka esan zidan:

– Gauza batzuk dauzkat zuretzat.

– ...

– Sartu eskua kuxinaren azpian.

Berak esan bezala, ipurmamiak babesteko jarrita zegoen kuxinaren azpia haztatu nuen. Esertzerakoan sentitu ezin nitzakeen kaiera batzuk ukitu nituen.

– Ez atera orain, goazen gelara. Ea nola moldatzen zaren itzulia emateko.

Gehiago kosta zitzaidan tramankulua gelarako bidean jartzea. Ordurako Fred eta Christophe alde eginda zeuden. Veronique eta biok bakarrik gelditu ginen gelan. Xabierren egunorokoak nire ipurdi azpitik atera eta altzoan jarri zizkidan. «Bai arinak direla!», pentsatu nuen.

Veroniquek eman zidan egunerokoen misterioaren azalpena:

– Zure lagun Xabier eraman zutenean nik egin nuen bere gela. Haren lastairaren azpian zeuden gordeta, zuretzako ohartxo honekin.

Burua okertu nuen, lanerako blusa zuriaren gainaldeko botoi bat askatu eta eskua titi-zorroan sartu zuen. Lautan tolestutako ohartxo bat eman zidan eskura.

Idazkera txukunez idatzitako lerro xume batzuk besterik ez zeuden bertan:

Mikel,

Hiretzat uzten ditiat nire egunerokoak.

Badakik historia ez dutela irabazleek idazten, oroitzen dutenek baizik.

Eta ez ahaztu: *azken urratsa, gorputzetik ateratzen denean hatsa*.

Xabier

Hunkituta nengoen. Eta aztoratuta. Xabierren berri izateagatik eta bere egunerokoengatik.

Xabier eraman egin zutela esan zidanez Veroniquek, nork eraman zuen eta nora eraman zuten galdetu nion arren ez zidan erantzun argirik eman. Berak ez omen zekien deus.

Egunerokoak eta ohartxoa besterik ez neuzkan. Egunerokoek ezkutatzen zituzten lekukotasunak deskubritu nahi izan nituen segituan. Iraganetik zetorkidan ahots hori neureganatu nahi nuen. Ez zen izango Historia eskuliburuetan azaldu ohi den kontakizun baldintzatu eta hotza. Lekuko zuzen baten hitzak ziren.

Zer dela-eta idatziko zituen eguneroko horiek Xabierrek? Norentzat? Besoetan hartu nituen. Astunak ziren. Bularraren kontra estutu nituen.

Nire esku zegoen Xabierren herentzia orain. Xabierrek ziostan oroitzen dutenek idazten dutela historia.

Gelan bakarrik gelditu nintzenean, Xabierrek gordetzeko eman zidan beste kaier hartaz gogoratu nintzen. Gorde nuen lekuan zegoen. Huraxe irakurri behar nuela aurrena erabaki nuen. 1937ko urteari zegokiona, Xabierrek 17 urte zituenean idatzitakoa.

Irakurtzen hasi orduko harriduraz ohartu nintzen han ez zela lubakietako gertakarien kontakizunik ageri batere. Bizkaia aldean urte hartako lehen hilabeteetan gertatutakoaren lekukotza zuzena zen orrialde horietan Xabierrek idatzi zuena. Xabierren egunerokoak leku ziurrean gordetzeko aukera iritsi bitartean, irakurri ahala gertakari garrantzitsuenen berri ematen zuten pasarteak azpimarratzen hasi nintzen.

Itxi dinat kaiera. Xabier guraso eta anai-arrebekin etxera itzuli zeneko 1937ko maiatzaren 1eko ilunpeko Donostia hari buruz gogoeta egin dinat. Nola edo hala etxera itzultzeko zuten antsia horrek birikak, sabela eta bihotzaren arteko gune zehatzezinean dardara egin zidanan.

Nola itzuliko gaitun gu? Ez etsaiari errekisatutako tankeen gaineko bizardun horiek bezala, ez lore eta paperezko tximeletaz beteriko etorbide alaietan barrena heroiak besarkatzera eta musukatzera bildutako jendetzaren oihuen artean.

Ez, noski.

Guk ez dinagu halakorik nahi izan sekula. Lehen bezain anonimo itzuli nahi geninake. Behin eta berriro pintatu arren oraindik ere gure besoen gabeziaz goroldiotzen diren petriletara. Gure begiradarik gabe oroimenean kamustu zaizkigun mendi tontorrak zorroztera, bailarak leuntzera, errekak dantzatzera.

Ezer gertatu ez balitz bezala. Gure absentziaren prezioa, oker zeudenak zuzentzea besterik izan ez balitz bezala. Gure zorionaren hildakoei

barkamena eskatzera. Eta gure sufrikarioen arduradunei barkatzera.

Xabierrek bizitakoa gogoan nerabilela otu zaidan, gure burua euskal herritartzat dugunok gure herria deitzen dugun honetako xokoren batean atzerritar sentitzen garen bitartean ez dela Euskal Herririk izango.

1937ko maiatzaren leheneko Donostia biltzen zuen ilunpe horretatik guztiz atera ezinik zagon gure herria. Nola garbituko din inork orban bat, baduenik ere jabetzen ez bada?

Olatuekin jolas egitera gindoazenean, itsasbeherak Ondarretako kartzelako zimentarriak erakusten zizkigunan. Aitak kontatu zigunan nola bera gaztea zenean lehertu zuten kartzela; eta osaba batek bertan egonaldia egin zuela ere.

Orain bazakinat, udan antxeten eta haur jolasen zaraten artean, eta neguan Teniseko paseoan gora euripean nindoala entzuten nitinan ahots horiek ez zirela nire irudimenekoak, olatuen aparrak zekarkidana Ondarretako kartzelako behe-solairuko ziegetan itsasgoran ur hotza belaunetaraino iristen zitzaienen aienak zirela.

Itzulitakoan ez nitizken berriro entzun nahi, haien atsedena ere iritsi izana nahi niken.

Hiriaren egoneza apenas disimulatzen dun farfailaren eta su artifizialen atzean. Berrogei urtez zaindutako normaltasunera ohitutako hiriak, beste hainbestez ere jarrai zezaken itxurak egiten. Ongi ikasitako lezioak, odolez ikasitakoak, ez baitira hain erraz ahazten.

Xabierren belaunaldikoen porrotaren osteko erreboltariok itzultzen garenean sendatuko dun zauria, hartuko diten atseden hildakoek, lurperatuko ditinagu gorrotoa eta mendeku gogoa. Eta egingo dinagu negar. Eta barre.

Elbarritu ostean aldatu ninduten gela honek sartaldera din leihoa. Ikusmira ederra dinat hemen ere. Bitxia dun nola berrosatzen duen ikusmenak burdin barrek edota sareek eteten duten paisaia. Begiratzen dudanean ez ditinat jadanik leihoko zementuzko egitura eta sarea ikusten.

Alde honetan, ahateen parkearen ordez hodeiertzean zerrenda beltz bat bezala ageri den oihana hautematen dut. Arratsetan eguzkia zuhaitzen atzean ezkutatzen ikusten dut. Luzaroan egoten naiz leihotik begira. Oihan horren atzean, urrunago askoz, itsasoa dagoela dakit. Ilunabarrean, eguzki gorria itsasoan urtzen ikusitako parajeak gogoratzen zaizkit.

Arratseko azken printzek doratu dute gela. Erridaua zabaldu dut pixka bat, baina ez guztiz, eguzkiari sartzen uzteko aski. Begiak itxi ditut. Leihoa zabalik, arnasa sakon hartu dut. Eguzkiaren fereka nabari dut betazaletan. Erretzeari utzi ez banio zigarreta bat pizteko une aproposa litzateke. Klask! Sakon tira egin, kea gorantz bota, kea gorantz nola doan begiratu, eguzki printzek

nola egiten duten jolas kearen kiribilekin. Hautsontziaren bila abiatu beharko nintzatekeen.

Kartzelako hormaren gainetik ikusten ditinat kartzela aurreko Askatasunaren hiribidearen bi aldetan dauden zuhaitzen tantaiak, ezkiak uste dinat. Aspaldi zenbatu nitinan: hogeita bost zauden ospitaletik *Quartier* Nagusiraino, eta beste hainbeste *Quartier* Nagusitik hi haukaten Emakumeen *Maison d'Arrêt* txikiraino. Kartzela-eremuaren sarrerako hesiaren ondoan dagoen bandera zuri-gorri-blua ere doi-doi ikus zezakenat, arratseko azken printzetan dantzan; armaz hornitutako zaindariak –masta bezain harro eta zutizango ditin alboan.

Isildu da kalea.

Eskuin aldera aldiriko eraikin erraldoi batzuk daude, ilundu ahala gizakien zereginen arabera keinuka hasten direnak, egongelatik sukaldera, sukaldetik bainugelara, bainugelatik logelara. Batzuek berriro ere sukaldera jotzen dute eta ondoren egongelara doaz, argia itzaltzean telebistaren argi koloretsu eta keinukariek apaintzen dituzte hormak.

Sendi arrunta irudikatzen dut. Afaldu dute, haurrak oheratu dituzte, hozkailutik freskagarriren bat hartu dute eta telebistaren aurrean jesarri dira, eguneko gorabeherak elkarri aipatzeke.

Hurbilen dagoen eraikineko laugarren solairuko leiho batean agertu da emakumea. Eskua eskuineko belarri ondoan du. Telefonoz ariko da hizketan. Bere atzean telebista piztuta, zurtz. Ez duela sendirik erabaki dut; bakarrik bizi dela. Bere ezpainak hizketan irudikatu ditut. Gero hitzak asmatzen ditut. Isiltzen denean, telefonoz bestaldeko mintzaidearen erantzunak entzun nahi nituzke. Negarrez ari ote da? Garrasika? Zergatik ez daude elkarrekin?

Emakumea barrura sartu denean piztu dut argia nik. Xabierren egunekoa zabaldu dut. Gurea izandako beste gerra bateko sufrimenduez ari da. 36-37 bitartean eta gerora ere luzatu zen sufrimendua. Porrotaren mikatza. Gure gerra nola kontatu behar dugu? Denboran hedatzen den sufrimendua. Sufrimenduaren metatzea. Metatze ikusezina.

Ez gaude kale gorrian, saihets hezurrak agerian, betzulo ilunez errukia eskatzen. Egunero

berdintzen dugu gosea, ohantze goxoetan egiten dugu lo. Irri egiten dugu. Babes-jantzi sendoa dugu, oro har. Bertsotan egiten dugu. Liburuak idazten ditugu. Gutunak idazten ditugu. Ezkondu egiten gara eta haurrak sortzen ditugu. Gure borreroek irriz ikusten gaituzte, arratoi kakaz betetako beren kaiola estuetara sartzen. Ez dute ulertzen nolatan ez garen jadanik errenditu, beraiek baldintza bertsuetan aspaldi saldua zuketenean ama ere. Torlojua gehiago estutzen digute; juxtu irriz ari ginenean.

Osabak Duesoko penalean heriotza-zigorra noiz beteko zuten zain pasatako bi hilabete latzen berri ematen duten pasarteak irakurri eta itxi dut Xabierren egunekoa.

Orain ezin ditut leihotik kanpora atera eskuak. Ezin naiz leihoan bermatu lehen bezala.

Gure etxean, artadiez hara dagoen pentzeari begira egoten nintzen leihoan. Auzokoaren behiak xaxatzen ikusten ditut gure etxeko jabearen zakurrak. Laster entzungo da baserritarraren haserre oihua: *Li-fo*! *Bouillote*! *Pistache*! Zakurrak uxatu nahian, alferrik.

Hostoak galtzear oroitzen dut lizarrondoa. Ezkia ere bai. Udazkena. Pirinioetako lerroa zein zehatz ikusten zen egun batzuetan. Betiereko elurra eguerdiko eguzkipean dirdirka. Semea lizarrondotik zintzilik dagoen zabura igo dun, eserlekuan zutik zagon, etxerako aldapa zelatatzen. Beheko bihurgunean aldapari ekitean autoak altxatzen duen hauts hodeia noiz ikusiko, noiz etorriko haizen edo noiz etorriko naizen. Ikusi orduko zorion oihuz etorriko dun sukaldera, «badator amatxo!» iragartzera. Bagatozela gure paradisura, ikusten ez den guduko beste bataila bat irabazita. Atzeman gintuzten eguna ospatu zutenerako zenbat bataila ez ote genituen irabazi? Askatasun egun bakoitza, borroka egun bakoitza garaipen egun bat, zorion eguna, gure herriaren biriketan sartutako arnasa bizigarria.

Arropa erabiliak garbigailuan sartu ditinagu afalaurretik. Ilundu aurretik hiruron artean zabaldu ditinagu arropak, baratze ondoko esekitokian. Biharamunean, ezingo ditinagu bildu, eskuak bizkarrean lotuta, mozorrodun armatuz inguratuta. Pizza prest zagon labean. Nork egingo du harrikoa gero?

Azken datuen bila, mikrofono direkzionalekin eta beste gailuekin etxean zenbat gauden eta nortzuk garen asmatzen, etxeko argiak gelaz gela nola ibili diren zelatan zauden goizeko seietan etxeko atea apurtuz sartuko direnak: egongelatik sukaldera, sukaldetik bainugelara, bainugelatik logelara, logelatik langelara. Berandu arte egon dun piztuta argia langelan. Semearen loa zaindu ondoren, logelakoa une labur batez baizik ez dinat piztu hire alboan oheratu aitzin, denbora luzean elkarri besarkatuta egongo garen azken orduak ditugula jakin gabe.

Aurreko eraikineko erridauak zabaldu dira. Emakumea agertu da leihora. Keinu zakarrez urrundu du telefonoa belarritik, sakelan gorde du edo zakar bota du besaulkira, ez dut ikusten hemendik. Negarrez ariko da. Atzeko horman telebistaren kaleidoskopioa islatzen da, alai. Mututuko zuen telefonoz hitz egiteko.

Ilun zagon gaua orain. Hormetatik harantz, polizien autoen argiak hiribidean gora eta behera ikusten ditinat, kartzelarako bezero bila. Autobideko zaratotsa lehen baino nabarmenagoa dun.

Sakelakoa lortzeko eskatu behar zionat Christopheri, bai. Hik ere beharko dun bat.

– Allô! Maitea? Bai. Maite haut.

Ohean etzanda eskuin eskuko erdiko hatzari begira nagon. Zurrunduta gelditu zaidan, loditu-ta, erauzitako hezurtxoa ez baitzen jatorrizko to-kian itsatsi. Beste hatzetan aise sartzen dudan eraztunak ez din bigarren falangetik behera egi-ten. Tolesten dudanean min tipi bat sentitzen dinat. Hanken aldera begiratzen dinat orduan, zer ez nukeen emango eskualde mortu hartako bazterren batean halako min tipi bat sentitzea-ren truke.

– Emango al hituzke eskuak hanken ordai-nean? –galdeginen lidake Xabierrek, xaxatzeko, estualdian jartzeko.

Eskuak ala hankak, ez al dago beste hauturik bizitzan? Badakit baietz, badakit bietan trebeak direnak daudela, ekintzaile saiatuak eta idazle apartak. Niri ordea, bata edo bestea hautatu be-harra egokitu zait beti.

Aulki honetara lotuta aurkitu naizen arte ez dut gogoeta egin, bizitzan zehar bestelako hau-tuak egin izan banitu nolako bizimodua izango nukeen. Bidegurutze bakoitzean ipar edo hego egiten dugu eta hautatu bidean goaz. Batzuetan

mendebaldeko bidea ikusmiran dugula jarraitzen dugu iparraldekotik.

Gerta zitekeenak ameskerian laketzeko edota literatura egiteko besterik ez du balio: hegoalderako bideari begiratzen diot, hor noa koadrilakoekin, hor nago tertulia goxoan, hor nabil harat-honat. Ezkonduko ote nintzatekeen? Dibortziatuta nengokeen? Etxe baten jabe ala hipoteka baten jabe nintzatekeen? Eta baita ere, neska harekin ezkondu izan banintz...; abortatu ez bagenu zenbat urte izango zituzkeen orain gure seme ala alabak...; ezetz erantzun izan banio proposamen hari...; eta baietz beste hari...

Gure erabakiak bestelakoak izan balira bizitza bestelakoa izan zitekeela pentsatzeko joera zentzugabe hori, gizakiaren berezko joera txatxu eta itzuri ezin hori, ezta? Gizakirik zentzudunenak ere ezin du, ordea, noizean behin halako pentsamenduak izatea eragotzi. Eta niri, orain, bizitzaren pausa behartu honetan, denbora sobera dudalako, segur aski, inoiz ez bezala sortzen zaizkit nire iragandako bizitzaren hautabide hipotetikoak. Eta irribarrez egiten dut gogoeta.

Gaztetan, maizegi izaten nituen halako burutazioak. Ekidin ezineko droga bihurtu zitzaidan jolasa. Erabaki bat hartu ahala hasten nintzen beste aukera hautatuz gero etorkizuna nolakoa izango zatekeen oldozten. Gutxira, erabakiak hartzeko ezinduta nengoen. Bi aukeren artean zein hautatu ordez, etorkizuna iradokitzen hasten nintzen. Besteek nigatik erabaki zezaten uzten nuen finean, eta nik baldintza eta ahalen alegiazko munduan jarraitzen nuen. Ezaxolati, arduragabe, gozoan...

Ba al dago erabakirik hartu behar ez izatea baino egoera gozoagorik?

Inork gure ordez aukeratzen uztea ere hautua dela ohartu nintzen arte jarraitu nuen besteren erabakien arabera nire bizitza nola antolatzen zen kontenplatzen. Hauturik koldarrena zela ohartu nintzen arte. Esnatu beharra nuen.

Jolas arriskutsuegia eta droga gogorregia da, badakit. Izan gintezkeenaren ezinezko ispiluan gure burua ikusten saiatzeak zuzen eraman gaitzake-eta etsipenera; eta bestela, horra arriskua, damura.

Ez al da alfer-alferrikakoa izan gintezkeenarekin eta ez garenarekin amets egitea? Buruhauste hutsala. Garena gara, egin duguna egin dugulako. Aukera izan dugunetan hautatu duguna hautatu dugulako. Halabeharrez eta oharkabean, gehienok. Kontzientzia osoz, gutxienek. Tinko eutsi geniolako, burugogor eta setoso izan ginelako. Haren proposamenari baietz esan geniolako, mehatxuen gainetik eta beldurra bezatuz.

Halako batean, tankera horretako ameskeriei itzuri egiten saiatzen hasi nintzen. Zer izan nintekeenari buruz oldozten pasa ordez egun osoa, nor izaten hasi nintzen.

Ez zen erraza izan urtetan hartutako ohitura txar horren menpekotasunetik askatzea. Orduan nintzenaren eta etorkizunean izan nintekeenaren mundu abstraktu eta aukera aniztun hartatik aldentzeko prozesuan, nitaz nagusitu zen ezinegona baretzeko *metadona* edo *subutex* egokiena literaturan aurkitu nuen. Nire etorkizuna kontzientzia osoz erabakitzen hasi ahala, nire bizitzaren ildoa zehazten hasi ahala literatura liburuak irensteari ekin nion.

Ordura arte nire etorkizunarekin fikzioa egin banuen, aurrerantzean idazleek liburuetan eskaintzen zizkidaten mundu asmatuak itxuraldatzeari ekin nion.

Ez nituen liburuak besterik gabe irakurtzen, beraz. Azaltzen ziren pertsonaien hazpegiak aldatzen nituen, adiskideenak jartzeko. Egileak aipatzen ez zituen ahots doinuak eta ibilerak asmatzen nizkien pertsonaiei. Idazleak hartzera behartzen zizkien bideen ordezkoak asmatzen nituen: kontakizunaren haria guztiz aldrebesten zuten maitaleak asmatzen nizkien; protagonistak ongi merezitako atsedena hartzen ari ziren unean bertan lerro arteko arriskuak atzematen nituen; mapak seinalatzen zuen tokian ez zegoen altxorrik; hiltzaileak kontu handiz ezabatutako hatz markak berriro agerrarazten nituen; amaiera zoriontsura iristear zeudela gertatutako istripuan, baten ordez maitale biak itsutzen nituen; haurrak sortzen nituen maitaleen haustura-unean; trenak garaia baino lehen abiarazten nituen; kartzeletako ateak irekitzen nituen, eta itsasoak husten.

Finean, idatzita ez zeuden liburuak irakurtzen nituen. Plazera biderkatuz, bide batez. Gaztaroko garai zoriontsuena izan zen. Erabakitzeko ezintasunak sortutako paralisitik askatzeaz gain, sortzaile bihurtu nintzen, bestek sortutako munduen kontura bazen ere. Liburu bat irekitzea abentura zirraragarriari ekitea zen. Idazle ikusezina nintzen. Sortzaile bizkarroia.

Liburua ixten nuenean ere tarte batez jarrai nezakeen pertsonaiekin jolasean, eguneroko bizitzaren zurrunbiloan aienatzerakoan umezurtz uzten ninduten arte.

Halako batean jabetu nintzen idatzizko munduak gugan sortzen dituen hunkiduren katea ez dela benetako bizitzakoen oihartzun apal bat baino. Gure bizitza erabakiz osatutako kate luzea izanik, erabakiek ondorio ukigarriak dituztela gure eta besteren bizitzan.

Horregatik da itxuraz hain gozoa erabakirik hartu behar ez izatea. Bestek gugatik erabakitzeak arduragabetzen gaituela uste dugulako. Beti esan dezakegulako hori ez genuela guk erabaki.

Hori ez da bizitza ordea. Bizitzea erabakiak hartzea eta erabakien ondorioen erantzukizuna eta ardura onartzea da. Han eta hemen.

Bizitza ez da, literatura bezala, hipotesien segida sekula gauzatu gabea. Bizitzako esaldiak ezin dira, orain idazten ari naizen hauek bezala, behin eta berriro zuzendu, adierazi nahi dudana zuzen azaldu arte.

Ohiko Diazepam eta Myolastan gaindosiak eragindako loalditik ezin esnatu nengoen batean, zein ordu zen ezin asmatuz, ilunabarra eta goizaldea berdintzen dituen argitasun ahulak lausotzen baitzuen gela, ohearen alboan izaten nuen gurpil-aulkian norbait zegoela iruditu zitzaidanan. Burua biratzeko nagia ninan, ordea. Kotoi artean bezala entzun ninan Xabierren ahotsa.

«Ametsetan nago, noski», pentsatu nuen.

– Nire egunerokoan aurkituko ez duan zerbait kontatuko diat –hasi zitzaidan esaten bere ahots meheaz–. Aitatxoren altzoan egin nian azken bidaia. Cadizko La Linea de la Concepcion zigor eremuan gaixorik hil eta bertan lurperatu ninditean. Amatxok ezin zian eraman ni hain urrun, lur arrotzean hobiratua egotea. Urtea joan eta urtea etorri eskatzen zioan aitatxori nire gorpuzkinen bila joateko: «Hoa eta ekar ezak semea gurera. Gure lurrean egongo ez den artean ez diat-eta atsedenik izango». Eta bila etorri zitzaidaan aitatxo. Hilerriko zaindariari eskupekoa emango zioan eta gorpuzkinak lurpetik atera eta kutxa batean eman zizkiotean. Haiek hartu eta

berriro ere trenera. Anaia gazteena orduan Madrilen ikasle zegoenez, hark alokatutako ostatuan pasatu genian gaua. Beraiek biak ohe estuan, ni ohe azpian, txikitan kuku-gordeketa jolas egiten nuenean bezala, isil-isilik. Biharamunean berriro ere trenera. Donostiako Norteko estazioa helburu. Ez diat uste begia bilduko zuenik aitatxok. Zein arin eta zein astun nire hezurrak aitatxoren magalean. Triki-traka, triki-traka. «Ez egin kasurik pareko gizonari, kutxan zer ote daramazun galdetzeko irrikaz dago, egin lo plantak, baina ez zaitzala benetan loak hartu, ez nazazula askatu», esaten nioan. Zaratarik egiten ote zuten nire hezurrek? Trenetik jaitsi ahala polizia armatu bikote batek gerarazi gintian.

– ¡Buenas tardes señor! ¿Qué lleva en esa caja?

– Son herramientas del trabajo.

Sinetsi egin zioan, ez zioan kutxa irekitzeko eskatu. Aitatxoren nekatu itxuragatik kupituko zitzaioan agian.

– «Goazen etxera, aitatxo. Eraman nazazu amatxorengana, arrebatxoaren ondora. Emadazue gure lurrean atseden», esan nioan.

Sabaira begira nengoen. Xabierren itzala gelako itzalekin nahastuta ikusten nuen. Bere ahotsa leiho zabaldutik sartzen ziren hotsen artean disolbatzen zen. Begiak itxi nituen.

Xabierren egunerokoak lurraren gainazalera egiten duten hezur zahartuen modukoak zirela otu zitzaidan. Bakoitzak bere egia, bere historia ondo atxikita dutela.

Buiari indar guztiz urpera eraginda ere, azkenean ur azalera egiten duen bezala, hezur zaharrok ere bakea emango dien lurraren bila egiten dute. Malkorik gabe. Hildakoen begiek ez baitute itsasorik ikusten.

Elbarritu nintzenez geroztik Fred eta Veronique batera hasi zitzaizkidanan etortzen gela egitera. Dutxen gela hartuta ez badago Fredek garbitzera eramaten nain, Veroniquek gela egiten duen bitartean. Dutxetan beste eri batzuk baldin badaude, gelan egoten naun Veronique lanean ari dela.

Fredek besoetan hartu eta ohetik gurpil-aulkira eramaten nau, Veroniquek ezer baino lehen ohea egin diezadan. Nahita ere ezingo nioke lagundu orain. Ohea eginda dagoenean berriro besoetan hartu eta oheratzen nau Fredek. Beste zereginetara alde egiten du gero, Veronique eta biok bakarrik utzita.

Ez dugu hitz egiteko ohiturarik. Nik ez diot galderarik egiten eta berak ez du niri buruzko interes berezirik azaltzen.

Lehengoan ordea, niri bizkarra emanda zorua garbitzen ari zela hizketan hasi zitzaidan.

– C’est moi qui ai tué mon mari. Ce n’était pas mon frère.

Hasieran ez nintzen konturatu zertaz ari zen. Erratzaren igurtziekin batera aterako zitzaion purrustadaren bat izan ote zen iruditu zitzaidan.

– Zer?

– Nik hil nuela senarra. Ez zela anaia izan –errepikatu zidan beti ere bizkarra emanda eta ahots doinu leun-leunez mintzo.

Lanean jarraitzen zuen bitartean hasi zitzaidan etxean bizi izandako tragediaren berri ematen, hainbesteko irrikaz itxarondako kontakizunaren amaieraren berri ematen. Ohituraz ziztu bizian burutzen zuen zeregina poliki-poliki egin zuen egun hartan. Zapiarekin ez zeuden hautsak kentzen apaletatik; inoiz garbitzen ez zituen behe-oholak garbitzeko belauniko jarrita; harraskan orban ikusezinak belakiarekin behin eta berriro igurzten. Ispilua garbitu zuenean bakarrik begiratu genion unetxo batez elkarri. Irribarre tristea egin zidan Veroniquek beste aldera begiratu aurretik. Pentsatu nuen ez zitzaiola batere erraza izan behar aitorpen horrekin barrua hustea.

Ezkondu eta senarrak anaia lekutu zuenez geroztik Veroniqueren bizimodua egonkortu egin

zen. Garbiketa-teknikari ikasketei esker kartzela-ospitalean lana lortu zuenetik senarraren zabarkeria jasatea errazagoa zitzaion. Zernahi gerta ere, iheserako atearen giltzatzat zuen lanbidea, askatasunerako bide, gauzak gehiago okertzera. Eta haurdun gelditu zenez geroztik haurra jaio ahala, edo lehenago, alde egiteko aukerarekin gero eta maizago egiten zuen amets.

Senarraren zabarkeriak aspaldi igaroa zuen hitzen bidezko erasoen marra. Hasierako irainak noizean behineko bultzadekin laguntzen hasi zen, ustekabean emandako zaplaztekoekin. Kolpe gogorren bat ere bildu zuen senarrarengandik mozkor arraila itzultzen zenetan. Beragatik jasan zuena haurragatik ez zuela jasango argi zuen Veroniquek.

Artean ez zekien mutikoa edo neskatoa izango zen, baina bazekien ez zuela gizon horren eraginpean hazi nahi umea. Bere ustez, neskatoa izatekotan bera jipoitzen zuen bezala jipoituko zuelako, eta mutikoa izatekotan handitzean aitagandik ikasitakoak errepikatuko zituelako, hark bezala jipoituz emakumeak. Laneko atseden unetan erizain eta presozainekin kafea har-

tzen zuen bitartean entzunak zituen antzekoak. Presozainek asko zekiten horretaz: aitak jipoitu eta tratu txarrak ematen zituelako bihurtu zela halakoa bortxatzaile, edo bestea prostituta eta drogen mendeko.

– Anaia ustekabean agertu zen gurera. Atea ireki nuenean ia ez nuen ezagutu, bere irudia ezaguna egin zitzaidan arren: zarpail zetorren, adats eta bizar luze. Masailetan negar ildo lehor eta zikinak zituen. Nabarmen zuen ez zegoela bere onean. Horrelakoetan beti beldurtu izan nau. Senarra iraintzen hasi zen, hor al zegoen galdezka. Bertatik bota behar genuela esan zidan lehendabizi. Gero, berehala alde egin behar genuela bertatik. Iritziz aldatzen zuen segituan. Bitartean zin egiten zidan zoriontsu izango ginela hirurok elkarrekin, bera izango zela haurrak behar zuen moduko aita, bion artean heziko genuela. Erreguka hasi zitzaidan, «goazen!», eta gero, «bion artean botako dugu!».

Veronique saiatu zen anaia zentzatzen, zeukan itxurarekin ez zutela nora joan ulertarazten. Senarra une batetik bestera iristekoa zela esan zion, eta han aurkitzen bazuen zernahi gerta zi-

tekeela. Hobe zuela alde egitea, pixka bat txukuntzea eta berriro etortzea, ordurako gauzak lasaitasunez pentsatuta erabakiko zutela zer egin.

– Erosketak egin ohi nituen saltegian jarri zidan hitzordua, astelehenean. Asteburuan prestatuko zuela dena, azaltzeko hara beharrezko puskekin betetako maletatxo batekin, uzteko gainerakoa bere kontu. Masailean musu luzea ematen zidan bitartean sentitu nuen zerion kiratsa, zorriak zituen, zornatutako zauriak lepoaldean, hortzak belztuak. Eskua sabelean jarri zidan, goxo, «lasai txiki» esaten zion artean barrukoari. Mutila izatekotan bere izena jarriko ote nion galdetu zidan. Hori ere ez nekiela esan nion, jaio aurretik haurrei izena jartzeak zorte txarra ematen duela esan nionean etsi zuen. Lasaituta joan zen, gaixoa. Baina ordurako banekien hurrengo astelehenean ez nintzela jarritako hitzordura azalduko.

Veroniquek ez zuen senarragandik libratu eta anaiaren besoetan erori nahi. Aske nahi zuen. Aski zuen. Astelehenean hitzorduaren ordua iritsi bitartean urduri egon zen, bazekien anaiari

traizio egiten ari zitzaiola, berriro. Ilunduta jo zuen etxeko atean. Dardarka ireki zion, buruz ondo ikasita zituen hark ulertzeko moduan esan behar zizkionak. Ez zuen ezagutu, alegia, ez zen aurrekoan azaldu zitzaion *clochard*-a. Baina atarian zuenaren irudia oso ezaguna egin zitzaion: zinez itxuraldatu zen anaia asteburuan. Bere neurrikoak ez ziren arren, batzuk zabal eta besteak estu, arropa berriak zeramatzan soinean, bizarra txukun antzean eginda zuen –zauritxoz josia zuen aurpegia–, eta ilea ere moztuta, ileapaintzaile ez oso trebe baten lana izan zela ezagun zuen arren. Veroniqueren harridurarako ez zion kargu hartu hitzordura ez agertzeagatik.

– «Begira», esan zidan ardo botila garesti bat erakutsiz. «Gure bidaiari hasiera ona emateko». Estu besarkatu ninduen, hain estu haurdun nengoela eta kontu egiteko oroitarazi behar izan niola. Sarrarazi nuen eta egongelako besaulkian esertzeko eskatu nion. Poliki-poliki hitz egin nion. Esan nion senarra laster iritsiko zela, ez nuela berarekin alde egiteko asmorik, haurra jaio bitartean ez nuela etxetik alde egiteko asmorik. Muturtu egin zitzaidan. Segituan aldatu

zuen aldartea ordea, haurra jaio eta gero alde egingo genuela esanez alaitu zen berriro. Ezetz esan nion, gero ere ezetz. Esan nion haurra jaio ahala alde egiteko asmoa neukala, haurra bakarrik haziko nuela. Asko maite nuela ere esan nion, baina haurraz arduratzea oso nekeza izango zela eta ezin izango nintzela beraz ere arduratu. Ez ninduela entzun uste dut, oso eder nengoela errepikatzen zidan ahots dardaratiz. Hurbiltzeko eskatu zidan, haurra sentitu nahi zuela. Hurbildu nintzaion eta belarria sabelean jarrita haurrari hizketan hasi zitzaion.

Bat-batean zutitu eta besoetatik heldu zuen anaiak. «Goazen!» esan zion, «goazen, urde zikina etorri aurretik». Ezetz erantzun zion Veroniquek, ez zuela berarekin inora joateko asmorik errepikatu zion, ez orduan eta ezta gero ere. Haurra jaio eta beste nonbait egokituko zenean gonbidatuko zuela etxera, etxea beti egongo zela zabalik berarentzat, baina alde egiteko ordua zuela jada. Paper bat eman zion laneko telefono eta ordutegiekin. Nahi bazuen hara deitzeko edota egoteko zain lanetik ateratzen zenean, arriskurik gabeko lekua zela, senarra ez

baitzitzaion inoiz lanera bila joaten. «Badakik», esan zion, «ez ditik kartzela inguruak maite».

– Ez genuen kanpoko atea irekitzen entzun. Besarkatuta harrapatu gintuen. Hasieran amorante bat zela usteko zuen, sutan hurbildu baitzitzaigun, baina gero anaia zela ikusi zuenean barrezka hasi zen, hari trufa eginez: «Bota al haute zirkutik, pailazo halakoa!». Ez nuen sekula anaia horrela ikusi. Lehoi batek bezala egin zuen harengana, ukabilka, harramazka, ostikoka hartu zuen. Hasieran ustekabean harrapatu zuen erasoak, baina senarra anaia baino askoz ere indartsuagoa nuen, hordituta zegoen bezala egonda ere, eta segituan hartu zuen mendean. Haiek kolpeak ematen zizkionak eta haiek min oihuak anaiarenak. Txorimalo batek bezala astintzen zituen besoak. Hilko zuen utzi izan banio.

Veroniquek anaiak ekarritako ardo botila hartu eta garondoan eman zion kolpea senarrari. Senarrak lurrera bidean burua mahaiaren ertzarekin jo zuen eta ziplo gelditu zen, borrokaldiaren anabasaren artean, ardo eta odol putzuaren erdian, konorte gabe itxuraz, hilda benetan.

– «Nik hil dut» esan zidan anaiak bere onera etorri zenean. Ezetz esan nion, ez zela bera izan. Baina bera baiezkoan tematu zen. «Nahigabe izan da, nire buruaren defentsan hil dut Jean-Noel». Ez zuen besterik esaten. Nik, negarrez, ezetz, ni izan nintzela. Argituko geniola dena Poliziari. Baina berak ezetz, biok sartuko gintuztela kartzelara, eta nik haurra zaindu behar nuela.

Veronique bere senar zenduaren gorpuaren ondoan eserita, negarrez gelditu zen bitartean anaiak alde egin zuen.

Auzokoak ohituta zeudenez zalaparta entzutera, Veroniquek berak deitu arte ez zen Polizia agertu. Galdeketetan anaiak asmatutako bertsio lausoa eman zien, xok egoeran zegoela aitzakia, xehetasun handirik gabe. *Garde-à-vue*-aren ondoren epaileak aske utzi zuen, bere aurkako froga zuzen eta sendoegirik ez egoteaz gain haurdun zegoelako.

Anaiak hilabete luzeak eman zituen bidez bide, Poliziari ihes. Azkenean, nekatuta, bere burua eman zuen arte. Zigorra arintzeko esperantzaz arrebarekin adostutako bertsioa berretsi zien poliziei, txarrenean nahigabeko hilketaz

akusatuko zutela espero zuen, eta denbora gutxiren buruan askatuko zutela.

– Hara! Orain badakizu Dimitriren istorioaren bukaera –esan zidan Veroniquek, garbiketa-tresnak bilduta kanpora zihoala.

– Eta haurra? Zer da neska ala mutila?

– Hilda jaio zen.

Eta joan egin zen. Ezin nintekeen bere atzetik abiatu. Oihu egin niezaiokeen, «Veronique!», etortzeko. Agian, kontsolatu ordez, Dimitri bertatik ateratzeko asmoa ote zuen jakin-mina ase besterik ez nuen nahi, nahiz eta hala izatekotan banekien jadanik ez nintzela abentura horretako bidaide izango.

Hodeiertzari begira egoten naun. Udazkena heldu dun, hoztu din eguraldiak, atzean gelditu ditun udako egun sargoriak. Tapaki bat jarri ohi zidan Veroniquek belaunetan. Ez naizela hotz esaten diodan arren, ez zien jaramonik egiten nire purrustadei, esaten zidan hotzeria harrapatuko dudala kasu egiten ez badut.

Fredek dio agure baten antz gero eta handiagoa dudala. Hala da, zahartuta ikusten dut neure burua ispiluan. Aktibitate fisikorik ezak gorputza ez ezik burmuinak ere herdoiltzen dizkidala iruditzen zait. Kartzelaren hormetako porlana nire zainetan hedatzen ariko balitzait bezala.

Isiltasunean egotea maite dut. Ez dut lehen bezala musikarik entzuten. Nahiago dut kaletik iristen zaizkidan hotsak entzutea (oihu bat, Poliziaren sirena, autoen burrundara, haizea), hots bakoitzak atxikita daraman bizitza irudikatuz. Entzuten ez ditudan hotsei ere adi egoten naiz. Hemen ez ditut Naonedeko isolamenduko etxarte txikian bezala kaleko zarata hurbil-hurbilak entzuten. Orduan, kartzelako hormaren ondotik igaroz eskolatik etxera zihoazen haurren jolasak

entzuten nituen, erosketen gurditxoarekin zihoazen etxekoandreen urrats presatuak. *Camembert*-ean luzeak egiten nituen bitartean, urratsen eta ahotsen jabeen bizitzak irudikatzen nituen, haien buruhauste, zalantza eta pozak.

– Erabakiak hartzen ikasten dugunerako ohartzen gara, bizitzan gero eta aurrerago orduan eta murritzagoa dela dugun hautua –esan zidan behin Xabierrek.

Besaulkian jarrita, eskuak belaunburuetan pausatuta, bizkarra xut, begirada inon, hausnarketa sakonetarako eguna zuela nabaritu nion jarreran.

– Hasieran, denok gara itsasoan bukatuko duten euri tantak. Zein ubidetik egingo dugun bidaia izaten da kontua. Mendian beherago eta orduan eta hautu gutxiago. Azkenerako, uren banalerroek, errekastoek, bailarek, errekek, ibaiek, bokaleek taxutzen dute gure bizitza, gure bizileku eta bidaideak nortzuk izango diren baldintzatuz.

– Ez gara ur tanta hutsak –esan niezaiokeen–, aurrean duen ibilbideari baietz edo ezetz esateko aukera duten izakiak baizik.

Ordukoan ez nintzen eztabaidan korapilatu ordea, berarekin ados ez nengoen arren. Nire ustez ez baitago inon idatzia zein itsasotan emango dugun azken hatsa, eta egingo dugunaren edo egingo ez dugunaren baitan ere badago gure etorkizunaren norabidea erabakitzerik, aldatzerik. Jaiotzen garen unetik hiltzen garen arte.

Gurasoek sortu gintuzten unetik, gure birikak lehen aldiz arnasez betetzen diren bederatzi hiletako tarte luzean izan ezik –orduan ez baikara gure buruaren jabe–, bizitza ia osoan dugu gure ibilbidea hautatzeko aukera.

Jaiotzea ez dago gure esku. Gurasoen proiektua edo ustekabea besterik ez gara eskuarki.

Ernaltzea ustekabekoa den kasuetan, *babarruntxoa* haur jaioberri bihurtu arte dagoen prozesua borondatezko haurdunaldiaren oso bestelakoa da. Batzuetan bikoteak azkar onartuko du haurra mundura ekarri eta guraso bihurtzea. Gerta daiteke emakumeak bere amatasunaren deiari erantzun nahi izatea baina gizonak haurrik nahi ez izatea. Alderantziz ere gertatzen da. Gizonak aita izateko irrika izan baina emakumea

amatasuna onartzeko prest ez egotea, arrazoi ugari direla medio. Adibidez, ohekide (edo larrekide) izandako gizona bere haurraren aitatzat nahi ez izatea. Gerta daiteke ere, Veroniquek egin asmo zuen bezala, amatasuna onartu bai baina aitarik (ezta osabarik) gabe.

Bazakinat ez direla bikote aukerak horretan ahitzen, bi arrek edo bi emek osatutako bikoteek ere izaten ditizten haurrak. Gerta daiteken baita ere izugarrikeria baten ondorioz egotea haurdun emakumea. Orduan ez zagon hirukirik. Biren arteko harremana dun. Tartean sufrimenduaren lainoa dagoela, oihuak, mina, fisikoa eta garunak erdibitzen dituen beste min hori, tximista batek ezkerreko begia zulatuko baligu bezala sortzen den min zital hori, sudur-zuloetan barrena, eztarria urratu eta bihotza, birikak, sabela, bularra, bagina zartatzen duen mina. Agian, gutxika-gutxika, maitasunak desagerraraziko duen samina. Bortxatzaileak desegindako bizitzari emango ote dio haurrak zentzu berria?

Edonola izanda ere, gure esku ez dauden halabehar ugariren gurutzaketaren ondorioz gaitun mundu honetakoak. Jaiotzen garen unetik aurre-

ra, aldiz, neurri handi batean gure esku zagon gure bizitzaren gobernua eta amaiera.

«Jaio nintzen» esaten dinagu «jaio ninduten» zuzenagoaren ordez. Baina ez dinagu inoiz «hil nintzen» esango, ezta «hil ninduten» ere.

Etsaiek nolako etorkizuna apailatu diguten bazakinat. Alabaina, etorkizuna aurrez idatzi gabea dela uste duten baikor horietakoa naizenez, nahiago dinat nire (gure) etorkizuna haiek uste dutena baino alaiagoa izan dadin lan egitea.

Etorkizuna irudika dezakegu, orainean bizi gara, eta iragana gogoratzen dugu. Txikitako jolasa genuen hori: gure bizitzaz genuen lehen oroitzapena elkarri kontatzea.

Lehen oroitzapena: bi urte inguru izango ditut, Soriako kartzelako korridorean barrena noa arrebarekin, kartzelazainek biluzik miatu ondoren. Aita dugu zain burdin hesiaren beste aldean. Ilun dago dena, zorua distiratsu gogoratzen dut. Aita ikusten dudan lehen aldia da, jaioberri nintzela, hilabete eta hamaika egun nituela atxilotu baitzuten. Korridore erdian gelditu naiz, negarrari eman diot, ama eskatu dut eta atzera egin dut kartzela irteerarantz marruka. Ez dut gogoratzen aitak besarkatu ote ninduen ere. Aterako ninduten, arreba aitarekin geldituko zen.

Ez dakit guztia nire oroitzapena den edo gurasoek kontatu ondoren berreraikitako irudia den. Badakit ordea, korridore ilunaren eta zoruaren distiraren oroitzapena bederen nire-nireak direla.

Maiz kontatu esan izan diet lagun eta ezezagunei aita kartzelan ezagutu nuela. Baina idatzi dudan arte ez naiz hunkitu. Idazketa eten behar dut, orduko negarrari jarraipena emateko.

Txikitako oroitzapen bizienek Soria dute agerleku: Soriako kartzela (arreba eta biok biluzteari uko egiten, biok adostu bezala negar batean, barruko arropa ez zigutela kenduko lortu arte), Soriako hiria (Hostal Continental ostatuaren sarrera, kartzelarako malda), Soriako probintzia (Laguna Negra ederra). Denborak higatutako oroitzapenen artean iraun duten perla arraroak.

Non gertatu ziren ez dakizkidan txikitako oroitzapen guztiak ere Sorian kokatzen ditut: taberna ketsu baten erdian nago, lepoa okertuta telebistari begira *parrokiano* zaratatsuen artean, zezen eta toreatzaileekin liluratuta, Ama, galdu-

ta nengoelakoan kezkatuta, bila etorri zitzaidan arte.

Soriako kartzelako patioa elurretan, eguzki galdatan. Aitak egindako marrazkien oroitza dut oroimenaren lagungarri... eta argazkiak! Arreba, Axier eta hirurok kartzelako patioan. Axierren aita Imanol eta gurea, biak beltzaran eta ihar, irribarretsu.

Aitaren ziegan bazkaltzen, Rosal de la Fronterako Mario sukaldariak haurrok kartzelara sartzeko baimena genuen egunetan prestatzen zigun menu berezia: *Arroz a la cubana*! Arroz zuria, tomate saltsa eta arrautza frijitua.

Orain, ohean etzanda, berreskuratzen ditudan altxorrak: iraganeko usainak, irudiak, ametsak, gertaerak. Arreba zaurituta *cuartosocorrora* eraman behar izan zutenekoa. *Lobo* filma ikusterakoan egin genituen negarrak, otsemea hiltzen zuten ehiztari gaiztoek eta otsokumeak bakar-bakarrik gelditzen ziren negu gorrian. Eta gu, negar eta negar. Ama ere ariko zen. Urtean bitan baino ez genuenez ikusten aita, Errege eguna izango zen ordukoa. Zinema-gelatik irten

ginenean, filmean bezala, elurra ari zuen Soriako kaletan.

Orduko gure etxeaz dudan oroitzapena ere aitaren presentziaz beteta dago: aitaren larruzko eskulanak logelako sabaitik zintzilik, ilargia jan zuen saguaren marrazki bidezko ipuina ohe ondoko zurezko horman itsatsita.

Etxeko sukalde txikian amaren bexamela eta enpanadillak, Zeraingo Kontxaren kroketak. Aitaren hutsunea.

Orain ere aita burdin hesiaren bestaldean ikusten dut, ikustaldia amaituta arrebarekin irteerarantz doanean, ni kartzelaren erraietarantz naramaten bitartean.

– Aita! –oihu egin dut.

Eskua altxatu dute agurtzeko. Ukabila altxatu dut nik.

– Gora Euskal Herria askatuta! –oihukatu diet, alai.

– Gora! –erantzun didate.

– Ca suffit! –diost kartzelazainak, urduri.

– Zoaz pikutara! –erantzun diot, *orreagar*.

Arratsaldeko seietan atea ixten didatenean, ziegaz jabetzen naun, ez dun inor sartuko bertan biharamun goiza arte, oraingoz bukatu baitira goizaldeko ordu txikietan ustekabean atea ireki eta kartzela-aldaketarako ordu erdi ematen ziguten garaiak. Giltza ikusezina asmatutako sarrailan sartuz barrutik ixten dinat atea: espetxe barruko lurralde liberatua bihurtzen dun ziega, gotorlekua.

Kaiera ireki eta idazkera baldar eta presatuaz edota ordenagailua piztu eta tekla-jotze bortitz eta erritmo gabekoaz, istant bat lehenago ez zegoen mundu bat sortzen dut. Hitzen bidezko magia horrek liluratzen nau. Idatzi aurretik, non zeuden hitzen bidez eraikitzen ditudan lekuak, pertsonak, gertaerak? Nondik asmatzen ditut nire hatz zailduei idazteko agintzen dizkiodanak?

Burutik eskura eta hatzetara, boligrafoaren tintaren bidez paperera, edo ordenagailuaren pantailara, inprimatu eta paperera. Paperetik begietara.

Hara, higana eta jendartearen bizitza arruntera lot nazakeen zilbor-hestea. Inoiz etengo didaten beldur naizen zilbor-hestea.

Inguruan dudana, perlesiak eta mota guztietako eritasunak jotako jendez osatutakoa, ez baita jendartea. Jendartearen hondakinez osatutako anabasa zentzugabea baizik. Izurriak kutsatutako jendez betetzeko, hirien edo basamortuen erdian eraikitako irlak dira kartzelak. Irla jendetsuak, eta, hala ere, *bakarmortuak*.

Inguruan dudana zuen gabezia da.

Gurpil-aulkian eserita, hor kanpoan dagoen bizitzan eragiteko beste modurik ez dut idaztea baino. Nire sentimenduak higanatzeko beste modurik ez dut. Bizirik hobiratua ere bizi naizela, bizi garela, oroitarazteko, nire *Save Ours Souls* berezia da.

Mozorroen atzean ezkutatzen saiatzeko ahalegin hutsalaren gainetik, idaztea biluzik munduratzea da.

Idazterakoan desegiten hasten dira porlanezko hormak, urtzen dira burdinazko barroteak eta segurtasunezko sareak, erortzen dira helikopte-

roen aurkako kableak, kartzelazainak jantziak galdu eta biluzik gelditzen dira.

Ondarretako hondartzan gaude Martin eta biok, harea kiskalita dago, ez gaitu erretzen ordea, sentiberatasuna aspaldi galdua dute-eta gure oin azpi zailduek.

Eguzkitan daudenei erreparatu gabe goaz aurrera, haiek gugan erreparatzen duten arduratu gabe. Begiratuko baligukete gure itxura ikusi hutsarekin jakingo al lukete nondik gatozen? Ikusiko al lizkigukete eskumuturretako orbainak, orkatiletakoak? Gure bizar luze zurituen azpian zer ezkutatzen den jakingurarik ba al lukete? Gure ibileran nabarituko al lukete gure arima erdibituen samina? Gure garaipenaren harrotasuna? Une batez ere utzi ez gaituen gure duintasuna betaurreko beltzen oztopoa gaindituta iritsiko ote da beren begietara?

Itsas bazterreko hondar hezeak freskatzen dizkit oinazpiak, olatuen aparrak behatzak kilimatzen dizkit, ura hotza dago, ez zait ardura, bare dago itsasoa, pixkana-pixkana sartzen noa.

Ez dut albora begiratu beharrik Martin ondoan datorrela jakiteko, argi entzuten ditut olatu-

txoek bere gorputzaren kontra jotzean egiten dituzten txipli-txaplak.

Ura orkatiletan gora belaunetara iritsi zait, izterretara, barrabiletara, sabelera, bularraldera, lepora, ahora, sudurrera. Oinez jarraitzen dut, burua ere estali arte.

Gorputza indarge utzi dut, uraren bultzadaz gainazalera atera naiz. Sakon hartu dut arnas, lehen aldiz arnasten denean bezala. Horrela arnas egin nahi nuke beti.

Gainazalean etzanda nago orain, begiak itxita. Eguzkia han goian sentitzen dut. Martin ni bezala irudikatzen dut, irribarretsu.

Olatuen murmurioa belarrietan, hondartzan jolasean ari direnen oihuak entzuten ditut urrunean. Jitoan narama itsas korronteak, ez dakit nora, itsas bazterrera edo itsas zabalera, ez zait axola.

Ez ditinat begiak ireki nahi, hire besoetan ez bada.

Istripu Handia baino lehen, *Promenadatik* igo nintzen batean gertatu zunan. Izerditan nentorrenan korrika egin ostean, beti bezala elbarrien eta gurpil-aulkidunen artean.

Kartzelazainak atea ireki zuenean konturatu nindunan. Nire ohean etzanda hengoen! Izutu egin nindunan. Kartzelazainari begiratu nionan ikarak hartuta, bera ere ohartu ote zen? Aztoramen berezirik gabe galdetu zidanan dutxara noiz joan nahi nuen. Nola zitekeen? Nola ez hinduen berak ere ikusi? Eta nola iritsi hintzen bertara? Nondik sartu hintzen?

Geroxeago joango nintzela erantzun nionan, urduritasuna ahal bezala ezkutatuz. Atea itxi zinan. Ez nindunan ate ondotik mugitu, hiri begira.

Hor nengonan, zur eta lur. Eta hor hengoen, fetu jarreran etzanda, haragi eta malko. Nahi gabe egiten zitenan ihes malkoek, euri jasaren ostean gainezka egiten duen urtegiak bezala. Hiru aste lehenago igorri arren bezperan jaso nuen gutunean esaten hidan bezala: «*itoitztuta* nagok».

Gure *bakarmortuaz* oroitu nindunan, egarriz, hilzorian, milaka kilometrotara zeuden kartzela-ospitale banatan bakartuta gintuzten garaiaz.

Hor nengonan. Urrats bat bera ere emateko ezgai. Burura trumilka zetozkidan galderak ahoratu ezinik.

Zenbat denbora zen elkar besarkatu ez genuela? Gure gorputzek bata bestearen epela sentitu ez zutela? Nire hatsa hire garondoan, beso bat hire sabelean, bestea hire bularrean. Edo alderantziz, itzulia hartu eta nire bizkarraren kontra sentituz hire epela.

Bost axola nola moldatu ote hintzen nire gelaraino iristeko, nola egin ote huen hire ziegatik ateratzeko. Honezkero hire bila beharko zitenan, eta laster batean behar zitenan bertan, besterik ez bazen nire presentzia baiesteko.

Ihes egitea lortu eta nire gelara etortzea ere!

Nire gelan azaldu eta errieta egitea ere! Badakin, bat-bateko erreakzio traketsekoa naun. Badakin poker jokalari baten antzera sentimenduak ezkutatzen saiatzen naizela: barne ekaitza, barne mina, poza, zorabioa, nora eza... Badakin aspaldian lehortuta ditudala malko-bideak.

«Hik hitz egin beharko dun, maitea, esan ezan zerbait», pentsatu nuen.

– Hator. Hator nire ondora. Etzan hadi nire ondoan. Besarka nazak –eskatu hidan burua itzuli gabe.

Hurbildu nintzainan. Hire gorputz etzanera egokitu ninan nirea. Klak!

– Maite haut –esan hidan.

– Infinitu maite haut –esan ninan.

– Kontatu egidak istorio bat. Gogoratzen al duk nola Xabier Gulliberren ipuinak kontatzen hizkion gure semeari lokartu aurretik? Kontatu egidak niri ere zerbait –eskatu hidan.

[*Istorio bat kontatzeko eskatu nian. Ez nian esan, «hator, besarka nazak, biluztu hadi, jo egidak larrua, erotu nazak, harramazka nazak, zupa nazak, edan nazak, hirea nauk, behar haut, ezin diat gehiago», ez, istorio bat kontatzeko eskatu nian. Hortxe sumatzen hindudan, ahoa erdi irekita, arnas egitera ere ausartu gabe ia, agertu bezala desagertuko nintzen beldur, eta buruan pentsamenduak trumilka, egoera aztertzen, arriskuen kalkulu amaigabeak egiten, horrelako egoera batean nola erreakzionatu behar den*

ezin asmatuz, zein den erreakzio egokiena asmatu nahian. Nire presentziaren inguruko gorabehera guztiak xehatzen garuneko errotarrian. Zertarako eta finean esaldi bakar batez osatutako orea jaulkitzeko ahotik. Zer esan behar huen?: «nola iritsi haiz hona? Zer egiten dun hemen?». Edo: «ba al dakin nola maite haudan?». Hitzik gabeko besarkada besterik behar ez nian arren, «hator, Mikel, etzan hadi eta kontatu egidak istorio bat», eskatu nian. Hain zuan handia nekea, hain sakona samina, hain zuan handia hire gorputzaz osatutako babesean egoteko beharra, hire besoen babesa, hire hitzen hatsa ene belarrietan sentitzeko premia].

Korridorean arrapaladan zebiltzan kartzelazainen urratsak entzun nitinan. Oihuka ari zitunan, norbaitek ihes egin zuela ziotenan, Dimitriren izena entzutea iruditu zitzaidanan, OLT baten laguntzaz alde egin zuela, 251.ekoa ere falta zela ziotenan oihuka.

Gelako atearen aurrean gelditu zitunan. Atea ondo itxita eta leiarretik begiratuta, bertan nengoela baietsita aurrera jo zitenan. Gutxika urrats hotsa urrundu eta zalaparta baretu zen arte.

honetara ekarri nindutenean ez ninan uste handik gutxira hiltzeko zorian egongo nintzenik. Ez ninan uste, ezta ere, bertan berriro jaioko nintzenik.